

Zorionak Windows Mobile® **Smartphone** berria erosteagatik.

Mesedez, irakurri ezazu jarraitu aurretik

GAILU HAU KAXATIK ATERATZEAN EZ DAGO KARGATUTA.

EZ ATERA BATERIA GAILUA KARGATZEN ARI DENEAN.

TELEFONOAREN KANPOKO KARKASA IREKITZEN EDO MANIPULATZEN BADUZU, BERMEA BALIOGABETU EGINGO DA.

PRIBATUTASUNAREN MUGAK

Herrialde batzuetan, telefono bidezko elkarrizketa guztiak agertu behar dira, eta, erabakita dagoenez, hitz egiten ari den pertsonari jakinarazi behar zaio elkarrizketa grabatzen ari dela. Bete itzazu beti produktu horien erabilerari buruzko legeak eta arauak, zure liburua grabatzeko erabiltzean.

COPYRIGHTAREN INFORMAZIOA

Microsoft, MS-DOS, Windows, Windows NT, Windows Server, Windows Mobile, ActiveSync, Excel, Internet Explorer, MSN, Outlook, PowerPoint eta Word Microsoft Corporation-ek Estatu Batuetan eta beste herrialde batzuetan erregistratutako marka komertzialak dira.

Osasunari buruzko informazio garrantzitsua eta segurtasun-neurriak

Produktua erabiltzen duzunean, kontuan hartu orain azalduko diren segurtasun-neurriak, ardura juridikoak eta bestelako kalteak saihesteko.

Gogoan izan eta errespetatu produktuaren segurtasun- eta funtzionamendu-argibide guztiak. Produktu honen erabilera-jarraibideetako ohar guztiak kontuan izan.

Kontuan izan ohar hauek, kalte pertsonalak sortzeko arriskua, deskarga elektrikoen eta suteen arriskua eta ekipoari kalteak sortzeko arriskua murrizteko:

SEGURTASUN ELEKTRIKOA

Produktu hau bateria egokiaren bidez edo elektrizitate-horniketaren unitatearen bidez erabiltzeko diseinatu da. Beste modu batera erabiltzea arriskutsua izan daiteke eta produktu honi emandako edozein onarpen baliogabetzen du.

LURRERA ZUZEN KONEKTATZEKO SEGURTASUN-NEURRIAK

KONTUZ – Produktua gailu kide bati ez bazaio ongi konektatzen, deskarga elektrikoa eragiteko arriskua dago.

Ekipoak USB kable bat du ordenagailu eramangarri batera edo etxeko ordenagailura konektatzeko. Egiaztatu zure ordenagailua lurrera zuzen konektatuta dagoela produktua ordenagailuan konektatu aurretik.

Ordenagailuaren elikatze-kableak lurrerako eramailea eta lurrerako entxufeak du. Konektorea hartune egoki batera konektatuta egon behar du, ongi instalatuta eta lurrera konektatuta, lekuko kodeen eta arauen arabera.

ELIKATZE-UNITATERAKO SEGURTASUN-NEURRIAK

- **Erabili kanpoko energia-iturria**

Produktua zehaztapan elektrikoen etiketan adierazitako energia-iturri motarekin bakarrik erabili behar da. Ziur ez bazaude zein energia-iturri mota behar den, galdetu zerbitzuen hornitzaile baimenduari edo tokiko konpainia elektrikoari. Bateriarekin eta beste energia-iturriekin dabiltzan produktuen kasuan, ikus produktu horien erabilera-jarraibideak.

- **Bateria kontuz maneiatu.**

Produktuak litio-ioizko/litio-polimerozko bateria du. Bateria behar bezala erabiltzen ez bada, erretzeko arriskua dago. Ez saiatu bateria irekitzen eta konpontzen. Ez desmuntatu, zapaldu edo zulatu kontaktuak edo kanpoko zirkuituak, ez bota bateria sutara edo uretara, eta ez eduki 60 °C-tik (140 °F) goragoko tenperaturetan.

OHARRA!



Leherketa-arriskua dago bateria ez bada ongi aldatzen. Sua edo erredurak izateko arriskua murrizteko, ez desmuntatu, zapaldu edo zulatu kanpoko kontaktuak, ezta zirkuitu laburrik egin ere; halaber, ez eduki 60 °C-tik (140 °F) gorako tenperaturetan. Ez bota bateria uretara edo sutara. Ordezko bateria egokiak bakarrik erabili. Birziklatu edo bota erabilitako bateriak tokiko arauen arabera, edo produktuarekin batera emandako erreferentziaren gidaren arabera.



EGUZKIAREN ZUZENENKO ARGIARI DAGOZKION SEGURTASUN-NEURRIAK

Produktua gehiegizko hezetasunetik eta muturreko tenperaturatik babestu. Ez utzi produktua edo bateria ibilgailu baten barnean edo tenperatura 60 °C baino gehiagokoa izan daitekeen lekuetan, esaterako, autoaren agintemahaian, eguzkiaren edo argi ultramore gogorraren eraginpean izan daitekeen tokian, leihoaren edo kristal baten atzean denbora luzez. Horrek produktua kaltetu dezake, bateria berotu edo ibilgailua arriskuan jarri.

ENTZUMEN-GALERAREN PREBENTZIOA

KONTUZ – Entzungailuak edo audiofonoak erabiltzea eta zarata-maila handian denbora luzez izatea, entzumena betirako galtzea eragin dezake.

OHARRA : Frantzian, gailu honentzako entzungailuak edo audiofonoak (Merry-
k egindakoak, EMC220 modelo-zk.) onartuta daude eta Frantziako
legearen L.5232-1 artikulua eskatutako NF EN 50332-1:2000 arauan
adierazitako presio akustikoaren maila betetzen dute.



SEGURTASUNA HEGAZKINEAN

Produktu honek hegazkinen nabigazio-sisteman eta komunikazio-sarean sor ditzakeen interferentzien ondorioz, herrialde askotan debekatuta dago hegazkinetan erabiltzea. Gailua aireontzi batean erabili nahi baduzu, itzali telefonoa eta Hegaldia modura aldatu.

INGURUMEN-MURRIZTAPENAK

Ez erabili produktu hau zerbitzuguneetan, erregai-gordailuetan, instalazio kimikoetan edo leherketa-lanak egiten diren tokietan. Ez ibili leherketak gertatzeko arriskua dagoen inguruneetan, besteak beste, zerbitzuguneetan, ontzien estalkiaren azpian, instalazio kimikoetan, gai kimikoen transferentziarako edo bilketarako instalazioak eta aireak gai kimikoak edo partikulak (area, partikula solidoak edo hauts metalikoa) dituen lekuan. Leku horietan txinpartak sortzen badira, leherketa edo sutea eragin dezakete, eta horrek zauri larriak edo heriotza ekar ditzake.

INGURUNE LEHERGARRIAK

Ingurune leherkor batean zaudenean, edo material sukoiak dauden lekuan, produktua itzaltzea eta ohar eta jarraibide guztiak kontuan hartzea gomendatzen da. Leku horietan txinpartak sortzen badira, horiek leherketa bat edo sute bat eragin dezakete eta zauri larriak edo heriotza ekar ditzake. Ez erabili telefonoa erregaiak betetzeko lekuetan (adibidez, gasolina-zerbitzuguneak) eta begiratu zer debeku dauden irrati-ekipamenduak erregai-ontzietan, instalazio kimikoetan edo leherketa-operazioak egiten diren lekuetan erabiltzeari buruz. Eremu leherkorak modu argian iragarrita egoten dira, baina ez beti. Horien artean daude zerbitzuguneak, ontzien estalkiaren azpian, erregaiak edo gai kimikoak transferitzeko edo biltegitatzeko instalazioak, eta aireak gai kimikoak edo partikula solidoak edo hauts metalikoak dituen inguruneak.

SEGURTASUNA ERREPIDEAN

Ibilgailua martxan dagoenean, debekatuta dago gidariak telefono mugikorra erabiltzea, larrialdi-kasua ez bada. Herrialde batzuetan, esku libreko gailuak erabil daitezke horien ordeez.

IRRATI-MAIZTASUNAREN ENERGIAREKIKO ESPOSIZIOARI BURUZKO SEGURTASUN-NEURRIAK

- Ez erabili gailua metalezko egituretatik gertu (esaterako, eraikin baten altzairuzko egitura).
- Ez erabili zure gailua iturri elektromagnetiko bizietatik gertu, besteak beste, mikrouhin-labeak, mikrofonoak, bozgorailuak, TB eta irratia.
- Fabrikatzaileak onartutako jatorrizko osagarriak edo metalik ez dutenak bakarrik erabili.
- Jatorrizko fabrikatzaileak onartu ez dituen osagarriak erabiltzeak irradi-maiztasunarekiko esposizioari buruzko arau lokalak hautsi ditzake.

EKIPAMENDU MEDIKOEN FUNTZIOEKIN GERTATUTAKO INTERFERENTZIAK

Produktu honek kalte egin diezaioke ekipamendu medikoen funtzionamenduari. Hori dela eta, ospitale eta klinika gehienetan debekatuta dago telefono mugikor hau erabiltzea. Bestelako ekipamendu mediko pertsonalen bat erabiltzen baduzu, kontsultatu gailuaren fabrikatzailea, kanpoko irradi-maiztasunaren energiaren aurka behar bezala babestuta zauden jakiteko. Zure medikuak lagun diezazuke informazio hori eskuratzen. Itzali telefonoa eremu horietan hala egitea adierazten duten argibideak badaude. Baliteke ospitaleak eta klinika medikoak kanpoko irradi-maiztasunaren energiarekiko sentikorrek diren ekipoak erabiltzea.

ENTZUMEN-APARATUAK

Zenbait telefono mugikorrek interferentziak sor ditzakete entzuteko zenbait aparaturekin. Interferentzia-mota hori badago, kontsultatu zerbitzuaren hornitzaileari edo deitu bezeroaren arretarako zerbitzuari, bestelako aukerak aztertzeko.

ERRADIAZIO EZ-IONIZATZAILEAK

Adierazitako baldintza normaletan erabili produktua, erradiazioen errendimendua eta interferentzien segurtasuna ziurtatzeko. Gainerako ekipamendu bezala, produktu hau modu seguruan erabiltzeko eta segurtasun pertsonalerako, erabiltzaileei gomendatzen zaie antena gorputzetik gertuegi ez edukitzea operazioak egiten direnean.

SEGURTASUN-NEURRI OROKORRAK

- **Mantentze-lanen oharren markak**

Ez egin produktueta funtzionamenduko edo mantentze-lanetako dokumentazioan adierazten ez den mantentze-lanik. Zati horien barruko osagaiak hornitzaile edo mantentze-lanetako teknikari baimenduek konpondu behar dituzte.

- **Mantentze-lana behar duten kalteak**

Deskonektatu produktua korrante-hartunetik eta jakinarazi hornitzaile edo mantentze-lanetako teknikari baimenduari kasu hauetakoren batean:

- Produktuaren barrura likidoa isuri edo objekturen bat erori da.
- Produktua euritan edo uretan egon da.
- Produktua erori edo hondatu egin da.
- Gehiegi berotu izanaren aztarnak daude.
- Funtzionamendu-argibideak jarraitu arren, produktuak ez du ongi funtzionatzen.
- Saihestu leku beroak

Produktua bero-iturrietatik urrun eduki behar da, adibidez, erradiadoreak, berogailuak edo beroa sortzen duten beste produktu batzuk (anplifikadoreak barne).

- **Saihestu eremu hezeak**

Ez erabili inoiz produktua leku hezeetan.

- **Ez erabili gailua tenperatura-aldaketa bortitza gertatu ondoren.**

Gailua tenperatura eta/edo hezetasun-aldaketa bortitzak dauden tokietan erabiltzean, unitatearen gainean edo barruan kondentsazioa sor daiteke. Kalterik ez izateko, itxaron nahikoa denbora barneko hezetasuna lurrundu arte, berriz erabili aurretik.

OHARRA : Gailua tenperatura baxuko ingurunetik epelagora mugitzean, edo tenperatura altuetatik oso baxuetara aldatzean, unitatea giro-tenperaturara moldatzen utzi, konektatu aurretik.

- **Ez sartu objektuak produktuan**

Ez sartu inoiz objekturik kaxaren zirrikietan edo produktuaren beste zuloetan. Zirrikituak eta irekiuneak aireztapenerako dira. Horiek ez dira blokeatu behar, ezta estali behar ere.

- **Muntaia-osagarriak**

Ez erabili produktua mahai, orga, euskarri, tripode edo euskarri ezegonkor batean. Produktua muntatzeko, jarraitu beti fabrikatzailearen jarraibideei eta erabili fabrikatzaileak aholkatutako muntaia-osagarriak.

- **Saihestu muntaia ezegonkorak**

Ez jarri produktua oinarri ezegonkor batean.

- **Erabili produktua onartutako ekipoekin**

Produktu hau ordenagailuekin eta ekipoarekin erabiltzeko egokitzat jotako aukerekin bakarrik erabili behar da.

- **Bolumena doitzea**

Jaitsi bolumena entzungailuak edo beste audio-gailu bat erabili aurretik.

- **Garbiketa**

Deskonektatu produktua garbitu aurretik. Ez erabil garbigarri likidorik eta aerosolik. Garbitzeko ohial heze bat erabili; ez erabili INOIZ ura kristal likidozko pantaila garbitzeko.

Edukia

1. kapitulua	Hasiera	13
1.1	Gailua eta osagarriak ezagutzea	14
1.2	SIM txartela sartzea	20
1.3	Micro SD txartela instalatzea	21
1.4	Pantaila nagusia	21
1.5	Programen adierazleen eta ikonoen egoera	23
1.6	Inicio menua erabiltzea	26
1.7	Zerrenda bizkorra erabiltzea	27
1.8	Informazioa sartzea	27
1.9	Bateriari buruzko informazioa	28
2. kapitulua	Telefonoaren ezaugarriak erabiltzea	31
2.1	Telefonoa erabiltzea	32
2.2	Ahots-deia egitea	33
2.3	Ahots-deia egitea	36
2.4	Sarrerako deien aukerak	36
2.5	Markaketari buruzko informazio osagarria	38
2.6	STK zerbitzua	39
3. kapitulua	Informazioa sinkronizatzea eta posta elektronikoaren segurtasuna konfiguratzea	41

3.1 ActiveSync-i buruz	42
3.2 ActiveSync konfiguratztea.....	42
3.3 Informazioa sinkronizatzea	45
3.4 Bluetooth bidez sinkronizatzea.....	51
3.5 Musika, bideoa eta irudiak sinkronizatzea	51
3.6 Posta elektronikoaren segurtasuna konfiguratztea.....	53
4. kapitulua Telefonoa administratztea	55
4.1 Telefonoa pertsonalizatztea	56
4.2 Programak gehitu edo kentzea	62
4.3 Zereginen kudeatzailea erabiltzea eta memoria administratztea	63
4.4 Fitxategien segurtasun-kopia administratztea eta egitea	64
4.5 Telefonoa babestea	67
4.6 Telefonoa berrabiaratztea.....	69
4.7 Telefonoa berrezartztea.....	69
5. kapitulua Konektatztea	71
5.1 Internetera konektatztea	72
5.2 Internet Explorer Mobile erabiltzea	76
5.3 Konexio partekatua erabiltzea	78
5.4 Comm Manager erabiltzea	79
5.5 Bluetooth erabiltzea	80
5.6 Wi-Fi konexioa erabiltzea	90

6. kapitulua Mezuak trukatzea eta Outlook erabiltzea	93
6.1 Posta elektronikoa eta testu-mezuak erabiltzea	94
6.2 MMS mezuak erabiltzea	103
6.3 Pocket MSN Messenger erabiltzea	111
6.4 Egutegia erabiltzea.....	113
6.5 Kontaktua erabiltzea.....	114
6.6 Lanak erabiltzea.....	120
6.7 Ahots-oharrak erabiltzea	121
7. kapitulua Multimedia erabiltzea	123
7.1 Kamera eta bideo-grabagailua erabiltzea	124
7.2 Irudiak eta bideoak erabiltzea.....	134
7.3 Windows Media Player erabiltzea	139
7.4 Midlet Manager erabiltzea.....	147
8. kapitulua Beste aplikazio batzuk erabiltzea	153
8.1 ClearVue Suite erabiltzea	154
8.2 Markaketa bizkorra erabiltzea	158
8.3 Voice Speed Dial erabiltzea.....	159
Eranskina	161
A.1 Arauei buruzko oharrak	162
A.2 PCaren baldintzak ActiveSync 4.x exekutatzeko	167
A.3 Zehaztapenak.....	168
Aurkibidea	171

1. kapitulua

Hasiera

1.1 Gailua eta osagarriak ezagutzea

1.2 SIM txartela sartzea

1.3 Micro SD txartela instalatzea

1.4 Pantaila nagusia

1.5 Programen adierazleen eta ikonoen egoera


1.6 Inicio menua erabiltzea

1.7 Zerrenda bizkorra erabiltzea

1.8 Informazioa sartzea

1.9 Bateriari buruzko informazioa

1.1 Gailua eta osagarriak ezagutzea



Elementua	Funtzioa
1. Bozgorailua	Telefono-dei bat entzuteko.
2. Bistaratze-pantaila	
3. ezkerreko SOFTWARE-TEKLA	Sakatu botoiaren gaineko etiketan agertzen den komandoa exekutatzeko.
4. HITZ EGIN	Sakatu telefono-zenbaki bat markatzeko, dei bati erantzuteko, beste dei batera igarotzeko edo dei bat itxarote moduan ezartzeko. Sakatuta eduki bozgorailu-modua aktibatzeko/desaktibatzeko.
5. HASIERA	Sakatu hasierako orrira joateko.
6. QWERTY teklatura	Ordenagailu baten teklaturaren estandarren antzekoa.
7.  tekla	Sakatu behin sinboloak idazteko (karaktere urdinak) eta testu-eremuan zenbakiak sartzeko. Bi aldiz sakatu hainbat sinbolo eta zenbaki sartzeko.
8.  tekla	Letra bakarria idazteko letra larriz. sakatu FN tekla eta gero tekla hau guztia letra larriz idazteko.
9. Mikrofonoa	Mikrofonotik hitz egin telefono-dei bat jasotzean edo egitean, eta ahotsa grabatzean.
10.  tekla	Sakatu Sinboloen taula irekitzeko (testua idaztean) edo Camara programa irekitzeko.
11.  tekla	Sakatu Internet Explorer Mobile irekitzeko
12.  tekla	Sakatu mezularitza-programa irekitzeko.
13. ATZERA	Sakatu aurreko pantailara joateko, edo atzera egin eta karaktereak ezabatuzeko.
14. AMAITU	Sakatu dei bat amaitzeko, edo sakatuta eduki telefonoa blokeatzeko.
15. eskuineko SOFTWARE-TEKLA	Sakatu botoiaren gaineko etiketan agertzen den komandoa exekutatzeko.
16. NABIGAZIO-KONTROLA/ENTRAR	Ezkerrera, eskuinera, gora edo behera joateko. Sakatu erdigunean, ENTRAR botoiaren funtzio berdinak egiteko.

Elementua	Funtzioa
17. LED adierazleak	Goiko LED adierazleek (berdea/gorria/janbar) bateriaren egoeraren berri eta telefono-sarearen berri ematen dute, hurrenez hurren, eta behekoek (urdina/berdea) Bluetooth eta wi-Fi konexioen egoeraren berri ematen dute. LED adierazleei buruzko informazio gehiago izateko, kontsultatu atal honen amaierako taula.



Elementua	Funtzioa
18. ENERGIA	Sakatu (1 segundo baino luzaroago) telefonoa pizteko eta itzaltzeko. Bestela, sakatu eta askatu azkar ENERGIA botoia, profilak aldatzeko balio duen Zerrenda azkarra erakusteko, Comm Manager-a irekitzeko, teklatura blokeatzeko/ desblokeatzeko eta gailua blokeatzeko/ desblokeatzeko.
19. Kameraren lentea	
20. Norberaren argazkia egiteko ispilua	Biratu telefonoa atzeko alde zure aurrean izateko. Hala, zure irudian ispilua islatuta ikusiko duzu zure buruaren argazkiak hartzeko.
21. Atzeko tapa	Kendu tapa batera, SIM txartela eta Micro SD txartela sartzeko
22. Bozgorailuak	Entzun audio-fitxategiak edo telefono-deiak bozgorailu-modua erabiltzean
23. JOGGR	<p>Hautatutako JOGGR funtzioaren arabera, mugitu erdiko zatia gorantz edo beherantz bolumena doitzeko edo pantailako elementuetara sartzeko. Desplazamendu-barra gisa erabiltzean</p> <ul style="list-style-type: none"> -Egin klik bikoitza erdigunean elementu bat hautatzeko. -Egin klik bikoitza goiko aldean, aurreko pantailara itzultzeko. -Egin klik bikoitza Outlook Mobile irekitzeko. <p>Egin klik Inicio > Configuración > JOGGR JOGGR erabiltzeko funtzio aproposa doitzeko. Desaktibatuz Habilitar JOGGR koadroa JOGGR desgaitzeko.</p>
24. Sinkronizazio-konektorea/audiofonoa	Erabili konektore hori datuak sinkronizatzeko edo bateria kargatzeko. Ireki tapa elastikoa (ezkerretik) audiofonoa konektatzeko eta audio-fitxategiak entzuteko, edo telefonoaren esku libreko kita erabiltzeko.


LED adierazleak

Hona hemen LED adierazleetan ager daitezkeen koloreen laburpena:

Goiko LEDa	Egoera
Erabat berdea	Bateria guztiz kargatuta dago
Zuria	Bateriaren konpartimendua hutsik dago, ez dago SIM txartelik instalatuta edo telefonoa itzalita dago.
Erabat horia	Bateria kargatzen ari da edo telefonoa ActiveSync erabiltzen ari da PC batekin sinkronizatzeko
Erabat gorri	Bateria ez dago instalatuta edo guztiz deskargatuta dago
Berde keinukaria	Sarerako konexioa
Gorri keinukaria	Bateriaren karga oso baxu (% 10 baino gutxiago)
Hori keinukaria	Bateriaren temperatura muga funtzionaletatik kanpo dago (0-38 gradu Celsius edo 32-118 gradu Fahrenheit), eta kargatzea eten egin da.
LED horia/berdea itzalita	Bateriak huts egin du. (✖) "Bateriaren hutsa" adierazlea agertzen da. Kasu honetan, argi berde keinukariaren LEDa berreskura daiteke, AC egokigailua deskonektatuta.
Beheko LEDa	Egoera
Urdin keinukaria	Bluetooth modua doituta "Aktibatua" edo "Ikusgarria" moduan
Berde keinukaria	Wi-Fi sarera konektatuta

Osagarriak

Telefonoarekin batera, osagarri hauek daude:



Osagarria	Funtzioa
1. CA egokigailua	Telefonoaren bateria kargatzeko
2. USB kablea	Telefonoa PCra konektatzeko eta datuak sinkronizatzeko
3. Entzungailu estereofonikoak	Kontrol lerragarria, bolumena kontrolatzeko, eta Enviar/Finalizar botoia dute. Sakatu botoia dei bat erantzuteko edo zain uzteko, eta amaitzea nahiago baduzu, sakatu eta sakatuta eduki botoi hori. Konektatu audiofonoaren konektorea, audio-fitxategiak entzuteko.

1.2 SIM txartela sartzea

Haririk gabeko zerbitzuen hornitzaileak SIM txartela emango dizu (Subscriber Identity Module-Abonatuaren identifikazio-modulua), eta hor oinarritzko informazioa dago, besteak beste, telefono-zenbakia eta helbide-liburuxka.

Hasi aurretik, ziurtatu telefonoa itzalita dagoela.

Ireki tapa eta kendu bateria

1. Eutsi telefonoa, teklatua beherantz eskuan dagoela. Beste eskuarekin, sakatu tapan eta lerratu tapa irekitzeko.
2. Kendu bateria beheko muturretik jasota.



Sartu SIM txartela

- Sartu SIM txartela goian ezkerreko ertzean dagoen zirrikitan, urre-koloreko kontaktuak beherantz daudela. Sartu SIM txartela, bere lekuan ongi dagoen arte.
- SIM txartela kentzeko, muturretako bat igo (txartela apur bat igoko da), eta zirrikitutik kanpora lerratu.



Sartu SIM txartela



Atera SIM txartela

Ordeztu bateria

1. Bateriaren ertzaren gainean agertutako kontaktu metalikoak telefonoaren gorputzeko terminalekin lerrokatu, eta, gero, bateriaren goiko aldean presionatu instalatzeko.
2. Ipini telefonoaren tapa bere tokian.



1.3 Micro SD txartela instalatzea

Irudiak, bideoak eta bestelako datuak gordetzeko beste aukera bat izan nahi baduzu, sartu Micro SD (Secure Digital) txartel bat telefonoan.

Micro SD txartela sartzea

1. Kendu telefonoaren atzeko tapa.
2. Sartu Micro SD txartela zirikatuan, kontaktu metalikoak beherantz kokatuta daudela.



Kentzeko, sakatu Micro SD txartelaren gainean, hori zirikitutik ateratzeko.

1.4 Pantaila nagusia

Pantaila nagusiak informazio garrantzitsua erakusten du: hitzorduak, egoera-adierazleak, egungo data, ordua edo profila eta erabili diren programen ikonoak. Programa bat zuzenean irekitzeko, hautatu horren ikonoa eta sakatu ENTRAR.

- Edozein lekutatik pantaila nagusira joateko sakatu INICIO.
- Pantaila nagusiaren bistaratzea pertsonalizatzeko, hondoa barne, egin klik hemen: **Inicio > Configuración > Pantalla principal.**



Pantaila nagusia

1. Haririk gabeko zerbitzuen hornitzailearen izena, data eta ordua erakusten du. Sakatu Comm Manager menua irekitzeko.
2. Uneko profila erakusten du. Egin klik profila aldatzeko.
3. Egin klik dei galdu baten xehetasunak ikusteko.
4. Egin klik Mensajes karpeta irekitzeko.
5. Egin klik hurrengo hitzorduaren ordua ikusteko.
6. Hautatu erabili berri duzun programa bat eta ireki zuzenean pantaila nagusitik.
7. Egin klik programen ikono guztiak bistartzeko.
8. Oharrak erakusten ditu, esaterako, dei galduak edo mezu berriak.
9. JOGGR funtzioa erakusten du
10. Sarearen eta konexioaren egoera erakusten du.
11. Energiaren egoera erakusten du.
12. Sarearen seinalearen intentsitatea erakusten du.
13. Egin klik, Contactos, Llamadas edo Mensajes irekitzeko.

Erabili CONTROL DE NAVEGACIÓN edo JOGGR pantaila nagusian zehar mugitzeko eta informazio gehiago lortzeko, adibidez, une horretan erabiltzen ari zaren profila edo jaso dituzun mezu berrien kopurua. Egin klik informazio-eremuan profila aldatzeko edo mezuen karpeta irekitzeko.

1.5 Programen adierazleen eta ikonoen egoera





Taula honetan ikus daitezke zure telefonoan instalatuta dauden programak.

Ikonoa	Deskribapena	Ikonoa	Deskribapena
	Mezu elektronikoko edo testu-mezu berria (SMSa, mezu laburren zerbitzua)		Wi-Fi funtzioa gaituta, nahiz eta telefonoa ez dagoen haririk gabeko sare bati konektatuta
	Ibiltaritza (roaming)		Wi-Fi konektatuta
	MSN Messenger-en mezu berria		Haririk gabeko sareari konektatuta
	SIM txartelik gabe markatzea		Wi-Fi bidezko sinkronizazioa
	Ahots-deia abian da		GPRS erabilgarri
	Uneko datu-deia		GPRS konexioa
	Birbidalitako deiak		GPRS erabiltzen
	Deia zain		EDGE eskuragarri
	Galdutako deia		EDGE erabiltzen
	Bateria-maila		Testua letra xehez idaztea
	Bateria baxua		Testua letra larriz idaztea, Blok Maius
	Bateria oso baxu		Testua letra larriz idaztea
	Bateria kargatzen		Zenbakiak eta sinboloak idaztea (urdinez markatuta) blokeatuta
	Bateria gabe edo bateriak huts egin du		Zenbakiak eta sinboloak idaztea (urdinez markatuta)
	Seinalearen intentsitatea		Txirrina desaktibatuta
	Irratia konektatuta edo seinale gabe		Bozgorailua aktibatuta
	Irratia itzalita		Bibratu, dei-alerta
	Ez dago SIM txartelik instalatuta		JOGGR-ek bolumen-kontrol gisa funtzionatzen du
	SIM txartelak huts egin du		JOGGR-ek lerratze-barra gisa funtzionatzen du
	Sinkronizazio-errorea		JOGGR ezgaituta dago
	Mikrofonoa isilik		Bluetooth-a aktibatuta edo modu ikusgarrian

Taula honetan ikus daitezke zure telefonoan instalatuta dauden programak.

Ikonoa	Programa	Deskribapena
	ActiveSync	Telefono baten eta PC baten arteko informazioa sinkronizatzen du
	Kalkulagailua	Oinarrizko kalkuluak eta aritmetikoak egiteko, esaterako, batuketak, kenketak, biderketak eta zatiketak.
	Egutegia	Zure hitzorduak kontrolatzen ditu eta bilera-eskaerak sortzen ditu
	Deiak	Egunero egindako deiak, jasotakoak eta galdutakoak jasotzen ditu.
	Kamera	Argazkiak ateratzen ditu hainbat modutan.
	Ezabatu memoria	Memoria ezabatu eta telefonoa berrabiarazten du, fabrikako konfigurazio lehenetsira leheneratu ondoren
	ClearVue Document	Word dokumentuak telefonoan ikusteko.
	ClearVue PDF	PDF dokumentuak telefonoan ikusteko.
	ClearVue Presentation	PowerPoint fitxategiak telefonoan ikusteko.
	ClearVue Worksheet	Excel kalkulu-orriak telefonoan ikusteko.
	Comm Manager	Comm Manager-aren bidez, telefonoa gaitu edo desgaitu dezakezu, ordenagailuarekin sinkronizazioa hasi edo gelditu, telefonoa isildu, Bluetooth-a gaitu edo desgaitu, Wi-Fi funtzioa aktibatu edo desaktibatu, datu-zerbitzuak gelditu edo Direct Push funtzioa gaitu edo desgaitu
	Kontaktua	Kontaktuei buruzko informazioa gordetzen du

Ikonoa	Programa	Deskribapena
	Deskarga-agentea	Deskargaren egoerari eta Internetetik deskargatutakoaren edukuari buruzko informazioa ematen du
	Fitxategien arak.	Telefonoan fitxategiak eta karpetak antolatzen eta administratzen laguntzen du
	Jokoak	Bi joko ditu: Bubble breaker eta Solitario, telefonoarekin batera ematen dira
	Internet Explorer	Web eta WAP guneetan nabigatzen du eta programa eta fitxategi berriak deskargatzen ditu Internetetik
	Konexio partekatua	Telefonoa ordenagailuaren kanpo-modem gisa erabiltzeko, USB ataka edo Bluetooth erabilia.
	Mezularitza	Mezu elektronikoak, MMSak eta testu-mezuak bidaltzeko eta jasotzeko.
	Midlet Manager	Java aplikazioak telefonoan deskargatu eta instalatzeko aukera ematen du (adibidez, jokoak eta tresnak).
	Irudiak eta bideoak	Multimedia-fitxategiak jaso, antolatu eta sailkatu egiten ditu telefonoaren Mis imágenes karpetan edo biltegiratze-txartel batean
	Pocket MSN	Bat-bateko mezuak bidali eta jasotzen ditu MSN Messenger-eko kontaktuekin.
	Konfigurazioa	Pertsonalizatu zure telefonoa, erabiltzen duzunaren arabera
	SIM administratzailea	SIM administratzailearen bidez, SIM txartelean gordetako kontaktuak administratu ditzakezu. Halaber, SIMeko edukiak telefonoko Kontaktuetara kopiatzeko erabil daiteke programa.
	STK zerbitzua	Haririk gabeko zerbitzuaren hornitzaileak eskainitako informaziora eta bestelako zerbitzuetara sartzeko.
	Markaketa bizkorra	Markaketa bizkorreko sarrerak sor daitezke, gehien erabiltzen diren telefono-zenbakiak markatzeko edo gehien erabiltzen diren programetara sartzeko
	Zeregin-kudeatzailea	Zure telefonoan exekutatzen diren programa guztiak egunean izaten ditu

Ikonoa	Programa	Deskribapena
	Zereginak	Zereginen jarraipena egiten du egunero.
	Bideo-grabatzaila	Bideoklipak grabatzen ditu hainbat modutan eta iraupen aldakorra du
	Ahots-oharrak	Ahots-grabazio laburrak egiteko
	Voice Speed Dial	Ahotsaren bidez programa bat irekitzeko edo kontaktu bati deitzeko
	Windows Media Player	Bideo- eta audio-fitxategiak erreproduzitzeko.

1.6 Inicio menua erabiltzea

Inicio menua pantaila nagusiaren ezkerreko beheko ertzean dago, eta pantaila batean edo gehiagotan banatutako ikonoak ikus daitezke.

Inicio menuan eskuragarri dauden programak ikustea

Pantaila nagusian, egin klik **Inicio** aukeran. Programa gehiago ikusteko, egin klik **Más** botoian edo erabili NABIGAZIO-KONTROLA.



Inicio menua

Telefonoak jada baditu berehala erabil daitezkeen hainbat programa. Windows Mobile®-ren hasiera diskotik edo Internetetik gehigarriak lor ditzakezu eta telefonoan instala ditzakezu, edo telefono mugikorrentzako txikizkako dendetan softwarea erosi eta telefonoan instala dezakezu.

1.7 Zerrenda bizkorra erabiltzea

Zerrenda bizkorrak funtzio-zerrenda baterako sarbidea eskaintzen du, esaterako, telefonoa eta teklatura blokeatzea, Comm Manager irekitzea edo beste profil bat hautatzea. Profilei buruzko informazio gehiago behar baduzu, ikus 4. atala.

Zerrenda bizkorra sartzeko









1. Sakatu arin (sakatu eta askatu azkar) ENERGIA botoia. Mesedez, kontuan izan ENERGIA botoia denbora luzez sakatuta izanez gero, telefonoa itzali egingo dela.
2. Bilatu zerrendan, eta aukeratu nahi duzuna. Gero, hauta ezazu aukera hauetako bat:
 - Sakatu **Seleccionar**.
 - Sakatu ENTRAR botoia.
 - Sakatu dagokion zenbakia QWERTY teklaturan.
 - Egin klik bikoitza JOGGR-en erdigunean.
3. Zerrenda bizkorretik edozein unetan irteteko, sakatu **Cancelar**.

1.8 Informazioa sartzea

Testua, zenbakiak eta sinboloak gehitu ditzakezu QWERTY teklatura erabilia. Testua edo zenbakiak idatzi behar diren eremu bat aukeratzean, telefonoak automatikoki hautatuko du idazteko modu egokia. Pantailaren eskuinaldeko goiko ertzean dagoen egoera-adierazleak adieraziko du azkenaldia erabili den sarrera-modua.

abc	Testua letra xehez idaztea
ABC	Testua letra larriz idaztea, Blok Maius
ABC	Testua letra larriz idaztea
12#	Zenbakiak eta sinboloak idaztea (urdinez markatuta) blokeatuta
12#	Zenbakiak eta sinboloak idaztea (urdinez markatuta)

QWERTY teklatuarekin hau egin dezakezu:

- Letra xeheak idazteko, sakatu teklak hatzekin.
- Letra larriak erabiltzeko, sakatu  lehendabizi, eta, gero, sakatu  Letra xeheetara itzultzeko, sakatu botoi horiek berriro.
- Letra larria lehenengoa bakarrik izan dadin, sakatu  eta, gero, dagokion tekla sakatu.
- Zenbaki bat edo sinbolo bat sartzeko (urdinez markatuta), sakatu  eta, gero, dagokion tekla sakatu.
- Testua gehitzen ari dela Sinboloen taula irekitzeko, sakatu eta sakatuta eduki ESPACIO edo sakatu .
- Luze sakatu  bistaratzen den menua ikusteko.
- Luze sakatu  teklatura blokeatzeko.
- Luze sakatu tekla ahots-postontzira  sartzeko. Ahots-postontziaren zenbakia konfiguratu egin behar da, zerbitzuak funtziona dezan. Egiaztatzeko, egin klik **Inicio > Configuración > Teléfono > Opciones de llamada** eta gero egin klik **Número de buzón de voz** aukeran.

1.9 Bateriari buruzko informazioa

Bateriaren errendimenduan hainbat faktorek eragiten dute: adibidez, Interneteko hornitzailearen sare-konfigurazioa, seinaleen intentsitatea, gailua martxan dagoen inguruneko tenperatura, aukeratutako eta erabilitako ezaugarriak edota konfigurazioak, gailuaren konexio-ataketara konektatutako elementuak eta elementu horiek ahotsa, datuak eta beste programak erabiltzeko irizpideak eta abar.

Bateriaren gutxi gorabeherako iraupena:

- Hitz egiteko denbora: gehienez **5** ordu
- Deiak jasotzeko/egiteko denbora: gehienez **218** ordu
- WMV (Windows Media Video) erreprodukzioa: gehienez **8** ordu
- WMA (Windows Media Audio) erreprodukzioa: gehienez **12** ordu

OHARRA! Sute- edo erredura-arriskua murrizteko:


- Ez saiatu bateriak irekitzen, desmuntatzen edo konpontzen.
- Kanpoko kontaktuak ez zapaldu, zulatu edo zirkuitu laburra egin, eta ez bota bateria uretara edo sutara.
- Ez jarri 60 °C (140 °F) baino temperatura altuagoan.
- Produktu honetarako egokia den bateria bakarrik instalatu.
- Birziklatu edo bota erabilitako bateriak tokiko arauen arabera.

Bateriako energia egiaztatzeko

- **Inicio > Configuración > Administración energía.**

Energia-aurrezpena optimizatzeko

- Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Configuración > Administración energía** atalean, eta doitu atzeko argiaren, pantailaren eta argi-sentsorearen konfigurazioa.



Karga gutxi duen bateria administratzeko

Bateriaren karga baxua adierazten duen oharra agertzen denean:

1. Gorde uneko datuak berehala.
2. Sinkronizatu PCarekin bateria kargatzeko.
3. Itzali telefonoa.

Bateria nola kargatu jakiteko, kontsultatu **Guía rápida de instalación.**

2. kapitulua

Telefonoaren ezaugarriak erabiltzea

2.1 Telefonoa erabiltzea

2.2 Ahots-deia egitea.

2.3 Ahots-deia egitea.

2.4 Sarrerako deien aukerak

2.5 Markaketari buruzko informazio osagarria

2.6 STK zerbitzua

2.1 Telefonoa erabiltzea

Telefonoa erabil dezakezu ahots-deiak egiteko, jasotzeko eta horien jarraipena egiteko eta testu-mezuak (SMS, mezu laburren zerbitzua) edo MMS mezuak (multimedia-mezuen zerbitzua) bidaltzeko. Halaber, Contactos ataletik zuzenean markatu dezakezu zenbaki bat, eta SIM txarteleko kontaktuak telefonoko Contactos atalera transferitu.

Telefonoaren pantaila

Telefonoaren pantailatik, kontaktu bat ireki, horri deitu edo halako bat bilatu dezakezu, baita Contactos atalean zenbaki berri bat gorde ere. Telefonoaren pantailara sartzeko, aukera hauetako bat hautatu:

- Sakatu HABLAR ()
- Sartu zuzenean telefono-zenbakia QWERTY teklatua sakatuta.

Sartu PIN zenbakia

SIM txartel gehienek (abonatuaren identifikazio-modulua) PIN bat dute (identifikazio pertsonalerako zenbakia), haririk gabeko zerbitzuen hornitzaileak eman duena. Pina sartu behar da telefonoa erabili behar duzun bakoitzean.

1. Pantaila nagusian, sakatu **Inicio > Configuración > Seguridad > Habilitar PIN de SIM**.
2. Idatzi haririk gabeko zerbitzuen hornitzaileak emandako PIN kodea.
3. Egin klik **Listo** aukeran.


Oharra PINa hiru aldiz jarraian gaizki sartuz gero, SIM txartela blokeatu egiten da. Hala gertatzen denean, haririk gabeko zerbitzuen hornitzaileak emandako PUK kodearekin (PIN Unblocking Key – PINa desblokeatzeko kodea) desblokeatu dezakezu.

Txirrinaren tonuak ezartzea

Abisuak nola jakinarazi hauta dezakezu, sartzen diren deien, abisuen, mezu laburren, alarmen eta bestelako en kasuan.

Sartzen diren deientzat txirrin-tonua ezartzeko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio** > **Configuración** > **Sonidos** aukeran.
2. Hautatu tonu bat zerrendan.
3. Egin klik **Listo** aukeran.


Vibrar hautatzen baduzu, soinua desaktibatu egingo da eta telefonoak bibratu egingo du dei bat jasotzean. Vibrar ikonoa () izenburu-barran agertuko da. Txirrin-tonuen zerrendatik **Ninguno** hautatzean, telefonoaren soinua kentzen da. Soinuei buruz informazio gehiago izateko, kontsulta ezazu 4. kapituluko “Gertaera eta ekintzen bidez jakinarazteko modua hautatzea” atala.

Oharra Deia egiten ari dela entzungailuaren bolumena doitzeko, erabili telefonoaren albo bateko panelean dagoen JOGGR-a.

2.2 Ahots-deia egitea


Telefono honekin, deiak egin daitezke pantaila nagusitik, telefonoaren pantailatik, Contactos ataletik, Marcado rápido ataletik edo Llamadas ataletik edo SIM kontaktuetatik (SIM txartelean gordetako kontaktuetatik).

Pantaila nagusitik deiak egitea


- Sartu telefono-zenbaki bat QWERTY teklatua erabiliz eta sakatu HABLAR ().
- Sakatu ATRAS edo SUPR botoiak, atzera egin behar baduzu.



Telefonoaren pantaila

Iradokizuna: QWERTY teklatuko zenbaki-tekla bat sakatzean, konturatuko zara izen- eta zenbaki-zerrenda bat agertzen dela, telefonoak horrekin bat egiten duen izen edo zenbakia Contactos, Llamadas eta Mercado rápido atalean eta SIM txartelean bilatzen duen bitartean. Adibidez, 5 tekla sakatzean, “D” letrarekin hasten diren izenak eta 5 zenbakiarekin hasten diren telefono-zenbakiak ikusiko dira. Horren segidan sakatzen duzun teklak are gehiago mugatuko du bilaketa. Deitu nahi duzun pertsonaren izena ikustean, hautatu hori eta sakatu HABLAR ().

Contactos aukeratik deitzea


1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Contactos** aukeran.
2. Hautatu nahi duzun zenbakia, eta sakatu HABLAR ()

Halaber, kontaktu-zerrendatik hauta dezakezu nahi duzun kontaktua eta ENTRAR bi aldiz sakatu (behin kontaktuaren xehetasunak ikusteko eta bigarrena horri lotutako zenbakia markatzeko).

Markatu nahi duzun zenbakia zehazteko


Lehenetsitakoaren arabera, kontaktu baten telefono mugikorraren zenbakia markatzen da Contactos ataletik dei bat egitean; hala ere, beste telefono-zenbaki bat markatzea hauta dezakezu.

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Contactos** aukeran.
2. Hautatu kontaktua.
3. Sakatu NAVEGACIÓN ezkerrera edo eskuinera. Zenbakia adierazten duen letra aldatu egiten da: “m” (mugikorra), “t” (lana) edo “h” (etxea).

Halaber, kontaktu bat aukeratu dezakezu kontaktu-zerrendatik eta ENTRAR sakatu dezakezu kontaktu horri lotutako xehetasunak eta zenbakiak ikusteko. Hautatu kontaktu bat eta sakatu HABLAR () edo sakatu ENTRAR zenbakia markatzeko.

- Halaber, kontaktuen zerrendara sar zaitzke pantaila nagusian **Contactos** sakatuta.
- Hautatutako kontaktuarekin erlazionatutako informazioa ikusteko edo editatzeko, egin klik **Menu > Editar**.
- Kontaktua SIM txartelean gordetzeko, sakatu **Menú > Guardar en SIM**.

Llamadas aukeratik deitzea

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Llamadas** aukeran.
2. Hautatu izen bat edo zenbaki bat eta sakatu HABLAR ().

Llamadas pantailan, sakatu ENTRAR xehetasunak ikusteko, esaterako: markatutako, galdutako edo jasotako dei-mota, deiaren iraupena, data edo ordua. Berriz sakatu ENTRAR zenbaki hori markatzeko.

Deiak pertsonalizatzeko

Hainbat aukera hauta ditzakezu Llamadas pantailan, egindako, jasotako edo galdutako deiak pertsonalizatzeko eta iragazteko.

- Contactos-en izen bat bilatzeko, sakatu **Menú > Buscar contacto**.
- Testu-mezu bat bidaltzeko, sakatu **Menú > Enviar mensaje de texto**.
- Mezu elektronikoko bat bidaltzeko, sakatu **Menú > Correo electrónico**.
- Dei baten iraupena bilatzeko, sakatu **Menú > Ver duración llamadas**.
- Dei bat edo zenbaki bat Llamadas ataletik ezabatzeko, sakatu **Menú > Eliminar**.
- Dei- edo zenbaki-zerrenda bat **Llamadas** ataletik ezabatzeko, sakatu **Menú > Eliminar lista**.
- Contactos atalean izen bat edo zenbaki bat gordetzeko, sakatu **Menú > Guardar en contactos**.
- Deia edo zenbakia dei-motatan sailkatzeko, sakatu **Menú > Filtro**.

Oharra Contactos atalean zenbaki bat gordetzeko beste aukera bat dago: Llamadas pantailan Guardar sakatuta.

Markaketa bizkorraren bidez deitzea

Markaketa bizkorra erabiliz ere dei dezakezu. Markaketa bizkorra nola erabili jakiteko, irakurri 8. kapituluko “Markaketa bizkorra erabiltzea” atala.

SIM administratzailetik deitzea

1. Sakatu **Inicio > Expert > Administrador SIM**. Itxaron **SIM** txartelaren edukia deskargatu arte.
2. Hautatu nori deitu nahi diozun eta sakatu **Menú > Marcar**.

2.3 Ahots-deia egitea.

Telefono-dei bat jasotzean erantzun dezakezu edo ez onartu.

Deiei erantzutea edo deiak ez onartzea

- Deia erantzuteko, sakatu **Contestar** edo sakatu HABLAR (📞).
- Deia ez onartzeko, sakatu **Omitir** edo sakatu FINALIZAR (📞).

Deia amaitzeko

- Sakatu FINALIZAR (📞).

2.4 Sarrerako deien aukerak

Telefonoak hainbat aukera ditu deiak aldi berean administratzeko. Jakinarazi egingo dizu beste dei bat sartzean eta hori onartu edo ez erabaki behar duzunean. Telefonoz hitz egiten ari bazara, eta beste dei bat onartzen baduzu, dei batetik bestera alda zaitezke, edo hiru solaskideon arteko konferentzia konfiguratu.

Chunghwa	1 Retener
Conectado:	2 Desactivar micrófono
0972267717	3 Altavoz activado
	4 Conferencia
	5 Activar manos libres
	6 Contactos
	7 Guardar en contactos
	8 Ver calendario
Des. micróf.	9 Llamadas

Sarrerako deien aukerak

- Oharra** Zain dagoen deiaren funtzioa gaitu eta bateragarria izan behar da, zuk abisua jaso dezazun telefonoaren bidez hitz egiten ari zarela beste dei bat jasotzen baduzu. Zain dagoen deiaren aukera gaitzeko, sakatu **Inicio > Configuración > Teléfono > Llamada en espera > Ofrecer notificación de llamada en espera**.

Beste dei bati erantzuteko

1. Sakatu **Contestar**, bigarren deia onartzeko eta lehena zain jartzeko.
2. Bigarren deia amaitu eta lehena berriz hartzeko, sakatu FINALIZAR (o).

Deiak txandakatzeko

- Bi deien artean txandakatzeko, sakatu **Intercambiar**.

Deiak konfiguratzea konferentzietan

1. Utzi dei bat zain eta markatu bigarren zenbakia, edo erantzun bigarren deia deian zehar.
2. Egin klik **Menú** > **Conferencia** aukeran.

Oharrak

- Konferentziaren konexioa ona bada, "Conference" (Konferentzia) hitza agertzen da pantailaren goiko aldean.
- Konferentzia-moduan egindako deian pertsona bat baino gehiago gehitzeko, egin klik **Menú** > **Retener** aukeran, sartu telefono-zenbakia eta, gero, egin klik **Reanudar** aukeran, deira itzultzeko.
- Zerbitzuen hornitzaile guztiak ez dituzte onartzen konferentzia-deiak. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

Tonua aktibatze edo desaktibatze

Bozgorailu integratuaren bidez, esku libreekin hitz egin dezakezu edo hirugarren bati elkarrizketa entzuten utzi

- Deian zehar, egin klik **Menú** > **Altavoz activado** atalean. Handitze-ratioa agertuko da pantailaren goiko aldean.
- Deian zehar Bozgorailua desaktibatze, egin klik **Menú** > **Altavoz desactivado** atalean. Aukera gisa, bozgorailua aktibatu eta desaktibatu dezakezu, deian zehar HABLAR tekla sakatuta edukita.

OHARRA! Entzumenean kalterik ez izateko, ez eduki telefonoa belarriaren ondoan bozgorailua aktibatuta dagoela.

Dei baten soinua desaktibatzeko

Mikrofonoa desaktiba dezakezu deia egiten ari zarela, hala, deitzen ari zarena entzun dezakezu hark zu entzun ez bazaitzake ere.

- Deian zehar, egin klik **Menú** > **Desactivar micrófono** atalean.

Mikrofonoa itzalita dagoenean, > ikonoa agertzen da pantailan. Sakatu **Menú** > **Reactivar micrófono** mikrofonoa berriz aktibatzeke.

2.5 Markaketari buruzko informazio osagarria

Larrialdi-deia egitea

- Sartu herrialdeari dagokion larrialdi-zenbakia eta sakatu HABLAR (📞).

Iradokizuna Larrialdi-zenbaki gehigarriak SIM txartelean sar daitezke. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

Nazioarteko deiak egitea

1. Luze sakatu (📠) telefonoaren teklatuan, seinale hau agertzen den arte: (📠).
(📠) ikonoak deitzen ari zaren herrialdeko nazioarteko aurrizkia ordezkatzan du.
2. Sartu telefono-zenbakia eta sakatu HABLAR (📞). Telefono-zenbaki osoan, herrialdearen kodea, eskualdeko kodea (zero gabe, halakorik badu) eta telefono-zenbakia sartzen dira.

Markaketa-segidan geldialdia eskuz sartzea

Nazioarteko dei batzuek geldialdi bat behar dute markaketa-segidan, deia ongi egin dadin.

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio** > **Contactos** aukeran.
2. Hautatu pausa sartu nahi duzun telefono-zenbakia duen kontaktuaren sarrera eta sakatu ENTRAR kontaktuen txartela irekitzeko.
3. Egin klik **Menú** > **Editar** aukeran.


4. Jarri kurtsorea geldialdia sartu nahi duzun telefono-zenbakiaren gainean.
5. Egin klik **Menú** > **Insertar pausa** aukeran.
“p” letra bistaratuko da zenbakian, markaketa-sekuentzian tartea non egingo den adierazteko.
6. Egin klik **Listo** aukeran.

Markaketa-segidan geldialdi handiagoa eskuz sartzea

Litekeena da telefono-zenbaki batzuek markaketa-segidan geldialdi luzeagoa behar izatea. Kasu horietan, nahi den denbora guztian gelditu daiteke, eta, gero, markaketa-segida eskuz egin.

Oharra aukera hau ezin da erabili SIM txartelean jasotako sarrerekin.

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio** > **Contactos** aukeran.
2. Hautatu pausa sartu nahi duzun telefono-zenbakia duen kontaktuaren sarrera eta sakatu ENTRAR kontaktuen txartela irekitzeko.
3. Egin klik **Menú** > **Editar** aukeran.
4. Jarri kurtsorea geldialdi luzeagoa sartu nahi duzun telefono-zenbakiaren gainean.
5. Egin klik **Menú** > **Insertar espera** aukeran.
“p” letra bistaratuko da zenbakian, markaketa-sekuentzian tartea non egingo den adierazteko.
6. Egin klik **Listo** aukeran.

Oharra Geldialdi luzeagoa duen zenbaki batera deitzean, sakatu HABLAR () berriz markatzen jarraitzeko.

2.6 STK zerbitzua

Sartu SIM txartela dagokion gailuan, zerbitzuen hornitzaileak eskainitako informazio-zerbitzuen gamara sartzeko.

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio** > **Servicio STK** aukeran.
2. Zerbitzu batera sartzeko, egin klik zerrendako elementu batean.

3. kapitulua

Informazioa sinkronizatzea eta posta elektronikoaren segurtasuna konfiguratzea

3.1 ActiveSync-i buruz

3.2 ActiveSync konfiguratzea

3.3 Informazioa sinkronizatzea

3.4 Bluetooth bidez sinkronizatzea

3.5 Musika, bideoa eta irudiak sinkronizatzea

3.6 Posta elektronikoaren segurtasuna konfiguratzea

3.1 ActiveSync-i buruz

ActiveSync-ek telefonoko informazioa eta Outlook-en edukia PCkoarekin sinkronizatzen du. Halaber, ActiveSync-en bidez mugikorren sare bat edo haririk gabeko sarea Exchange Server-ekin sinkronizatu dezake zure konpainiak edo zerbitzuen hornitzaileak Exchange Server Exchange ActiveSync-ekin erabiltzen badu.

Zehazki, honetarako erabil dezakezu ActiveSync:

- Telefono baten eta PCaren arteko informazioa sinkronizatzeko: Outlook-eko posta elektronikoa, kontaktuak, egutegia edo zereginak, eta irudi-, bideo- eta musika-fitxategiak.
- Exchange Server-ekin zuzenean telefonoko Outlook posta elektronikoa, kontaktuak, egutegiko hitzorduak eta zereginak sinkronizatzea, PCa itzalita egon arren egunean egoteko.
- Telefonoaren eta PCaren artean fitxategiak elkartrukatzeko.
- sinkronizatu nahi duzun informazio-mota sinkronizatzeko eta sinkronizatuta dagoen informazio-kantitatea zehazteko. Esaterako, zenbat hitzordu sinkronizatu nahi dituzun hauta dezakezu, egutegiko aurreko asteak berreskuratuta.
- Telefonoko programak gehitu edo/jeta kendu. Xehetasun gehiago jakiteko, ikus 4. kapitulua: "Programak jartzea eta kentzea".

3.2 ActiveSync konfiguratzeko

Ordenagailuan ActiveSync instalatzea eta konfiguratzeko


1. Instalatu ActiveSync PCan, Windows Mobile®-ren hasiera-diskoan azaltzen den bezala.
2. Instalatzen amaituta, sinkronizazioa konfiguratzeko laguntzailea automatikoki abian jartzen da telefonoa PCari konektatzean. Laguntzaileak gidatuko zaitu zure ekipoaren eta gailuaren artean sinkronizazio-harremana sortzeko. Sakatu **Siguiente**.
3. Ez hautatu **Sincronizar directamente con un servidor ejecutando Microsoft Exchange Server** egiaztatze-laukia telefonoa ordenagailu batekin sinkronizatu behar baduzu. Sakatu **Siguiente**, eta zoaz 8. urratsera.

4. Zure gailua Exchange Server-ekin sinkronizatu nahi baduzu, hautatu **Sincronizar directamente con un servidor ejecutando Microsoft Exchange Server** egiaztatze-laukia; gero, sakatu **Siguiente**.
5. Exchange Server-en egiaztagiri-pantailan, idatzi Exchange Server-en helbidea, zure erabiltzaile-izena eta pasahitza eta domeinuaren izena.




Ez baduzu ezagutzen Exchange Server-en helbidea ezta domeinuaren izena ere, sareko administratzailearekin edo ordenagailuarekin egiaztatu dezakezu, hau eginda:

- a. Outlook-en, hautatu **Herramientas > Cuentas de correo electrónico**.
- b. Hautatu **Ver o cambiar cuentas de correo electrónico existentes**.
- c. Egin bi klik **Microsoft Exchange Server** aukeran.
- d. Exchange Server-en konfigurazio-pantailan ikusiko duzu Exchange Server-em izena.



- e. Domeinuaren izena egiaztatzeko, sakatu **Inicio > Configuración > Panel de control**; gero, egin bi klik **Sistema** aukeran.
- f. Propiedades del sistema elkarrizketa-koadroan, egin klik **Nombre del ordenador** fitxan. Domeinuaren izena ikusiko duzu orduan.



- 6. Telefonoan, sartu, halaber, Exchange Server-en konfigurazioa. Informazio gehiagorako, kontsultatu "Exchange Server-ekin zuzenean sinkronizatu" atala.
- 7. Sinkronizazioaren konfigurazio-laguntzailean, sakatu **Siguiente**.
- 8. Hautatu zer informazio-mota sinkronizatu nahi duzun telefonoaren eta ordenagailuaren artean.
Telefonoa ordenagailuarekin eta Exchange Server-ekin sinkronizatu nahi baduzu, hau egin:
 - Hautatu ordenagailuarekin edo Exchange Server-ekin elementu hauek sinkronizatu nahi dituzun: kontaktuak, egutegia, posta elektronikoa eta zereginak. Elementu horiek ezin dira biekin sinkronizatu.
 - Hautatu beste informazio-mota batzuen egiaztatze-laukiak, zure ordenagailuarekin sinkronizatu nahi badituzu.



PCan eta Exchange Server-en dauden informazio-motak

9. Sakatu **Siguiente**.

10. Sakatu **Finalizar**.

Laguntzailea itxitaikoa, ActiveSync-ek automatikoki sinkronizatuko du telefonoa. Sinkronizatzen bukatutaikoa, deskonekta dezakezu telefonoa PCtik.

3.3 Informazioa sinkronizatzea

Telefonoa PCra konektatzean, ActiveSync-ek berehala ezarriko du sinkronizazioa. Telefonoa konektatuta dagoen bitartean, ActiveSync-ek sinkronizatu egiten ditu PCan edo telefonoan gertatzen den aldaketa oro.

Sinkronizazioa eskuz abiarazteko eta geldiarazteko

1. Konektatu telefonoa.

- Informazio lokala PCarekin sinkronizatzeko (Outlook-eko informazioa edo multimedia-fitxategiak), konektatu telefonoa ordenagailura Bluetooth-funtzioa edo kablea erabilia.
- Exchange Server-ekin zuzenean sinkronizatu behar baduzu, erabili PCrako konexioa sarera sartzeko. Bestela, mugikorren sarean edo Wi-Fi sarean sinkroniza dezakezu, PCra konektatu gabe.

2. ActiveSync-en, sakatu **Sinc**. Sinkronizazioa guztiz amaitu aurretik eteteko, sakatu **Detener**.

Oharra ActiveSync 4.x-ek Windows Mobile duten gailuekin sare-konexioa erabiltzen du. Hala, serieko USB konexio batekin baino datu-transferentzia azkarragoa lortzen da. PCa Internetera edo sare lokal batera konektatuta dagoenean, kasu batzuetan, PCak ActiveSync konexioa deskonektatzen du, Interneteko konexioa edo sareko konexioa lehenesten baititu. Hori gertatzen bada, sakatu **Inicio > Configuración > Conexiones** fitxa > **USB a PC**; gero, desaktibatuz **AHabilitar la funcionalidad de red avanzada** egiaztatze-laukia. Hori dela eta, ActiveSync-ek serieko USB konexioa erabiltzen du gailuarekin.

Outlook-eko informazioa ordenagailuarekin sinkronizatzea

Telefonoaren eta PCaren artean konfigurazio-erlazioa ezarri baduzu, sinkronizazioak bi ekipotako Outlook-eko informazioa eguneratuta izango du.

PC batekin baino gehiagorekin edo PC batekin edo gehiagorekin eta Exchange Server-ekin sinkronizatzeko ere konfiguratu dezakezu telefonoa. Ordenagailu batekin baino gehiagorekin sinkronizatzean, sinkronizatutako elementu guztiak sinkronizatutako ordenagailu guztietan agertuko dira. Esaterako, elementu ezberdinak dituzten bi ordenagailuarekin (PC1 eta PC2) sinkronizatzeko konfiguratu bada, eta bi ordenagailuetan telefonoaren kontaktuak egutegiarekin sinkronizatzen badira, hau izango da emaitza:

Kokapena	Egoera berria
PC1	PC2an zeuden Outlook-eko kontaktu eta egutegiko hitzordu guztiak PC1ean ere badaude.
PC2	PC1ean zeuden Outlook-eko kontaktu eta egutegiko hitzordu guztiak PC2an ere badaude.
Telefonoa	PC1eko eta PC2ko Outlook-eko kontaktu eta egutegiko hitzordu guztiak telefonoan daude.

Oharra Outlook-eko posta elektronikoa ordenagailuarekin bakarrik sinkronizatuko da.

Sinkronizatutako informazioa aldatzeko

Telefonoan biltegitratzeko lekua aurrezteko, ActiveSync-ek informazio-bolumen mugatua sinkronizatzen du era lehenetsian. Urrats hauen bidez alda dezakezu sinkronizatutako den informazio-kantitatea.

Oharra Zure telefonoan sinkronizazioaren konfigurazioa aldatu baino lehen, deskonektatu PCtik.

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > ActiveSync** aukeran.
2. ActiveSync-en, sakatu **Menú > Opciones**.
3. Hautatu aukera hauetako bat edo gehiago:
 - Hautatu sinkronizatu nahi dituzun elementuen egiaztatze-laukia. Egiaztatze-lauki bat hautatu ezin baduzu, beharbada, zerrendan beste toki batean informazio-mota berarentzat dagoen laukia ezabatu beharko duzu.



- Ezabatu nahi dituzun elementu guztien egiaztatze-laukia desautatu.
- Ordenagailu baten sinkronizazioa pertsonalizatzeko, hautatu ordenagailuaren izena eta sakatu **Menú > Configuración**.
- Informazio zehatz baten sinkronizazioa pertsonalizatzeko, hautatu informazio-mota eta egin klik **Configuración** atalean.
- Ordenagailu batekin egindako sinkronizazioa guztiz eteteko, hautatu ordenagailuaren izena eta sakatu **Menú > Eliminar**.

Oharra Outlook-eko posta elektronikoaren ordenagailuarekin bakarrik sinkronizatuko da.

Outlook-eko informazioa Exchange Server-ekin sinkronizatzea

Exchange Server-ekiko sinkronizazioa zure telefonoan konfiguratzeko, erabilgarri izan behar duzu zure gailuan, haririk gabeko zerbitzuen hornitzailearen edo konpainiaren bidez. Hala ere, informazio hau administratzaileari eskatu behar diozu edo ordenagailuan bilatu behar duzu, eta, gero, urrats hauek eman: Exchange Server-en izena, domeinuaren izena, erabiltzaile-izena eta pasahitza. (Exchange Server-en izena eta domeinua PCan egiaztatzeko, ikus “ActiveSync ordenagailuan instalatzeko eta konfiguratzeko”.)

Oharra Zure telefonoan sinkronizazioaren konfigurazioa aldatu baino lehen, deskonektatu PCtik.

Exchange Server-ekin zuzenean sinkronizatzeke

1. Hauta ezazu aukera hauetako bat:
 - Sakatu **Inicio > Mensajería > Nueva cuenta**. Configuración de correo electrónico pantailan, hautatu Outlook-eko posta elektronikoa **Lista de proveedor de correo electrónico** atalean, eta sakatu **Siguiente**.
 - Telefonoko ActiveSync-en, sakatu **Menú > Configurar Servidor**. Exchange Server-ekiko konfigurazioa oraindik konfiguratu ez baduzu, hau agertuko da: **Agregar origen de servidor**.
2. Editar config. servidor pantailan, idatzi Exchange Server exekutatzen duen zerbitzariaren izena **Dirección del servidor** laukian, eta sakatu **Siguiente**.
3. Información del usuario pantailan, idatzi erabiltzaile-izena, pasahitza eta domeinuaren izena.
4. Telefonoak pasahitza gordetzea nahi baduzu, konektatzen zaren bakoitzean sartu behar ez izateko, hautatu **Guardar contraseña** egiaztatze-laukia. Gero, sakatu **Siguiente**.
5. Opciones pantailan, Exchange Server-ekin sinkronizatu nahi duzun informazio-motaren egiaztatze-laukiak hautatu.
6. Informazio zehatz baten sinkronizazioa pertsonalizatzeko, hautatu informazio-mota eta egin klik **Menú > Configuración** atalean.

Oharra Konfigurazioa ez dago eskuragarri kontaktuentzat eta zereginentzat.

7. Erregelak aldatu eta sinkronizazio-gatazka ebazteko, sakatu **Menú > Avanzado**, Opciones pantailan.
8. Sakatu **Finalizar**.

Oharra Laguntzailea ere erabil dezakezu sinkronizazio-konfiguraziorako, eta, hala, telefonoa konfigura dezakezu Exchange Server-ekin urrunetik sinkronizatzeko. Laguntzailea telefonoa PCra konektatzean hasten da, PCan ActiveSync instalatu ondoren.

Exchange Server-ekiko sinkronizazioa programatzea

Informazioa telefonoaren eta Exchange Server-en artean automatikoki edo txandaka sinkronizatzeko programatu daiteke. Bi metodo hauen artean hautatu, posta elektronikoko mezuen bolumenaren eta kostu txikiagoaren arabera.

Aldi berean mezu elektronikoak jasotzeko eta bestelako informazioa sinkronizatzeko

Direct Push teknologiari esker (Push E-Mail-ren ezaugarria), mezu elektroniko berriak jaso ditzakezu Exchange Server-ean zure postontzira heldu ahala. Teknologia horrekin, beste zenbait elementu ere (kontaktuak, egutegia eta zereginak, adibidez) berehala eguneratzen dira gailuan, Exchange Server-en sarrera berriak badaude edo aldaketarik izan bada. Direct Push-ek funtziona dezan, zure telefonoan GPRS konexioa konfiguratuta behar da.

Direct Push ezaugarriak funtzionatuko du zure telefonoan, bai sare pribatuak, bai sare korporatiboak, Microsoft Exchange Server Service Pack 2 (SP2) erabiltzen badu Exchange ActiveSync-ekin batera, eta Exchange Server-arekin guztiz sinkronizatu ondoren.

Comm Manager erabiltzea

1. Sakatu **Inicio > Comm Manager**.
2. **Comm Manager pantailan**, sakatu **Microsoft Direct Push** botoia. () botoia ()-en kokatuko da; horrek adierazten du mezu elektronikoak jasoko dituzula heldu ahala. Botoia () egoeran badago, mezu elektronikoak eskuz berreskuratu beharko dira.

ActiveSync erabiltzea

1. ActiveSync-en, zure gailuan, sakatu **Menú > Programación**.
2. Hautatu **Al recibir nuevos elementos** lauki hauetan: **Horas pico** eta **Horas de mínima actividad**.



Oharra Bi konexioak (GPRS eta Wi-Fi) aldi berean konektatzen direnean, Direct Push aukerak GPRSa hautatuko du. Horregatik, sare-operadorearekin kontratatuta duzun zerbitzu-planaren arabera ordainduko du.

Sinkronizazioa maiztasun jakin baterako programatzea

Sinkronizazioaren maiztasuna zehaztu dezakezu, mezu elektronikoen bolumena altua denean: **Horas pico** deritzenetan (lan-orduekin bat egiten dute, oro har) eta bolumena baxua denean: **Horas de mínima actividad**.

1. ActiveSync-en, zure gailuan, sakatu **Menú > Programación**.
2. Programación pantailan, hautatu **Horas pico** laukiko denbora-tarterik txikiena, mezu elektronikoen maiztasun handiagoz jasotzeko.
3. Hautatu denbora-tarte handiagoa **Horas de mínima actividad** laukian.

Irudokizuna Jarduera handieneko eta txikieneko egunak eta orduak ezartzeko, egin klik **Menú > Horas pico** atalean, Programación pantailan.

3.4 Bluetooth bidez sinkronizatzea

Zure telefonoa PCra konekta dezakezu biak Bluetooth haririk gabeko teknologia erabiliz sinkronizatzeko.

PC bat Bluetooth bidez sinkronizatzeko

1. PCan ActiveSync-en laguntzan emandako jarraibideak irakurri, Bluetooth-a PCan konfiguratzeko eta ActiveSync-rekin bateragarria izateko.
2. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > ActiveSync** aukeran.
3. Sakatu **Menú > Conectar vía Bluetooth**. Egiartzatu telefonoa eta PCa gertu daudela bata bestearengandik.
4. PC honetara Bluetooth bidez lehenengo aldiz konektatzean, lehendabizi telefonoko Bluetooth laguntzailea amaitu eta konfiguratu Bluetooth lotura bat PCarekin, sinkronizatzen hasi aurretik.
5. Sakatu **Sinc**.
6. Amaitzean, sakatu **Menú > Desconectar Bluetooth**.

Oharrak

- Bateriaren energia aurrezteko, itzali Bluetooth-a erabiltzen ari ez bazara.
- Bluetooth bidez, telefonoa ordenagailu bati konektatzeko eta sinkronizatzeko, zure ordenagailuak Bluetooth moldagailua edo babesgailua izan behar du.

3.5 Musika, bideoa eta irudiak sinkronizatzea

Musika eta bestelako euskarri digitalak eraman nahi badituzu, ActiveSync-ek Windows Media Playerrekin lan egiten du, musika-, bideo- eta irudi-fitxategiak zure telefonoarekin sinkronizatzeko.

Sinkronizatu nahi dituzun euskarriei buruzko informazio-mota hautatzea izan ezik, ActiveSync-en euskarrien sinkronizazio-konfigurazio guztiak Windows Media Player-en ezarri behar dira. Euskarriak sinkronizatzeko gaitasuna izan aurretik, hau egin:

- Instalatu Windows-en erreproduzitzailearen 10. bertsioa, edo berriago bat, PCan.

- Konektatu telefonoa PCra, USB kablearen laguntzaz. Telefonoa Bluetooth bidez konektatuta badago, amaitu konexio hori euskarriak sinkronizatzeari ekin aurretik.
- Sartu 32 MB edo gehiago dituen biltegitratze-txartela telefonon.
- Konfiguratu sinkronizazio-elkarte bat biltegitratze-txartelaren eta Windows Media Player-en artean.

Baliabideak sinkronizatze konfigurazioa aldatzea

ActiveSync-en sinkronizatu nahi duzun euskarrien informazio-mota hautatu ondoren, Windows Media Player-en erreproduktzio-zerrendetan dauden musika-, bideo- edo irudi-fitxategi gogokoak ActiveSync bidez sinkronizatu daitezke. Egin behar duzun gauza bakarra da Windows Media Player-a multimedia-fitxategi horiekin sinkronizatzea.

Biltegitratze-txartel batekiko sinkronizazio-harremana konfiguratzeko

1. Ireki PCko Windows Media Player.
2. Egin klik **Sinc.** Fitxan.
3. Hautatu biltegitratze-txartela.
4. Sakatu **Configurar sinc.**
5. Hautatu automatikoki edo eskuz sinkronizatzea nahi duzun.



Windows Media Player telefonon erabiltzeko moduari buruz informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu 7. kapituluko “Windows Media Player” erabiltzea atala.

3.6 Posta elektronikoaren segurtasuna konfiguratzeko

Windows Mobile-k, zure gailuan, Outlook-eko mezuak babesten ditu Secure/Multipurpose Internet Mail Extension (S/MIME) erabiliz, eta, hala zure mezuak digitalki sinatu eta zifratu ditzakezu.


Baimentzeko gakoak erabiliz, S/MIME-rekin sinadura digitala erabil dezakezu zure mezu elektronikoetan, hartzaileek zure nortasuna egiaztatzea ahal izan dezaten. Mezuen pribatutasuna areagotzeko edo baimenik gabe aldatzea eragotzeko, mezuak zifratu ditzakezu baimentze-gakoak erabiliz. Ziurtagiri batekin edo gabe zifratu ditzakezu mezuak. Dena den, zifratutako mezu bat irakurri ahal izateko, ziurtagiri egokia beharko duzu deszifratzeko.

Oharra S/MIME zifratzea eta Windows Mobile sisteman oinarritutako gailuetarako sinadura digitalak erabiltzeko, Exchange Server 2003 Service Pack 2 edo S/MIME onartzen duen bertsio berriago bat behar da ezinbestean. Horrelakorik erabiltzen ez baduzu edo oraindik sinkronizatu ez baduzu, aukera horiek ezingo dituzu erabili.

Mezuak digitalki sinatzea eta zifratzea

ActiveSync-en bidez, S/MIME zifratzea eta sinadura konfiguratu ditzakezu posta elektronikoan. Posta elektronikoko mezuak ongi sinatzeko edo zifratzeko, horretarako balio duen baliozko ziurtagiria lortu beharko duzu.

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > ActiveSync** aukeran.
2. Egin klik **Menú > Opciones** aukeran.
3. Hautatu **Posta elektronikoaren** informazio-mota eta sakatu **Configuración**. Sinc. correo electrónico pantailan, sakatu **Menú > Avanzado**.



4. Hauetako bat edo biak egin:

- Irteten diren mezu elektroniko guztiak sinatzeko (hartzaileak zuk bidalitakoak direla ziur egoteko) eta eraldatu ez direla ziurtatzeko, hautatu **Firmar mensajes**.
- Mezu guztiak zifratzeko (hartzaileak bakarrik irakurri ahal izateko), hautatu **Cifrar mensajes**.

5. Sakatu **Menú > Seleccionar certificado** irteten diren mezu elektronikoak sinatu eta zifratuko dituen ziurtagiria hautatzeko.

Mezu elektronikoak sinatzeko edo zifratzeko ziurtagiriak banan-banan hauta ditzakezu, mezu guztiak sinatzea edo zifratzea hautatzen ez baduzu. Mezuak banan-banan nola sinatzen eta zifratzen diren jakiteko, kontsultatu 6. kapituluko "Norberak bere mezuak sinatzea eta enkriptatzea" atala.

4. kapitulua

Telefonoa administratzea

4.1 Telefonoa pertsonalizatzea

4.2 Programak gehitu edo kentzea

4.3 Zereginen kudeatzailea erabiltzea eta memoria administratzea

4.4 Fitxategien segurtasun-kopia administratzea eta egitea

4.5 Telefonoa babestea

4.6 Telefonoa berrabiaraztea

4.7 Telefonoa berrezartzea



4.1 Telefonoa pertsonalizatzea

Pantaila nagusia konfiguratzea:

Pantaila nagusia da zeregin gehien erabiltzen den abiapuntua. Telefonoaren ezaugarri eta programa guztietara sar zaitezke pantaila nagusitik.

Pantaila nagusiaren goiko aldean bistaratzen dira azkenaldian erabilitako programen ikonoak. Pantaila nagusiren erdialdean agertzen dira hurrengo hitzordua, jasotako mezu berrien kopurua (ahots-mezuak, mezu elektronikoak edo MMS mezuak) eta beste zenbait datu garrantzitsu. Pantaila nagusiko ikono edo elementu batean klik egiten dugunean, hari dagokion programa irekitzen da.

Pantaila nagusia pertsonalizatzeko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Configuración > Pantalla principal** aukeran.
2. **Diseño de pantalla principal, Combinación de colores, Foto de fondo** eta **Tiempo de espera** hautatu, aukeratu nahi dituzunak, eta sakatu **Listo**.

Irudi bat atzeko irudi gisa ezartzeko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Imágenes y vídeos** aukeran.
2. Hautatu bigarren planoko gisa definitu nahi duzun irudia. Egin klik **Ver** aukeran edo sakatu **ENTRAR** irudiaren ikuspegi handiagoa izateko.
3. Egin klik **Menú > Usar como pantalla Princ.** aukeran.
4. Erabili **NAVEGACIÓN**, nahi duzun irudi-zatia hautatzeko, eta egin klik **Siguiente** aukeran. Irudia pantailan ondo sartzen bada, ez dago urrats hori eman beharrik.
5. **usar de transparencia** aukeran, hautatu portzentaje altu bat irudi gardena izateko, edo portzentaje baxu bat irudi opakoa izateko.
6. Sakatu **Finalizar**.

Data, ordua, hizkuntza eta eskualdeko beste aukera batzuk ezartzea

Zure eskualdeari dagokion eskualde-konfigurazioa izan behar luke zure telefonoak.

Eskualdeko konfigurazioa aldatzeko

Hizkuntza, eskualdea, data eta ordu-mota ezar ditzakezu, baita zenbakiak eta monetak formateatzeko aukerak ere.

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Configuración > Configuración regional** aukeran.
2. **Idioma** aukeran, hautatu gogoko hizkuntza.
3. **Configuración regional** aukeran, hautatu eskualdea hizkuntza horrentzat. Configuración regional aukerak automatikoki aldatzen du gainerako aukeren formatua (data, ordua edo moneta) adierazitako eskualde-konfigurazioaren arabera.
4. Egin klik **Listo** aukeran.

Oharra Itzali eta piztu berriz telefonoa, aldaketak gauzatzeko.

Data eta ordua konfiguratzeko

1. Pantaila nagusian, egin klik hauetan: **Inicio > Configuración > Reloj y alarma > Fecha y hora**.
2. **Zona horaria** aukeran, hautatu zure ordu-eremua.
3. **Fecha** aukeran, editatu hila, eguna eta urtea.
4. **Hora** aukeran, editatu ordua, minutua eta segundoa.
5. Egin klik **Listo** aukeran.

Gertaera eta ekintzen bidez jakinarazteko modua hautatzea

Sarrerako deien, gertaeren (jasotako mezu elektronikoen jakinarazpena), alarmen edo sistemaren gertakarien berri telefonoak nola emango duen zehazten duen konfigurazio-multzoa da profila. Konfigurazio horien konbinazio bat baino gehiago dauzka telefonoak aurrez zehaztuta. Profil bakoitza izen deskribatzaile batekin agertzen da.

Uneko profila aldatzeko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Perfiles [Tipo]** aukeran. Adibidea: **Perfil normal**.
2. Hautatu profil berri bat, eta sakatu **Listo**.

Iradokizuna Profila azkar aldatzeko, sakatu ENERGÍA botoia bizkor; zerrenda bizkorra bistaratuko da, eta profil bat hautatu ahal izango duzu.

Profil bat editatzeko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Perfiles [Tipo]** aukeran. Adibidea: **Perfil normal**.
2. Hautatu editatu nahi duzun profila.
3. Egin klik **Menú > Editar** aukeran.
4. Hauta ezazu aukera hauetako bat:
 - Aldatu konfigurazioa eta sakatu **Listo**.
 - Aldaketak gorde gabe bertan behera uzteko, sakatu **Cancelar**.

Iradokizuna Aurrez zehaztutako profil-konfiguraziora itzultzeko, egin klik **Menú > Restablecer predet.** aukeran.

Gertaera batentzako soinua zehazteko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Configuración > Sonidos** aukeran.
2. Hautatu soinu bat nahi duzun gertaerarentzat. Hautatu **Ninguno**, soinurik entzun nahi ez baduzu.
3. Egin klik **Listo** aukeran.

Oharra Txirrin-tonuetarako soinuak formatu hauetan erabil ditzakezu: .wav, .mid, .wma edo .mp3. Jakinarazpen eta oharretarako, .wav edo .mid. fitxategiak erabil ditzakezu.

Iradokizuna Soinu bat hautatzen duzunean, erreproduzitu egingo da. Berriz entzuteko, hautatu **Menú > Reproducir**.

Teklatuaren soinua konfiguratzeko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Configuración > Sonidos** aukeran.

2. **Teclado numérico** aukeran, hautatu soinu bat. Hautatu **Ninguno**, tekla bat sakatzen duzun bitartean soinurik entzun nahi ez baduzu.
3. Egin klik **Listo** aukeran.

Soinu bat zure telefonora kopiatzeko

Soinu-fitxategi bat telefonoan kokatu eta gero, txirrin-, jakinarazpen- edo ohar-tonu gisa erabil dezakezu. Formatu hauetako soinu-fitxategiak erabil ditzakezu: .wav, .mid, .wma edo .mp3.

1. Konektatu telefonoa PCra USB bidezko konexioa erabiliz.
2. PCan, kopiatu nahi duzun soinu-fitxategia.
3. PCko ActiveSync-en, egin klik **Explorar** aukeran, eta egin bi klik **Mi dispositivo basado en Windows Mobile** aukeran.
4. Hauta ezazu aukera hauetako bat:
 - Soinu-fitxategia telefonoan gordetzeko, egin bi klik **Application Data** eta **Sonidos** aukeretan, eta gehitu fitxategia karpeta horretan.
 - Soinu-fitxategia biltegitratze-txartelean gordetzeko, egin bi klik **Tarjeta de almacenamiento** aukeran eta gehitu fitxategia nahi duzun karpetan.

Alarma bat konfiguratzeko

1. Pantaila nagusian, egin klik hauetan: **Inicio > Configuración > Reloj y alarma > Alarma**.
2. **Alarma** aukeran, hautatu hauetako bat:
 - **Desactivar**, alarma desaktibatzeke.
 - **Activado**, alarma aktibatzeke.
3. **Hora de la alarma** aukeran, sartu alarma desaktibatzeke ordua.
4. Egin klik **Listo** aukeran.

Informazio pertsonala konfiguratzea

Jabeari buruzko informazioa idaztea eta bistaratzea da modurik onena; hala, galduz gero, aurkitzen duenak badaki nori itzuli.

Jabeari buruzko informazioa sartzeko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Configuración > Información del propietario** aukeran.
2. Bete hau:
 - **Nombre:** zure izena.
 - **Número de teléfono:** zurekin harremanetan jartzeko kontaktu-zenbakia.
 - **Dirección de correo electrónico:** zure helbide elektronikoa.
 - **Notas:** gainerako datu garrantzitsuak.
3. Egin klik **Listo** aukeran.

Errendimenduaren eta mantentze-lanen aukerak ezartzea

Irisgarritasun-konfigurazioa aldatzeko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Configuración > Accesibilidad** aukeran.
2. Hautatu gustuko duzuna aukera hauetan:
 - **Tamaño de fuente del sistema** aukeran, zehaztu pantailako letraren tamaina.
 - **Esperar al entrar texto** aukeran, adierazi multipunteo moduan sakaldien artean zenbateko tarte izango den.
 - **Esperar confirmación** aukeran, ezarri berretsi gabeko ekintza bat amaitu aurretik zenbat denbora itxaron behar den.
 - **Alerta llamada entrante** aukeran, adierazi sarrerako deien bolumena edo hizketan ari zarela jasotzen dituzun mezuen alerten bolumena.
3. Egin klik **Listo** aukeran.

Energia-administrazioaren konfigurazioa aldatzeko

Bateriaren egoera ikusteko eta gehiago irauin dezan konfiguratzeko erabil dezakezu Administración de energía.

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Configuración > Administración de energía** aukeran.
2. Doitu hau:
 - **Tiempo de iluminación (batería)** aukeran, hautatu telefonoak zenbat denbora itxarongo duen atzeko argia itzaltzeko.
 - **Tiempo de iluminación (CA)** aukeran, hautatu korronte alternoa erabiltzen denean telefonoa zenbat denboran egongo den inaktibo atzeko argia itzali arte.
 - **Apagar pantalla tras** aukeran, hautatu telefonoa inaktibo gehienez zenbat denboran egongo den pantaila itzali aurretik.
3. Egin klik **Listo** aukeran.

Iradokizuna Bateria nagusiak adierazten du bateriari zenbat denbora geratzen zaion agortzeko.

Sistema eragilearen bertsio-zenbakia aurkitzeko

- Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Configuración > Acerca de** aukeran. Telefonoan instalatutako sistema eragilearen bertsioa eta fabrikatzailearen copyright-aren informazioa agertzen dira pantailan.

Telefonoaren espezifikazioa aurkitzeko

- Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Configuración > Información del sistema** aukeran. Telefonoaren espezifikazioari buruzko xehetasunak agertzen dira sistemaren informazio-pantailan: prozesadorea, abiadura, memoria, modeloaren izena eta abar.

Akatsen txostena aktibatzeko eta desaktibatzeko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Configuración > Informe de errores** aukeran.
2. Hauta ezazu aukera hauetako bat:
 - Hautatu **Habilitar** akatsen txostena aktibatzeko.
 - Hautatu **Deshabilitar** akatsen txostena desaktibatzeko.
3. Egin klik **Listo** aukeran.

4.2 Programak gehitu edo kentzea

Telefonorako programa gehigarriak erosi baino lehen, idatzi telefonoaren izena, erabiltzen duzun Windows Mobile programaren bertsioa eta prozesadore-mota. Informazio horren bidez, telefonoarekin bateragarriak diren programak aukeratu ahal izango dituzu. Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus “Sistema eragilearen bertsio-zenbakia aurkitzeko”, kapitulu honetan.

Salgai dauden programek, normalean, konfiguratzeko programa izaten dute (“setup.exe” esaten zaio). Programa hori PCan instalatu behar da lehendabizi. Hori egitean, ActiveSync erabil daiteke eta telefonora programak gehi daitezke (adibidez, zuzenean Internetetik).

Programak gehitzeko

1. Deskargatu programa PCan (edo sartu programa duen CDa edo diskoa PCan). Gailu- eta prozesadore-motaren arabera, gerta daiteke *.exe edo *.zip fitxategi bat, Setup.exe fitxategi bat edo fitxategien hainbat bertsio ikustea. Ziurtatu zure telefono- eta prozesadore-motarako programa egokia aukeratu duzula.
2. Irakurri instalatzeko jarraibideak edo programarekin banatutako beste edozein dokumentazio. Programa askok instalatzeko jarraibide bereziak izaten dituzte.
3. Konektatu telefonoa eta PCa.
4. Egin bi klik *.exe fitxategian.
 - Fitxategi exekutagarria instalatzeko morroi batean badago, jarraitu pantailan agertzen diren jarraibideak. Behin PCan instalatuta, programa automatikoki transferitzen du telefonoaren laguntzaileak.
 - Fitxategia morroia ez bada, errore-mezu bat agertuko da; programa baliozkoa dela, baina beste ordenagailu-mota baterako diseinatuta dagoela adieraziko du. Kopiatu programa telefonoan. Programa instalatzeko jarraibiderik aurkitzen ez baduzu, erabili ActiveSync fitxategia telefonoko programa-fitxategien karpetera kopiatzeko.

Programa bat kentzeko

Ezin dira kendu telefonoarekin batera datozen programak.

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio** > **Configuración** > **Quitar programas** aukeran.
2. Joan kendu behar duzun programara.
3. Egin klik **Menú** > **Quitar** aukeran.

4.3 Zereginen kudeatzailea erabiltzea eta memoria administratzea

Memoria erabilgarria ikusteko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio** > **Configuración** > **Acerca de** aukeran.
2. Zoaz behearantz **Memoria disponible** aukeraraino.

Zereginen kudeatzailea erabiltzea

Zereginen kudeatzailearen bidez, telefonoan une honetan martxan dauden programen zerrenda ikus dezakezu. Zereginen kudeatzailetik, martxan dauden programetara joan, haiek aktibatu edo amaitu ditzakezu. Gainera, telefonoaren memoriaren egoera ikus dezakezu.

Zereginen kudeatzailea abiarazteko

- Egin klik **Inicio** > **Experto** > **Gestor tareas** aukeran.



Zeregin-kudeatzailea

Zeregin-kudeatzailearen mangan, aukera hauek daude:

Aukera	Egitekoa
Ir a	Hautatutako programa aldatzen du.
Actualizar	Zeregin-kudeatzailearen pantaila eguneratzen du, une horretan martxan dauden programen zerrrenda bistaratzeko.
Detener	Hautatutako programa geldiarazten du. Pantailaren behealdean ikus dezakezu zenbat memoria dagoen libre.
Detener todo	Zerrendako programa guztiak geldiarazten ditu. Sakatu Aceptar, martxan dauden programa guztiak amaitzeko. Pantailaren behealdean ikus dezakezu memoria zer egoeratan dagoen.
Detener todo excepto lo seleccionado	Martxan dauden programa guztiak geldiarazten ditu, hautatutakoa salbu.
Información de sistema	Energiaren egoerari, erabilitako memoriari, flash-ari eta telefonoari buruzko informazioa bistaratzeko.
Acerca de	Programaren izenari, bertsioari eta copyrightari buruzko informazioa erakusten du.

4.4 Fitxategien segurtasun-kopia administratzea eta egitea

ActiveSync erabiliz, PCko fitxategien segurtasun-kopiak egin daitezke, edo gailuan instalatzen den memoria-txartel batean kopia daitezke fitxategiak. Telefonoan instalatutako fitxategien arak. erabiliz ere administra ditzakezu fitxategiak eta karpetak eraginkortasunez.

ActiveSync-en bidez, informazioa PCtik telefonora eta alderantziz kopia edo mugi daiteke. Ordenagailu baten informazioan egindako aldaketek ez dute eraginik beste ordenagailu baten informazioan. Infomazioa telefonoan eta PCan automatikoki eguneratzea nahi baduzu, sinkroniza ezazu. Fitxategiak kopiatzeari eta sinkronizatzeari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, begiratu ActiveSync-en Laguntza atala PCan.

ActiveSync-en bidez fitxategiak kopiauzeko

Telefonoko eta PCko bertsio ezberdinetako fitxategiak kopia daitezke.

Fitxategi batean egindako aldaketek ez dute eraginik besteetan, fitxategiak ez baitaude sinkronizatuta.

1. Konektatu telefonia PCra.
2. ActiveSync-en, egin klik atalean (telefonoaren Gailu mugikorra karpeta irekitzen du).
3. Gailu mugikorra karpetan, joan telefonoan edo PCan kopiatu nahi duzun fitxategira.
4. Hauta ezazu aukera hauetako bat:
 - Fitxategia telefonoan kopiatzeko, egin klik saguaren bigarren botoiarekin fitxategiaren gainean, eta ondoren, sakatu . Saguaren bigarren botoiarekin, egin klik nahi duzun telefonoko karpetan, eta, ondoren, egin klik aukeran.
 - Fitxategia PCan kopiatzeko, egin klik saguaren bigarren botoiarekin fitxategiaren gainean, eta ondoren, sakatu . Saguaren bigarren botoiarekin, egin klik nahi duzun PC karpetan, eta, ondoren, egin klik aukeran.

Fitxategien arak. erabiltzea

Fitxategien arakatazailerak hainbat ezaugarri erabilerraz ditu fitxategiak eta karpetak administratzeko.

Fitxategien arak. abiarazteko


- Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Expl. de archivos** aukeran.

Bi ikuspegi hauetan funtzionatzen du fitxategien arakatazailerak:

- Zerrenda-ikuspegia
- Ikono-ikuspegia

Telefonoaren memoriako fitxategi guztien egitura bistaritzen du fitxategien arakatzailak. Funtzioetan, nabarmentzeko da karpeten administrazioa. Lehenengo aldiz martxan jartzean, fitxategien arak. zerrenda-ikuspegiari egongo da, aurrez zehaztutako aukera hori baita. Ikuspegia aldatzeko, sakatu

Menú > Ver > Iconos edo **Lista**.



Fitxategien arak. – zerrenda-ikuspegia

Fitxategien arakatzailan, aukera hauek daude:

Aukera	Zertarako
Enviar	Hautatutako fitxategi bat mezularitza-ezaugarri baten bidez bidaltzeko
Transferir	Hautatutako fitxategia Bluetooth bidez bidaltzeko
Editar	Menu bat irekitzen du; fitxategi bat moztu, kopia, erantsi, ezabatu edo beste era batera izendatzeko aukera duzu menu horretan. Karpeta berri bat sortu ere egin dezakezu.
Propiedades	Hautatutako karpeta edo fitxategiaren informazioa bistaritzen du.
Ver	Iconos edo Lista ikuspegiak aldatzeko aukera ematen duen menua irekitzen du.
Ordenar por	Fitxategiak edo karpetak ezaugarri hauen arabera ordenatzeko menua irekitzen du: Nombre, Fecha, Tamaño edo Tipo.
Mi dispositivo	Telefonoaren erro-karpeta bistaritzen ditu karpetak eta fitxategiak
My Documents	My Documents karpeta bistaritzen ditu karpetak eta fitxategiak

Fitxategi bat mezu elektronikoki bati atxikita bidaltzeko

1. Fitxategien arakatzailan, hautatu fitxategi bat.
2. Egin klik Menú > Enviar aukeran.

3. Mensajería pantailan, hautatu **Correo electrónico de Outlook** edo posta elektronikoko kontu pertsonalizatu bat.
4. Mezu berriari automatikoki erantsiko zaio fitxategia. Adierazi hartzailea eta gaia, eta idatzi mezua.
5. Sakatu **Enviar**.

4.5 Telefonia babestea

Hainbat segurtasun-maila daude telefonoan.. Telefonia babestu dezakezu, baimenik gabe ez erabiltzeko; PIN (Personal Identification Number) izeneko pasahitza erabil dezakezu horretarako. Haririk gabeko zerbitzuak eskaintzen dizkizun hornitzaileak emango dizu lehen PINa. Gainera teklatua edo telefono osoa ere blokea ditzakezu, baimenik gabe sartzea saihesteko.

SIMeko identifikazio pertsonaleko zenbakia (PINa) aktibatze

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Configuración > Seguridad** aukeran.
2. Sakatu **Habilitar PIN de SIM**.
3. Sartu PINa eta sakatu **Listo**.

Oharra: SIMaren PINa aktibatu gabe bertan behar uzteko, sakatu INICIO.

SIMaren PINa desaktibatze

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Configuración > Seguridad** aukeran.
2. Sakatu **Deshabilitar PIN de SIM**.
3. Sartu PINa eta sakatu **Listo**.

SIMaren PINa aldatze

Idatzi nonbait zure identifikazio pertsonaleko zenbakia (PINa). SIMaren PINa aktibatuta dagoenean, sartu egin behar duzu telefonia desblokeatzeko.

1. Sakatu **Inicio > Configuración > Seguridad**.
2. Sakatu **Cambiar PIN de SIM**.
3. **PIN anterior** aukeran, sartu uneko PINa.
4. Sartu eta berretsi PIN berria, eta sakatu **Listo**.

Teklatua blokeatzeko

Teklatua blokeatzean, funtzionamendua desaktibatzen da. Hori oso erabilgarria da, adibidez, telefonoa poltsikoan piztuta duzula ustekabean teklak saka ez daitezen.

- Pantaila nagusian, luze sakatu Finalizar. Teklatua blokeatutakoan, ezkerreko software-teklaren etiketa aldatu egiten da: **Desbloquear**.

Iradokizuna Teklatua azkar blokeatzeko, sakatu ENERGÍA botoia, lista azkarra bistaratzeko, eta hautatu **Bloquear teclado**.

Oharra Teklatua blokeatuta dagoela, deiak jaso daitezke, baita larrialdiko deiak egin ere.

Teklatua desblokeatzeko

- Pantaila nagusian, sakatu **Desbloquear** eta * tekla.

Telefonoaren blokeoa aktibatzeko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Configuración > Seguridad > Bloquear dispositivo** aukeran.
2. Hautatu **Solicitar contr. si disp. lleva inactivo**, eta, ondoren, aukeratu blokeo automatikoa gertatu aurretik zenbat denbora igaroko den.
3. Hautatu **Tipo**, eta, gero, sartu eta berretsi pasahitza.
4. Egin klik **Listo** aukeran.

Oharrak

- Sakatu labur ENERGÍA, lista azkarra bistaratzeko, eta, gero, hautatu **Bloquear dispositivo**, telefonoa blokeatzeko konfigurazioa ezartzeko.
- Telefonoa blokeatzeko konfigurazioa ezarritakoan, zerrenda azkarretik zuzenean aktiba dezakezu blokeoa, berriz konfiguratu beharrik gabe.

Telefonoaren blokeoa desaktibatzeko

- Sakatu **Desbloquear**, eta idatzi telefonoa desaktibatzeko ezarritako pasahitza.

4.6 Telefonoa berrabiaraztea

Baliteke noizean behin telefonoa berrabiarazi nahi izatea, adibidez, programa bat behar bezala ez badabil edo telefonoak aginduei erantzuten ez badie.

Telefonoa berrabiarazteko

1. Kendu bateria.
2. Sartu bateria berriz eta aktibatu telefonoa.

OHARRA! Programa bat exekutatzen ari den bitartean berrabiarazten badugu, gorde gabeko lana galdu egiten da.

4.7 Telefonoa berrezartzea

Telefonoa berrezartzean ezabatu egiten dira memoriako datu guztiak –kontaktuak, zereginak, egutegiko hitzorduak eta abar–, eta fabrikatik ekarritako konfigurazioa hartzen du telefonoak berriz.

OHARRA! Datu guztiak galtzea saihesteko, komeni da telefonoaren segurtasun-kopia bat egitea telefonoa berrezarri baino lehen.

Telefonoa berrezartzeko

1. Egin klik **Inicio** > **Experto** > **Borrar memoria** aukeran.
2. Bete pantailako jarraibideak, telefonoa berrezartzeko.

Telefonoa berrabiarazi egingo da berrezartzean.

5. kapitulua

Konektatzea

5.1 Internetera konektatzea

5.2 Internet Explorer Mobile erabiltzea

5.3 Konexio partekatua erabiltzea

5.4 Comm Manager erabiltzea

5.5 Bluetooth-a erabiltzea

5.6 WiFi konexioa erabiltzea



5.1 Internetera konektatzea

Telefono honek sare-ahalmen handia du, eta, horri esker, Internetera edo zure lantokiko sare korporatibora sar zaitezke haririk gabeko konexioen eta ohiko konexioen bidez. Zehazki, telefono-konexio bat edo GPRS, Bluetooth, WiFi, VPN (Virtual Private Network – Sare Pribatu Birtuala) edo Proxy konexio bat ezartzeko konfiguratu dezakezu telefonoa.

Telefonoan konexio aktibo bat duzunean, web-ean nabiga dezakezu, mezu elektronikoak deskarga ditzakezu edo MSN Messenger-en bidez hitz egin. Egiaztatu, zerbitzu-hornitzailearekin, konexiorik baduen konfiguraturik zuretzat eta over-the-air (airean) konfigurazioa onartzen duen.

Konexio bat eskuz konfiguratu behar baduzu, garrantzitsua da ISParen (Internet Service Provider – Interneteko zerbitzuen hornitzailea) edo sartu nahi duzun intraneta dagokion konpainiaren informazio hau eskuratzea:

- ISP zerbitzariaren telefono-zenbakia
- Erabiltzaile-izena
- Pasahitza
- Sarrerako gunearen izena (GPRS konexiorako beharrezkoa)
- Domeinuaren izena (sare korporatibo batera edo intranet batera sartzeko behar da)

GPRS konexio bat konfiguratzea

GPRS sarea ahotsik gabeko zerbitzu bat da, balio erantsia duena, eta telefono mugikorreko sare baten bidez informazioa bidaltzeko eta jasotzeko aukera ematen du. GPRSa erabil dezakezu zure telefonoarekin Internetera konektatzeko edo MMS mezuak bidaltzeko eta jasotzeko. GPRS konexio bat erabiltzen duzunean, kb (kilobyte) bakoitzeko ordaindu beharko duzu informazioa bidaltzen edo jasotzen duzunean.

Oharra Egiaztatu GPRS zerbitzuetarako tarifa zure zerbitzu-hornitzailearekin.

Zure telefonoak aurrez zehaztutako GPRS konfiguraziorik ez badu, eskuratu **Nombre de punto de acceso** haririk gabeko zerbitzuen hornitzailetik. Gainera, egiaztatu hornitzaile horrekin pasahitzik eta erabiltzaile-izenik behar duzun.

GPRS konexio bat konfiguratzeko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Configuración > Conexiones > GPRS** aukeran.
2. Egin klik **Menú > Agregar** aukeran.
3. **Descripción** aukeran, sartu konexiorako izen bat.
4. **Conecta a** aukeran, hautatu **Internet**.
5. Idatzi haririk gabeko zerbitzuen hornitzailearen **Punto de acceso** GPRS delakoaren izena.
6. Sartu informazio egokia gainerako eremuetan, haririk gabeko zerbitzuen hornitzaileak eskatuta ere.



7. Egin klik **Listo** aukeran.

Interneten nabigatzen hasteko, sakatu **Inicio > Internet Explorer**.

MMSa konfiguratzeko eta MMS mezuak bidaltzeko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus "MMS mezuak erabiltzea", 6. kapituluan.


Telefono-konexio bat konfiguratzea

Telefonoa ISParekin telefono-konexio bat ezartzeko eta Internetera edo sare korporatibora konektatzeko erabiltzen duzunean, konexio-minutuen arabera ordaindu beharko duzu.

Telefonoan telefono-konexio bat ezartzeko, telefonora ordenagailutik sartzen zarenean erabiltzen duzun konfigurazio bera erabili behar duzu. Hor sartzen dira ISP zerbitzariko zure telefono-zenbakia, zure erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Interneten nabigatzeko telefono-konexioa konfiguratzeko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Configuración > Conexiones > Acceso telefónico** aukeran.
2. Egin klik **Menú > Agregar** aukeran.
3. **Descripción** aukeran, sartu konexiorako izen bat.
4. **Conecta a** aukeran, hautatu **Internet**.
5. Sartu informazio egokia gainerako eremuetan.



6. Egin klik **Listo** aukeran. Interneten nabigatzen hasteko, sakatu **Inicio > Internet Explorer**.

Zure sare korporatiborako konexioa konfiguratzeko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Configuración > Conexiones > Acceso telefónico** aukeran.
2. Egin klik **Menú > Agregar** aukeran.
3. **Descripción** aukeran, sartu konexiorako izen bat.
4. **Conecta a** aukeran, hautatu **Trabajar**.
5. Sartu informazio egokia gainerako eremuetan.
6. Egin klik **Listo** aukeran.

Oharra

Konexio hauek gehitu eta konfiguratu ditzakezu, halaber:

- **VPN:** VPN konexioa erabiltzen da sare korporatibora Interneteko konexio baten bidez sartzeko.
- **Proxy:** Proxy konexioa erabiltzen da Internetera sare korporatiboko konexio baten bidez edo WAP konexio baten bidez sartzeko.

Aukera aurreratuenak

Conexiones pantailatik, aukera aurreratuetara sar zaitezke, zerbitzu-hornitzailea, markatzeko aukeren kopurua, deskonektatu aurreko denbora-tarte inaktiboa eta abar zehazteko.

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Configuración > Conexiones** aukeran.
2. Egin klik **Menú > Avanzado** aukeran.
3. Hautatu sareko zerbitzuen hornitzaile bat konexio-mota bakoitzarentzat. **Automático** aukeratu dezakezu, telefonoak zerbitzu-hornitzaile bat lehenetsi dezan konexio bakoitzerako.
4. Egin klik **Menú > Opciones** aukeran.
5. Hautatu informazio egokia gainerako eremuetan.
6. Egin klik **Listo** aukeran.

URLko salbuespen bat gehitzea

Zure konpainiaren intraneteko web orrien URL batzuek puntuak erabiliko dituzte agian; adibidez: intranet.konpainiarenizena.com. Orri horiek Internet Explorer Mobile-n ikusteko, sortu URLko salbuespen bat.

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Configuración > Conexiones** aukeran.
2. Egin klik **Menú > Avanzado** aukeran.
3. Sakatu **Menú > Excepciones de URL del trabajo**.
4. Egin klik **Menú > Agregar** aukeran.
5. **Patrón URL** jartzen duen tokia, idatzi URL helbidearen izena. Zenbait URL helbide gehitzeko, erabili puntu eta koma (;).
6. Egin klik **Listo** aukeran.

Oharra Ez da beharrezkoa URL salbuespenak sortzea intraneteko URL helbideetarako.

5.2 Internet Explorer Mobile erabiltzea

Telefonoan erabiltzeko Interneteko nabigatzaile osoa eta optimizatuia da Internet Explorer Mobile.

Internet Explorer irekitzeko

- Pantaila nagusian, egin klik **Inicio** > **Internet Explorer** aukeran.

Esteka batera joateko

1. Web orri batean zauden bitartean, mugitu bertikalean edo horizontalean, lotura guztiak ikusteko.
2. Sakatu loturan.

Web orrietan sartzeko.

1. Internet Explorer-en, sakatu **Menú** > **Barra de direcciones**.
2. Idatzi helbidea eta sakatu Ir.

Web orria bistaratzeko aukerak aldatzeko

1. Web orri batean zauden bitartean, sakatu **Menú** > **Ver**.
2. Hautatu hauetako bat:
 - **Una columna.** Pantaila osoa betetzen duen zutabe batean antolatzen du edukia. Horren ondorioz, nekez mugitu beharko duzu horizontalki.
 - **Predeterminado.** Mahai gaineko ordenagailu bateko diseinuaren antzekoa du, baina elementuak txikiagoak dira eta edukia modu berezian antolatzen du horizontalki mugitu beharrik gabe ia dena ikusteko.
 - **Escritorio.** Mahai gaineko ordenagailuek duten diseinuari eta tamainari eusten dio, eta horizontalki eta bertikalki mugitu beharra dago.

Web orrien testu-tamaina aldatzea

- Web orri batean zauden bitartean, sakatu **Menú** > **Zoom** eta hautatu tamaina bat.

Web orrietako irudiak bistaratzeko edo ezkutatzeko

- Web orri batean zauden bitartean, sakatu **Menú** > **Ver** > **Mostrar imágenes**.

Mostrar imágenes aukeratik hurbil dagoen egiaztapen-markak adierazten du irudiak Web orrietan agertuko direla.

Irudi bat pantaila osoko moduan ikusteko

- Web orri batean zauden bitartean, sakatu **Menú > Ver > Pantalla completa**.

Iradokizuna Pantaila osoko modutik ateratzeko, sakatu SOFTWARE-TEKLA bat eta egin klik **Menú > Vista > Pantalla completa** aukeran, aukeraketa bertan behera uzteko.

Gogokoen zerrendan web orri bat gehitzeko

1. Gehitu nahi duzun orrira joateko, sakatu **Menú > Barra de direcciones**, idatzi helbidea eta sakatu **Ir**.
2. Egin klik **Menú > Agregar a favoritos** aukeran.
3. Berretsi eso aldatu web orriaren izena eta helbidea.
4. **Carpeta** aukeran, hautatu karpeta bat gogokoarentzat.
5. Sakatu **Agregar**.

Iradokizuna Telefonoan gogokoak gehitzeko aukera azkar bat da PCarekin sinkronizatzea ActiveSync erabiliz. Informazio gehiago nahi izanez gero, ActiveSync-en Laguntza atala PCan.

Gogoko bat ikusteko

1. Web orri batean zauden bitartean, sakatu **Favoritos**.
2. Hautatu gogoko bat eta sakatu **Ir**.

Gogoko bat karpeta batera eramateko

1. Sakatu **Favoritos**.
2. Hautatu zer gogoko mugitu nahi duzun.
3. Egin klik **Menú > Editar** aukeran.
4. **Carpeta** atalean, zoaz gogokoaren helburu-karpetara.
5. Egin klik **Listo** aukeran.

Historia, cookieak edo aldi baterako fitxategiak ezabatzeko

1. Web orri batean zauden bitartean, sakatu **Menú > Herramientas > Opciones**.
2. Sakatu **Memoria**.
3. Hautatu zer memoria-mota ezabatu nahi duzun.
4. Sakatu **Borrar, Sí eta, gero Listo**.

Lotura bat posta elektronikoz bidaltzeko

1. Zoaz nahi duzun web orrira.
2. Sakatu **Menú > Herramientas > Enviar link vía correo electrónico**.
3. Hautatu **Mensajes de texto** edo **Correo de Outlook**.
4. Mezuaren gorputzean sartutako orriaren helbidearekin, beste mezu bat sortzen da.

5.3 Konexio partekatua erabiltzea

Konexio partekatuarekin, kanpoko modem gisa erabil dezakezu beste gailu batentzat (PDA bat edo ordenagailu eramangarri bat, adibidez).

- Notas**
- Ziurtatu telefonoak SIM txartel bat duela barruan, eta GPRS konexio bat edo modem bidezko telefono-sarbidetarako konfiguratu duzula telefonoan. Zure telefonoa datu-konexio baterako oraindik konfiguratu ez bada, sakatu **Menú > Configuración** de conexión, Conexión compartida pantailan. GPRS konexioak nola konfiguratu jakiteko, ikus "GPRS konexioak konfiguratzeko". Telefono-konexioak nola konfiguratu jakiteko, ikus "Telefono-konexioak konfiguratzeko".
 - USB kable bidezko konexioa erabili nahi baduzu, Microsoft ActiveSync (4.2 bertsioa edo berriagoa) instalatu behar duzu aurretik zure ordenagailuan.
 - Conexión compartida erabili aurretik, desaktibatu ActiveSync zure ordenagailuan. ActiveSync desaktibatzeke, ireki ActiveSync eta egin klik **Archivo > Configuración** de conexión aukeran, eta ezabatu **Permitir conexiones USB**.

Telefonoa modem gisa konfiguratzeko

Telefonoa USB modem gisa konfiguratzeko

1. Telefonoan, egin klik **Inicio > Experto > Conexión compartida** aukeran.
2. **Conexión de PC** zerrendan, hautatu **USB**.
3. **Conexión de red** zerrendan, hautatu zure telefonoak Internetera konektatzeko erabiltzen duen konexioaren izena.
4. Konektatu USB kablea zure telefonoa eta ordenagailua konektatzeko.
5. Sakatu **Conectar**.

Interneteko konexioa amaitzeko

- Conexión compartida pantailan, sakatu **Desconectar**.

Telefonoa Bluetooth modem gisa konfiguratzeko

Zure telefonoa ordenagailu bati konekta diezaiokezu Bluetooth bidez, eta telefonoa ordenagailuarentzako modem gisa erabili.

Zure telefonoa Bluetooth modem gisa nola konfiguratzen den jakiteko, ikus “Telefonoa Bluetooth modem gisa erabiltzea” atala, kapitulu honetan bertan.

5.4 Comm Manager erabiltzea

Telefonoaren funtzioak gaitzeko edo desgaitzeko eta zure datu-komunikazioa erraz administratzeko aukera ematen dizun kommutadore gisa funtzionatzen du Comm Manager-ek.

Comm Manager irekitzeko:

- Sakatu **Inicio > Comm Manager**.

Dagokion botoia sakatu besterik ez duzu egin behar, funtzio bat gaitzeko edo desgaitzeko.



1. Sakatu telefonoa gaitzeko edo desgaitzeko.
2. Sakatu Bluetooth-a gaitzeko edo desgaitzeko. Xehetasun gehiagorako, ikus “Bluetooth-a erabiltzea”. Sakatu **Configuración > Configuración de Bluetooth** telefonon Bluetooth-a konfiguratzeko.
3. Sakatu WiFi gaitzeko edo desgaitzeko. Sakatu **Configuración > Configuración WLAN** telefonoko WiFi konexioa konfiguratzeko. Ikus “WiFi konexioa erabiltzea” informazio gehiago behar baduzu.

4. Sakatu Outlook-eko mezu elektronikoa automatikoki (elementuak jasotzen dituzun neurrian) edo eskuz jaso nahi dituzun zehazteko. Informazio gehiago behar baduzu, ikus "Aldi berean mezu elektronikoa jasotzeko eta bestelako informazioa sinkronizatzeko", 3. kapituluari.
5. Sakatu datu aktiboen zerbitzuak deskonektatzeko (adibidez, GPRSa). Ezin dituzu datu-zerbitzuak berriz konektatu Comm Manager-en.
6. Sakatu telefonoaren txirrina aktibatzeke edo bibrazio/desaktibatuta moduan konfiguratzeko.
7. Sakatu ActiveSync irekitzeko, telefonoa eta ordenagailua sinkronizatu ahal izateko. ActiveSync-en konfigurazioari buruzko informazio gehiago, 3. kapituluari.

5.5 Bluetooth erabiltzea

Distantzia laburretarako hari gabeko komunikazio-teknologia da Bluetooth-a. Konexio fisikorik gabe, 10 metroko distantziatik informazioa jaso eta bidali ahal dute Bluetooth-a duten telefonoak. Beste gela batera ere bidali ahal da informazioa, Bluetooth-seinaleen estaldura-mugen barruan baldin badago.

Bluetooth funtzioa honetarako erabil daiteke:

- Bluetooth gailuen artean informazioa (fitxategiak, hitzorduak, zereginak eta kontaktu-txartelak, besteak beste) transferitzeko.
- Telefonoaren eta ordenagailuaren artean informazioa Bluetooth bidez sinkronizatzeko.
- Erabili Bluetooth entzungailua (edo esku libreko beste Bluetooth gailu bat, adibidez, autorako kita) zure telefonoarekin, eskuak erabili gabe hitz egin ahal izateko. Halaber, musika entzuteko Bluetooth entzungailu estereo bat ere erabil dezakezu.
- Bluetooth zerbitzua erabili. Telefonoa beste gailu edo ordenagailu batera Bluetooth bidez konektatutakoan, gailu honetan erabilgarri dauden zerbitzu guztiak aurkitu eta erabil ditzakezu.
- Telefonoa ordenagailurako Bluetooth modem gisa erabili.

Bluetooth moduak

Telefonoan Bluetooth-a hiru modutara aritzen da:

- 1. Aktivado.** Bluetooth aukera aktibatuta dago. Telefonoak beste Bluetooth gailu batzuk detekta ditzake, baina ez alderantziz.
- 2. Desaktivado.** Bluetooth aukera desaktibatuta dago. Hala, ezin da informazioa Bluetooth bidez bidali edo jaso. Nahi izanez gero, irratia itzali ahal duzu bateriaren karga aurrezteko, edo irratia erabiltzea debekatuta dagoen egoeretan, hegazkinetan edo ospitaleetan, kasu.
- 3. Visible.** Bluetooth aukera aktibatuta dago eta distantzia jakin batera dauden Bluetooth gailu guztiek detekta dezakete.

Oharra Lehenespen gisa Bluetooth-a itzalita dago. Aktibatzen baduzu eta, gero, gailua itzaltzen baduzu, Bluetooth-a ere desaktibatzen da. Telefonoa berriz piztean, Bluetooth-a automatikoki aktibatuko da.

Zure telefonoko Bluetooth-a aktibatzeko edo desaktibatzeko

Bluetooth-a gaitzeko On/Off (piztuta/itzalita) etengailua saka dezakezu, Comm Manager-en. Bestalde, aukera hauek dituzu:

- 1.** Pantaila nagusian, sakatu **Inicio > Configuración > Conexiones > Bluetooth.**
- 2. Bluetooth** aukeran, hautatu **Aktivado.**
- 3.** Egin klik **Listo** aukeran.

Telefonoaren Bluetooth funtzioa desaktibatzeko, **Bluetooth** aukeran, hautatu **Desactivado.**

Telefonoa ikusgai jartzeko

- 1.** Pantaila nagusian, sakatu **Inicio > Configuración > Conexiones > Bluetooth.**
- 2. Bluetooth** aukeran, hautatu **Visible.**
- 3.** Idatzi zure telefonoaren Bluetooth telefono-izena. Izen hori bistaratuko da beste Bluetooth gailuetan, telefonoa bilatzen eta detektatzen duenean.
- 4.** Egin klik **Listo** aukeran.

Oharra **Visible** aukera hautatzean, Bluetooth pantailan, Bluetooth funtzioa aktibatzen da.

Bluetooth elkartzeak

Zure telefonoaren eta beste Bluetooth gailu baten artean informazioa modu seguruan transferitzeko sortzen duzun erlazioari deitzen zaio Bluetooth bidez elkartzea.

Bi gailu elkartzean, pasahitz berbera sartu behar da. Prozesu hori behin baino ez da egiten. Elkartzea sortu eta gero, gailuak elkartzea detekta dezake eta informazioa truka dezake PINa berriro sartu gabe. Egiaztatu bi gailuen arteko distantzia, aktibatuta daudela eta ikusgai daudela.

Bluetooth elkartze bat sortzeko

1. Pantaila nagusian, sakatu **Inicio > Configuración > Conexiones > Bluetooth**.
2. Sakatu **Menú > Dispositivos**.
3. Sakatu **Menú > Nuevo** beste gailu bat bilatzeko.

Telefonoak beste Bluetooth gailuak bilatzen ditu eta zerrenda batean bistaratzen ditu.

4. Hautatu gailua zerrendan.
5. Sakatu **Siguiente**.
6. Sakatu pasahitz bat (1-16 karaktere) konexio seguru bat ezartzeko; gero, sakatu **Siguiente**.
7. Itxaron, elkartutako gailuak elkartzea onartzen duen arte.
 - Telefonoaren eta beste Pocket PC batekin edo Bluetooth duen telefono batekin Bluetooth elkartze bat sortzen ari bazara, hartzaileak zuk ezarritako pasahitz berbera sartu behar du.
 - Zure telefonoaren eta ordenagailuaren arteko Bluetooth elkartzea sortzen ari bazara, mezu bat bistaratuko da ordenagailuaren pantailako beheko eskuineko aldean, eta ordenagailuak elkartzea onartzen duen galdetuko du. Egin klik mezuan eta sartu pasahitza.
8. Telefonoan, mezu bat bistaratuko da, eta jakinaraziko dizu zure telefonoa gailu parekatuarekin konektatu dela. Sakatu **Aceptar**.

9. Gero, parekatutako gailuaren izena agertuko da. Izen berri bat editatu eta idatz dezakezu gailu horrentzat, eta, gero, **Siguiente** sakatu.
10. Hautatu parekatutako gailuetan erabili nahi dituzun zerbitzuen kontrol-laukiak. Egin klik **Listo** aukeran.

Bluetooth elkartzeko bat onartzeko

1. Egiaztatu Bluetooth-a aktibatuta eta ikusgai dagoela.
2. Sakatu **Si** beste gailuarekin elkartzeko eskatzen dizunean.
3. Idatzi pasahitz bat (elkartzea eskatzean gailuan sartu duzun berbera) konexio segurua ezartzeko.
Pasahitzak 1-16 karaktere artean izan ditzake.
4. Sakatu **Siguiente**.
5. Mezu bat bistaratuko da, eta jakinaraziko dizu zure telefonoa gailu parekatuarekin konektatu dela. Sakatu **Aceptar**.
6. Gero, parekatutako gailuaren izena agertuko da. Izen berri bat editatu eta idatz dezakezu gailu horrentzat, eta, gero, **Siguiente** sakatu.
7. Hautatu parekatutako gailuetan erabili nahi dituzun zerbitzuen kontrol-laukiak.
8. Egin klik **Listo** aukeran.

Orain informazioa truka dezakezu beste gailuarekin.

Bluetooth gailu baten izena aldatzea

1. Pantaila nagusian, sakatu **Inicio > Configuración > Conexiones > Bluetooth**.
2. Sakatu **Menú > Dispositivos**.
3. Hautatu detektatutako Bluetooth gailu bat.
4. Egin klik **Menú > Editar** aukeran.
5. Idatzi beste izen bat Bluetooth gailuarentzat eta sakatu **Siguiente**.
6. Egin klik **Listo** aukeran.

Bluetooth elkartzeko bat ezabatzekeo

- 1.** Pantaila nagusian, sakatu **Inicio > Configuración > Conexiones > Bluetooth**.
- 2.** Sakatu **Menú > Dispositivos**.
- 3.** Hautatu Bluetooth gailu bat.
- 4.** Sakatu **Menú > Eliminar**.
- 5.** Egin klik **Listo** aukeran.

Bluetooth entzungailu esku librekoak edo estereokoak konektatzea

Eskuak libre izanik telefonoz hitz egiteko, esku libreko Bluetooth entzungailu bat erabil dezakezu telefonoarekin, adibidez, autorako kita.

Telefonoa bateragarria da A2DP profilarekin (Advanced Audio Distribution Profile – Audio-banaketa aurreratuko profila) Bluetooth duen audio estereorako. Horrek esan nahi du telefonoarekin batera Bluetooth entzungailu estereofoniko bat erabil dezakezula, esku libreko elkarrizketetarako nahiz musika estereofonikoa entzuteko. Egiaztatu zure entzungailu estereofonikoa A2DP profilarekin bateragarria dela.

Bluetooth gailu batera konektatzean bezala, pasahitz bat sartu behar da Bluetooth entzungailu estereofonikora edo esku librekora konektatzen denean. Pasahitza finkoa da eta ezin da aldatu Bluetooth entzungailu batean. Telefonora konektatu aurretik, egiaztatu pasahitz zuzena egilearen dokumentazioan.

Bluetooth entzungailu esku librekoak edo estereofonikoak konektatzeko

- 1.** Egiaztatu telefonoa eta Bluetooth entzungailua aktibatuta daudela eta distantzia labur batera, eta entzungailua ikusgai dagoela. Ikusi fabrikatzailearen dokumentazioan, entzungailua ikusgai jartzeko jarraibideak.
- 2.** Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Configuración > Conexiones** aukeran.
- 3.** Sakatu **Bluetooth > Menú > Dispositivos**.

4. Sakatu **Menú > Nuevo**. Telefonoak beste Bluetooth gailuak bilatzen ditu eta zerrenda batean bistaritzen ditu.
5. Hautatu entzungailuaren izena, eta gero, sakatu **Siguiente**.
6. **Contraseña** aukeran, sartu Bluetooth entzungailuaren pasahitz alfanumerikoa, eta, gero, sakatu **Siguiente**.
7. Hautatu **Manos libres** zerbitzurako kontrol-laukia eta sakatu **Listo**.



- Oharra** Bluetooth entzungailu estereoa deskonektatuta badago, aktibatu eta egin goiko 1-3 urratsak. Hautatu entzungailua estereoa eta sakatu **Menú > Estéreo inalámbrico**



Bluetooth-aren bidez informazioa transferitzea

Informazioa transferi dezakezu (adibidez, egutegiko elementuak eta zereginak, edo fitxategiak) telefonotik ordenagailura eta bestelako Bluetooth gailuetara.

Oharra Ordenagailuak ez badu Bluetooth-a integratuta, konektatu eta erabili Bluetooth egokigailu bat edo babes-gailu bat ordenagailuan.

Informazioa telefonotik ordenagailura transferitzeko

1. Doitu telefonoko Bluetooth-a ikusgai jartzeko. Horri buruzko informazio gehiago, "Telefonoa ikusgai jartzeko" atalean.
2. Gero, doitu ordenagailuko Bluetooth-a ikusgai jartzeko, sortu Bluetooth elkarte bat eta gaitu ordenagailua Bluetooth bidez transferentziak egiteko.

Ordenagailuak Windows XP SP2 badu eta ordenagailuaren egokigailu integratua edo kanpoko Windows XP SP2rekin bateragarria bada, egin hau:

- a. Ordenagailuan, ireki **dispositivos Bluetooth** kontrol-paneletik eta sakatu **Opciones**.
- b. Hautatu **Activar la detección** eta **Permitir dispositivos Bluetooth conectarse a este ordenador** aukerak.
- c. Sortu Bluetooth elkarte bat telefonoaren eta ordenagailuaren artean. Elkartze bat sortzeari buruzko informazioa lortzeko, ikus "Asociaciones Bluetooth".
- d. Bluetooth gailuen **Opciones** fitxan, hautatu **Mostrar el icono de Bluetooth en el área de notificación**.
- e. Bluetooth bidezko transferentziak jasotzeko ordenagailua gaitzeko, sakatu saguaren bigarren botoiarekin Bluetooth-en ikonoa (ordenagailuaren pantailako eskuineko beheko aldean dago). Gero, menu bat irekitzen da. Sakatu **Recibir un archivo**.

Dena dela, ordenagailuko Bluetooth egokigailua hirugarrenek hornitutako kontrolatzaile batekin instalatu bada, egin urrats hauek:

- a. Ireki Bluetooth egokigailuarekin datorren Bluetooth softwarea. Softwarea fabrikatzailearen arabera aldatzen da, baina, oro har, **“Configuración de Bluetooth”** utilitate bat erabil dezakezu (kontrol-paneletik ireki daiteke).
 - b. Sakatu **Accesibilidad** fitxa, Bluetooth-en konfigurazioaren elkarrizketa-koadroan, eta hautatu **Permitir que otros dispositivos Bluetooth reconozcan este ordenador**.
 - c. Sortu Bluetooth elkartze bat telefonoaren eta ordenagailuaren artean. Elkartze bat sortzeari buruzko informazioa lortzeko, ikus “Asociaciones Bluetooth”.
 - d. Kontsultatu Bluetooth egokigailuaren dokumentazioa, ordenagailua Bluetooth bidez transferentziak jasotzeko moduan aktibatzeke jarraibideak ikusteko.
3. Orain datu-transferentzia hasteko prest dago dena. Telefonoan, hautatu transferitzeko elementu bat. Elementu hori egutegiko hitzordu bat, zeregin bat, kontaktu-txartel bat edo fitxategi bat izan daiteke.
 4. Sakatu **Menú > Transferir [elementu-mota]**.
 5. Sakatu transferentzia egin nahi duzun gailuaren izena.
 6. Sakatu **Transferir**.
 7. Egutegiko elementu bat, zeregin bat edo kontakturen bat transferitu baduzu ordenagailura, eta elementu hori ez bada automatikoki erantsi Outlook-era, sakatu **Archivo > Importar y Exportar** zure ordenagailuko Microsoft Outlook-era inportatzeko.

Bluetooth gailu batera (adibidez, beste telefono batera) informazioa transferitzeko, sortu Bluetooth elkartzeko bat eta, gero, egin goiko prozedurako 3-6 urratsak.

Oharrak

- Telefonoak ez badu detektatzen informazioa zer ordenagailu edo gailuri transferitu nahi diozun, egiaztatu aktibatuta dagoela, ikusgai dagoela eta telefonoaren irismen-eremuaren barnean dagoela.
- Transferitutako elementuak gordetzen diren ordenagailuko karpeta, lehenetsia, hau izan daiteke: C:\Documents and Settings\zure_erabiltzaile izena\Nire dokumentuak.
- Ordenagailuaren Bluetooth egokigailua hirugarrenek hornitutako kontrolagailu bat erabiliz instalatu bada, transferitutako elementuak gordetzen dituen karpeta kokapena **Configuración de Bluetooth** utilitatearen **Intercambio de información** fitxan adieraziko da.

Telefonoa Bluetooth modem gisa erabiltzea

Telefonoa ordenagailu eramangarri edo mahai gaineko bati konekta diezaiokezu Bluetooth bidez, eta telefonoa ordenagailuarentzako modem gisa erabili.

Ordenagailuak zure telefonoaren Interneteko konexioa erabil dezan, aktibatuko konexio partekatua zure telefonoan; gero, konfiguratu zure ordenagailuaren eta telefonoaren arteko sare pertsonala (PAN).

1. Telefonoan, aktibatu Bluetooth eta jarri **Visible** moduan.
2. Abiarazi Bluetooth elkartzeko bat zure telefonotik, "Bluetooth elkarte bat sortzeko" atalean adierazitako urratsei jarraituz.

Aukeran, Bluetooth elkartzeko bat abiaraz dezakezu zure ordenagailutik, jarraibide hauei jarraiki (Windows XP SP2-n oinarrituak):

- a. Kontrol-panelean edo sistemaren ontzian, egin klik bi aldiz **Dispositivos Bluetooth** ikonoan.
- b. Dispositivos Bluetooth leihoan, sakatu **Agregar**.
- c. Bluetooth gailuak gehitzeko laguntzailea bistaratuko da. Hautatu **Mi dispositivo está configurado y listo para ser reconocido** egiaztatze-laukia, eta gero, sakatu **Siguiente**.

- d. Laguntzaileak zure telefonoa detektatzen du, eta zure izena bistaratuko du elkarrizketa-koadroan. Hautatu telefonoaren izena, eta gero, sakatu **Siguiente**.
 - e. Hautatu **Deseo elegir mi propia clave de paso**, eta gero, sartu pasahitz bat (1-16 digitu); pasahitz hori izango da telefonoaren eta ekipoaren artean konexio seguru bat egiteko identifikazio-zenbakia. Sakatu **Siguiente**.
 - f. Berrespen-mezu bat azaltzen da telefonoan. Sakatu **Si** konexioa onartzeko, sartu pasahitz berbera eta sakatu **Siguiente**.
 - g. Ordenagailuan, sakatu **Finalizar** laguntzailetik irteteko.
 - h. Telefonoaren elkartzea konfiguratzeko pantailan, bistaratzen den ordenagailuaren izena alda dezakezu; gero, sakatu **Finalizar**.
3. Orain, ireki Conexión compartida programa telefonoan. Sakatu **Inicio > Experto > Conexión compartida**.
 4. Hautatu **PAN de Bluetooth PCrako konexio** moduan.
 5. **Conexión de red** zerrendan, hautatu zure telefonoak Internetera konektatzeko erabiltzen duen konexioaren izena.
 6. Sakatu **Conectar**.
 7. Ordenagailuan, konfiguratu telefonoarekin Bluetooth-aren sare pertsonal bat (PAN):
 - a. Sakatu **Inicio > Panel de control > Conexiones de red**.
 - b. **Red personal** aukeraren azpian, egin klik **Conexión de red Bluetooth** ikonoan.
 - c. **Tareas de red** aukeraren azpian, sakatu **Ver dispositivos de red Bluetooth**.
 - d. Bluetooth-aren sare pertsonalaren gailuen elkarrizketa-koadroan, hautatu zure telefonoa eta, gero, sakatu **Conectar**.
 8. **Conexión compartida en su teléfono** pantailan, egiatzatu konexio-egoera bistaratzen den; horrek adierazten baitu zure ordenagailua behar bezala konektatu dela Internetera telefono bat Bluetooth modem gisa erabilia.

5.6 WiFi konexioa erabiltzea

WiFiak haririk gabeko Interneterako sarbidea eskaintzen du 100 metro arteko distantzian. Telefonoan WiFi funtzioa erabiltzeko, zerbitzu-hornitzaileak emandako haririk gabeko sarbide bat behar duzu. Toki publikoetan (adibidez, kafetegi edo jatetxe batean), haririk gabeko sarbide-puntu publikoetara sartu beharko duzu ("konexio-zentroak" edo "hotspotak" ere deitzen zaie).

Oharra Telefonoak WiFi seinalea izatea eta seinale horren irismena seinaleak zeharkatu beharreko objektu-kopuruaren, objektu horien azpiegituraren eta beste zenbait objekturen araberakoa da.

Lehendik dagoen WiFi sare batera konektatzeko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Comm Manager** aukeran.
Horrek Comm Manager-en pantaila irekitzen du.
2. Sakatu **WLAN** ikonoa. WLAN ikonoa nabarmenduta azaltzen da, WLAN funtzioa aktibatuta dagoela adierazteko.

Oharra Konexiorik detektatu ez bada, egin urrats hauek.

3. Sakatu **Menú > Configuración WLAN** Configuración WLAN pantaila irekitzeko.
4. Hautatu **WiFi** aktibatuta dauden WiFi sareen zerrenda ikusteko.
5. Hautatu zerrendako WiFi sare bat.
6. Sakatu **Conectar** hautatutako WiFi sarera konektatzeko.

WiFi sare batekiko konexiorako doikuntzak konfiguratzeko, sakatu **Menú > Editar**. Sare-gakoa eta behar den informazioa zehatz ditzakezu WiFi konexioen pantailan.

7. Sakatu **Listo** WiFi pantailan.

Oharrak

- WiFi aurrez zehaztu eta telefonoan erabilgarri dagoen sarera konektatzen da. Nolanahi ere, GPRS lehenespene gisa abiarazten da, zure telefonoak ez badu WiFi seinalerik detektatzen.
- Comm Manager-en, sakatu Configuración > **WLAN Configuración > Estado de conexión** konexioaren egoera eta WiFi kanal bakoitzaren seinalearen kalitatea egiaztatzeko.

- Konfiguratu telefonoa WiFi funtzioa automatikoki desaktiba dadin seinalerik detektatzen ez denean. Hala, bateriaren energia aurrezten da. Komunikazio-administratzailean (Comm Manager), sakatu **Configuración > Configuración WLAN > WiFi > Menú > Configuración WiFi**.

WiFi konexio berri bat sortzeko

Konektatu nahi duzun WiFi konexioa ez dago zerrendan; WiFi konexio bat sor dezakezu. Abiarazi baino lehen, egiaztatu konektatu nahi duzun WiFi konexioari buruzko datu garrantzitsu guztiak dituzula.

1. Pantaila nagusian, sakatu **Inicio > Configuración > Conexiones > Configuración WLAN > Wi-Fi > Nuevo**.
2. Adierazi **Nombre de la red** eta **Tipo de red**, eta sakatu **Siguiente**.

Oharra Beste gailu edo ordenagailu batera zuzenean konektatu nahi baduzu, eta ez sare batera sarbide-puntu baten bidez, hautatu **Ésta es una conexión de dispositivo a dispositivo (ad-hoc)**.

3. Hautatu **Autenticación** eta **Cifrado de datos**, eta, gero, sakatu **Siguiente**. WPA edo TKP, AES kautotzeko, edo WEP datuak enkriptatzeko, adierazi behar den informazioa gainerako eremuetan.
4. Hautatu **Utilizar control de acceso a IEEE 802.1x** kautotze-protokolo hedagarria (EAP) erabiltzeko. Hautatu EAP mota kautotze-motaren arabera. Sakatu **Finalizar**.

WiFi sarea edo segurtasuna areagotzeko

Komunikazio-administratzailearen (Comm Manager) LEAP funtzioarekin (Lightweight Extensible Authentication Protocol – Kautotze-protokolo hedagarri arina) handitu egiten da zure telefonoaren segurtasuna, eta bermatzen dizu inor ez dela zure sarera baimenik gabe sartuko.

1. **Configuración WLAN** pantailan, hautatu **LEAP** protokoloa.
2. Sakatu **Menú > Nuevo**.

Oharra Lehenespenez, LEAP pantailak bistaratzen ditu zuk aurrez sartutako datuak. Hala ere, behar adina aldaketa egin edo ezaba ditzakezu; horretarako, sakatu **Menú > Modificar** edo **Menú > Eliminar** LEAP pantailan.

3. Sartu **SSID** (Zerbitzu-multzoen identifikatzailea). Haririk gabeko zerbitzu-hornitzaileak emango dizu informazio hori.
4. Idatzi erabiltzaile-izena, pasahitza eta domeinua.
5. Hautatu kautotze-mota bat.
Lehenespen gisa, telefonoaren kautotze-mota sistemaren **Abrir autenticación** da.

Oharra LEAP protokoloak behar bezala funtziona dezan, jasotako telefonoa (zure telefonoa) sarbide-puntuaren SSID, erabiltzaile-izen eta pasahitz berberekin konfiguratu behar da.

6. kapitulua

Mezuak trukatzea eta

Outlook erabiltzea

6.1 Posta elektronikoa eta testu-mezuak erabiltzea

6.2 MMS mezuak erabiltzea


6.3 Pocket MSN Messenger erabiltzea

6.4 Egutegia erabiltzea

6.5 Kontaktua erabiltzea

6.6 Lanak erabiltzea

6.7 Ahots-oharrak erabiltzea



6.1 Posta elektronikoa eta testu-mezuak erabiltzea

Mensajería aukeran sartzen dira posta elektronikoko eta testu-mezuetako kontu guztiak. Outlook-eko eta Interneteko mezu elektronikoa eta testu-mezuak bidali eta jaso ahal dira Interneteko zerbitzu-hornitzaile (ISP) baten bitartez. Posta elektronikora lantokitik ere sar zaitezke, sare pribatu birtual (VPN) bat erabilita.

Outlook-eko posta elektronikoa konfiguratzeko

ActiveSync ordenagailuan lehen aldiz abiaraztean, sinkronizazio-harreman bat konfiguratu nahi duzun galdetuko dizu sinkronizazioa konfiguratzeko laguntzaileak. Horri esker, Outlook-eko posta eta gainerako datuak sinkroniza ditzakezu telefonoaren eta ordenagailuaren edo Exchange Server-en artean. Laguntzailea erabiliz sinkronizatu baduzu, telefonoa Outlook-eko postako mezuak bidaltzeko eta jasotzeko prest dago. Sinkronizazioa konfiguratzeko laguntzaileari buruzko informazioa izateko, ikus 3. kapituluko 'ActiveSync ordenagailuan instalatzeko eta konfiguratzeko'.

Sinkronizazio-harremanik konfiguratu ez baduzu, egin urrats hauek telefonoa Outlook-eko postarekin sinkroniza dadin konfiguratzeko:

1. Urruneko sinkronizazio bat egiteko over-the-air konexio bat konfiguratu eta konektatzeko (GPRS edo telefono bidezko ISP konexioa), egin 'Internetera konektatzea' 5. kapituluan azaltzen diren jarraibideak.
2. Deskonektatu telefonoa ordenagailutik edo LANetik. (Over-the-air konexio bat baldin baduzu, ez duzu deskonektatu behar).
3. Sakatu **Menú > ActiveSync**.
4. Posta elektronikoa zuzenean Exchange Server-ekin sinkronizatu nahi baduzu, sare pribatu batean nahiz sare korporatiboan, jarraitu 4. kapituluko 'Outlook-eko informazioa Exchange Server-ekin sinkronizatzea' ataleko urratsei.
5. Aukeratu sinkronizatu nahi duzun informazio-mota. Egiaztatu **Correo electrónico** aukera hautatuta dagoela. Xehetasun gehiago izateko, jarraitu 3. kapituluko 'Zer informazio sinkronizatuko den aldatzeko' atalean ematen diren urratsei.

Zure telefonoan Outlook-eko mezu elektronikoa eskuz bidali edo jaso nahi dituzun bakoitzean, konektatu telefonoa ordenagailuari, LAN sareari edo over-the-air konexioari, eta sakatu **Sincronización** ActiveSync pantailan, edo **Menú > Enviar y recibir** telefonoko Outlook-en.

Sinkronizazioa automatikoki programatzeko edo Exchange Server-ekin sinkronizazio-aldi bat ezartzeko moduari buruzko xehetasun gehiago dituzu 3. kapituluan 'Exchange Server-ekiko sinkronizazioa programatzea'.

POP3/IMAP4 posta elektronikoko kontu bat konfiguratzea

Interneteko zerbitzu-hornitzaile (ISP) batekin duzun posta elektronikoko kontu bat edo VPN zerbitzariko konexio baten bidez erabil dezakezun kontu bat (orokorrean, laneko kontua) konfiguratu behar duzu posta elektronikoko mezuak bidali eta jaso ahal izateko.

- 1.** Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Mensajería > Nueva cuenta** aukeran.
- 2.** **Su proveedor de correo electrónico** aukeran, hautatu **Otro (POP3/IMAP)** eta, gero, sakatu **Siguiente**.
- 3.** **Su nombre** aukeran, sartu zure izena mezu elektronikoak bistartzeko.
- 4.** **Dirección de correo electrónico** aukeran, idatzi kontu honentzako helbide elektronikoak.
- 5.** Hautatu **Intentar obtener la configuración de correo de Internet** aukera, eta sakatu **Siguiente**.

Konfigurazio automatikoa posta elektronikoko zerbitzariaren konfigurazioa deskargatzen saiatzen da, eskuz sartu beharrik izan ez dezazun. Kontua behar bezala konfiguratuta badago, mezu elektronikoak bidali eta jaso nahi dituzun galdetuko dizu.

Configuración automática ez bada ondo bete edo zure kontura sartzeko VPN zerbitzariko konexioa erabili behar baduzu, jarri harremanetan sare-administratzailearekin edo ISParekin honako informazio honetarako eta sartu eskuz:

Konfigurazioa	Deskribapena
Erabiltzaile-izena	Idatzi ISPak edo sare-administratzaileak esleitutako erabiltzaile-izena. Posta elektronikoko helbidean (@) ikurraren aurrean agertzen den zatia izan ohi da.
Pasahitza	Aukeratu pasahitz seguru bat. Pasahitza gordetzeko aukera dago, posta elektronikoko zerbitzarira konektatzen zaren bakoitzean sartu behar ez izateko.
Domeinua	Ez da beharrezkoa ISP bat duen kontuetarako. Baliteke laneko kontuetarako behar izatea.
Zerbitzari-mota	Hautatu POP3 edo IMAP4.
Kontuaren izena	Idatzi konturako izen eskusibo bat, esaterako 'Lana' edo 'Etxea'. Gero ez da izena aldatzerik izango.
Sarea	Idatzi zer sare-motara dagoen konektatuta zure posta elektronikokoaren zerbitzaria.
Sarrerako zerbitzaria	Idatzi posta elektronikoko zerbitzariaren izena (POP3 edo IMAP4)
SSL konexioa eskatzea	Aukeratu hau kontu honetarako mezu elektronikoak beti SSL konexio baten bidez jasotzen dituzula segurtatzeko. Horren bidez, segurtasun handiagoaz jaso dezakezu informazio pertsonala. SSL konexioa aukeratzan baduzu eta zure ISPak ez badu onartzen, ezinezkoa izango da mezu elektronikoak jasotzea.
Sarrerako zerbitzaria	Idatzi posta bidaltzeko zerbitzariaren izena (SMTP).
Irteerako zerbitzariak autentifikazioa behar du	Aukeratu hau posta elektronikokoaren irteerako zerbitzariak (SMTP) autentifikazioa behar badu. Goiko erabiltzaile-izena eta pasahitza erabiliko dira.
Irteerako zerbitzariaren konfigurazioa	Baliteke posta elektronikokoaren irteerako zerbitzariak sarrerako zerbitzariarena ez den kautotze-konfigurazio bat behar izatea.
Erabili beste erabiltzaile-izen bat irteerako zerbitzariarentzat	Aukeratu hau posta bidaltzeko zerbitzariak beste erabiltzaile-izen eta pasahitz bat behar izanez gero.

Erabiltzaile-izena	Idatzi posta elektronikoa bidaltzeko zerbitzarirako erabiltzaile-izena.
Pasahitza	
Domeinua	Idatzi posta bidaltzeko zerbitzarirako pasahitza.
Eskatu SSL konexioa	Idatzi posta bidaltzeko zerbitzarirako domeinua.
(irteerako posta-zerbitzaria baino ez)	Aukeratu hau posta elektronikoa beti SSL konexio baten bidez bidaltzen duzula segurtatzeko. Horri esker, segurtasun handiagoaz bidal dezakezu informazio pertsonala. Hau aukeratzan baduzu eta zure ISPak ez badu SSL konexio bat onartzen, ezinezkoa izango da mezu elektronikoak bidaltzea.

Mezuak bidaltzea eta jasotzea

Mezu elektronikoak edo testu-mezuak idazteko eta bidaltzeko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Mensajería** aukeran.
2. Hautatu posta elektronikoko kontu bat, edo hautatu **Mensajes de texto**. Gero, sakatu **Seleccionar**.
3. Sakatu **Nuevo**.
4. Idatzi hartzaileen helbide elektronikoa edo telefono-zenbakia, puntu eta komaz bereiziz. Kontaktuetako helbideetara eta telefono-zenbakietara sartzeko, **Para** aukeran, sakatu **ENTRAR** eta hautatu zerrendako hartzaile bat.
5. Idatzi mezu bat.
6. Sakatu **Enviar**.

Oharra Konexiorik gabe lanean ari bazara, posta elektronikoko mezuak Irteerako ontzira pasatuko dira eta konektatzen zarenean bidaliko dira. Testu-mezuak berehala bidaltzen dira.

Iradokizunak


- Mezu elektroniko baten lehentasuna ezartzeko, sakatu **Menú > Opciones del mensaje**.
- Mezuak bertan behera uzteko, sakatu **Menú > Cancelar mensaje**.
- Testu-mezu bat bidaltzen ari bazara eta jaso ote duten jakin nahi baduzu, bidali baino lehen sakatu **Menú > Opciones del mensaje**. Hautatu **Solicitar notificación de entrega de mensaje**.

Mezu bati erantzutea edo mezu bat birbidaltzea

1. Irekitako mezu batean, sakatu **Responder** edo **Menú > Responder a todos o Reenviar**.
2. Idatzi mezu bat mezuen eremuan.
3. Sakatu **Enviar**.

Oharrak

- Mezu elektronikoa bat Outlook-etik erantzuten baduzu edo berriz bidaltzen baduzu, datu gutxiago bidaliko duzu jatorrizko mezua editatzen ez baduzu. Honek tarifa-planaren transferentzia-kostuak murrizteko balio dezake.
- Gorde testu-mezuak SIM txartelean; horretarako, sakatu **Menú > Copiar a SIM**.
- SIM txartelean gordetako testu-mezuak kopiatzeko, Sarrerako ontzian sakatu **Menú > Copiar** a Bandeja de entrada. Telefonoan kopiatzen badituzu, Sarrerako ontzian bikoiztu egingo dituzu SIM txartela erabiltzen ari zarenean.

Mezu baten ondoan  ikonoa bistaratzen bada, SIM txartelean gordeta dagoela esan nahi du.

Denei erantzutean zure helbide elektronikoa kanpoan uzteko

Mezu elektronikoa baten hartzaile guztiei erantzuten badiezu, zure helbide elektronikoa ere hartzaileen zerrendan sartuko da. ActiveSync pertsonaliza dezakezu, zure helbide elektronikoa hartzaileen zerrendatik kanpo uzteko.

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > ActiveSync** aukeran.
2. Egin klik **Menú > Opciones** aukeran.
3. Hautatu **Correo electrónico**, eta sakatu **Configuración**.
4. Egin klik **Menú > Avanzado** aukeran.
5. **Dirección de correo electrónico** testu-laukian, sartu zure helbide elektronikoa.



6. Egin klik **Listo** aukeran.

Posta elektronikoko mezuari fitxategi erantsi bat atxikitzeko

1. Mezu berri batean, sakatu **Menú** > **Insertar** eta gero sakatu **Imagen o Nota de voz**.
2. Hautatu erantsi nahi duzun argazkia edo grabatu ahots-ohar bat.

Fitxategi erantsiak deskargatzeko

- Fitxategi erantsi bat duen mezu ireki batean, hautatu fitxategi erantsia. Posta elektronikoko zerbitzaria sinkronizatzen edo konektatzen denean eta posta elektronikoa bidaltzen eta jasotzen duzunean deskargatuko da fitxategi erantsia.

Mezuak deskargatzea

Mezuak deskargatzeko modua kontu-motaren arabera da:

- Outlook-eko posta elektronikoko kontu batean mezu elektronikoa bidaltzeko eta jasotzeko, abiatu sinkronizazioa ActiveSync-en bidez. Informazio gehiago izateko, ikus kapitulu honetako 'Outlook-eko posta elektronikoa konfiguratzeara'.
- Interneteko zerbitzu-hornitzaile (ISP) batekin duzun posta elektronikoko kontutik edo VPN zerbitzariko konexioaren bidez erabil dezakezun kontutik (orokorrean, laneko kontua) mezu elektronikoa bidaltzeko eta jasotzeko, deskargatu mezuak posta elektronikoko zerbitzari baten bidez. Informazio gehiago behar baduzu, ikus "Zerbitzaritik mezuak deskargatzea" atala.
- Testu-mezuak automatikoki jasotzen dira telefonoa aktibatuta dagoenean. Telefonoa desaktibatuta baldin badago, mezuak zerbitzu-hornitzaileak atxikitzen ditu, telefonoa berriz pizten duzun arte.

Zerbitzaritik mezuak deskargatzea

Interneteko zerbitzu-hornitzaile (ISP) batekin duzun posta elektronikoko kontuan edo VPN zerbitzariko konexioaren bidez erabil dezakezun kontuan (orokorrean, laneko kontua) mezuak bidaltzeko eta jasotzeko, lehenik Interneten edo sare korporatiboan konektatu behar duzu, kontuaren arabera.

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Mensajería** aukeran.
2. Hautatu posta elektronikoko kontua.
3. Sakatu **Menú > Enviar/Recibir**. Posta elektronikoko zerbitzariaren eta telefonoaren mezuak honela sinkronizatzen dira: mezu berriak telefonoaren sarrerako ontzian deskargatzen dira, irteerako ontziko mezuak bidali egiten dira, eta zerbitzaritik kendu diren mezuak telefonoaren sarrerako ontzitik kentzen dira.

Iradokizuna Mezu osoa deskargatu nahi baduzu, hautatu eta sakatu **Menú > Descargar mensaje**. Gainerako mezua deskargatuko da mezu elektronikoko bat bidaltzean eta jasotzean.

Norberak bere mezuak sinatzea eta enkriptatzea

Outlook-eko mezu elektronikoko bat zifratzean, mezuaren pribatasuna bermatuko duzu: testu sinplea eta irakurgarria izatetik testu zifratua (nahasia) izatera pasatuko da. Baimentze-gakoa duen hartzailleak baino ezingo du mezua deszifratu.

Mezu baten sinadura digitala mezuaren baimentze-gakoarekin aplikatzen zaio ziurtagiriari. Hala, hartzailleak badaki zuk zeuk (ez iruzurti edo pirata batek) bidali duela mezua eta mezua ez dela aldatua izan.

Mezu berri bat digitalki sinatzeko eta zifratzeko


1. Mezuen zerrendan, hautatu **Correo de Outlook**.
2. Sakatu **Nuevo**.
3. Sakatu **Menú > Opciones del mensaje**.
4. **Seguridad** eremuan, hautatu **Cifrar mensaje** eta **Firmar mensaje** kontrol-laukiak, eta, gero, sakatu **Listo**.



Jasotako mezu sinatu batean sinadura digitala egiaztatzea

Jaso duzun mezu baten sinadura digitala egiaztatzeko, egin hau:

1. Ireki digitalki sinatuta dagoen Outlook-eko mezu elektronikoa.
2. Mezuaren goialdean, sakatu **Ver estado de firma**.
3. Sakatu **Menú > Comprobar certificado**.



4. Mezuko ziurtagiriaren xehetasunak ikusteko, sakatu **Menú > Ver certificado**.

Oharra Sinadura digital bat baliogabetzeko zenbait arrazoi izan daitezke. Adibidez, baliteke bidaltzailearen ziurtagiria iraungita egotea, ziurtagiri-autoritateak baliogabetu izana edo ziurtagiria egiaztatzen duen zerbitzaria erabilgarri ez egotea. Jarri harremanetan bidaltzailearekin eta esan iezaiozu zer arazo duzun.

Karpetak administratzea

Mezularitza-kontu bakoitzak bere karpeta-hierarkia dauka, lehenetsitako bost karpetaekin: Sarrerako ontzia, Irteerako ontzia, Ezabatutako elementuak, Zirriborroak eta Bidalitako elementuak. Karpeta horietan gordetzen dira kontuaren bidez jaso eta bidalitako mezuak. Hierarkia bakoitzean ere karpeta gehigarriak sor daitezke. Posta elektronikoko kontuetarako karpetak zure kontu-motaren arabera dira.

Exchange Server-ekin edo mahai gaineko PC batekin sinkronizatzeke Outlook-eko posta elektronikoko kontu bat konfiguratzeko baduzu, Outlook-eko sarrerako ontziko mezu elektronikoak automatikoki sinkronizatuko dira telefonoarekin. Karpeta gehiago sinkronizatzea hauta dezakezu; horretarako, sinkronizaziorako esleitu behar dira. Sortzen dituzun karpetak eta mugitzen dituzun mezuak posta elektronikoko zerbitzarian kopia egiten dira. Esaterako, Bandeja de entrada karpetatik Familia deitutako karpeta batera bi mezu mugitzen badituzu, eta Familia sinkronizaziorako esleitu baduzu, zerbitzariak Familia karpeta kopia bat sortzen du eta mezuak karpeta horretara kopia egiten ditu. Beraz, mezuak irakurri ahal dituzu PCtik urrun zaudenean. Exchange-ren posta elektronikoko zerbitzari batera konektatuta badago baino ezin da karpeta sortu eta ezabatu gailuetan.

Outlook-eko kontua bezala, posta elektronikoko IMAP-4 zerbitzari bat erabiliz posta bidaltzeko eta jasotzeko kontu bat konfiguratzeko baduzu, telefonoko mezu guztiak zerbitzariko mezuen kopia dira. Telefonoan sortzen dituzun karpetak eta karpeta horietara mugitzen dituzun mezu elektronikoak posta elektronikoko zerbitzarian egongo dira. Telefonoan mezu bat mugitzen baduzu, zerbitzariko kopia mugituko da kontu horretarako posta bidaltzen eta jasotzen duzun hurrengo aldian. Beraz, mezuak erabilgarri egongo dira telefonotik edo PCtik posta elektronikoko zerbitzarira konektatzen zaren bakoitzean. Posta elektronikoko zerbitzarira konektatzen zaren bakoitzean eta behin konektatuta karpeta berriak sortzerakoan, karpeta izena aldatzerakoan edo karpetak ezabatzerakoan sinkronizatuko dira karpetak. Karpeta bakoitzak dituen beheko kargatzeko aukerak ere zehaztu daitezke.


Posta elektronikoko POP3 zerbitzari bat erabiliz posta bidaltzeko/jasotzeko kontu bat konfiguratzeko baduzu, telefonoko Elementos eliminados karpetera mugitzen dituzun mezu elektronikoei eten egingo dute telefonoko mezu eta posta elektronikoko zerbitzariko kopien arteko lotura. Posta bidaltzeko eta jasotzeko konektatzen zarenean, posta elektronikoko zerbitzariak telefonoko Elementos eliminados karpetan dauden mezuak detektatuko ditu eta posta elektronikoko zerbitzaritik ezabatuko dira. Gainerako karpeterako gainerako mezu guztiak telefonoan eta posta elektronikoko zerbitzarian geratuko dira.

6.2 MMS mezuak erabiltzea

MMS (Multimedia Message Service – Multimedia Mezuen Zerbitzua) bidez mezuak sortzea eta lagunei eta familiakoei bidaltzea erraza eta dibertigarria da. Argazkiak edo bideoak sar ditzakezu, audioa sartu edo grabatu, testua erantsi eta zure MMS mezuarekin batera bidal ditzakezu.

MMS zerbitzura sartzeko

Egin kasu jarraibide hauei bati:

- Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Mensajería > MMS** aukeran.
- Irudi- eta bideo-programatik, hautatu Mis imágenes karpeterako irudi bat eta sakatu **Menú > Enviar**. Hautatu **MMS** mezuarekin batera irudia bidaltzeko mezularitza-kontu gisa.
- Cámara programatik, atera argazki edo bideoak bat eta sakatu (). Menuan, hautatu **Enviar vía MMS** eta sakatu **Enviar**.

MMS mezuen karpetetara sartzeko

- Sakatu **Inicio > Mensajería > MMS**, eta, gero, **Menú > Carpetas**.



MMS mezuen karpetak

MMSen konfigurazioa editatzea

MMS mezu bat bidaltzen duzunean, lehenik SMS jakinarazpen bat bidaliko zaio hartzaileari; bien bitartean, haririk gabeko zerbitzuen hornitzailearen MMS zerbitzari batean gordeko da MMS mezua aldi baterako. Halaber, MMS mezu bat bidaltzen dizutenean, MMS zerbitzarian gordeta egongo da, berreskuratzen duzun arte. Beraz, telefonoan MMS mezuak bidali eta jaso ahal izateko, MMS zerbitzariaren kokapenarekin konfiguratu behar duzu.

Erositako telefonoak badu haririk gabeko zerbitzuen hornitzailearen MMS zerbitzariaren aurretiko konfigurazioa. Aurretiko konfigurazioa galtzen baduzu edo haririk gabeko zerbitzuak eskaintzen dituen beste hornitzaile batera aldatzen bazara, egin urrats hauek MMSren konfigurazioa ezartzeko.

MMS konfiguratzeko

1. MMSren pantaila nagusian, sakatu **Menú > Opciones > Opciones de cuenta** Preferencias pantaila irekitzeko.
2. Markatu edo desmarkatu kontrol-laukiak zure beharren arabera. MMS mezuekin egunean egotea hauta dezakezu, mezuak berehala berreskuratzea, mezuak onartzea edo ez onartzea, eta entregatu edo irakurri izanaren jakinarazpena eskatzea. Halaber, bidaltzen dituzun irudietako bereizmena eta mezuak entregatzeko saiakerak zehazteko aukera duzu.

3. Lehen tasuneko pantailan, sakatu **Menú > Configuración MMSC > Editar** MMSCren konfiguraziora sartzeko (Multimedia Messaging Service Centre – Multimedia-mezularitzako kontrol-zentroa).
4. Egiatzatu telefonoan aurrez konfiguraturuta dagoen MMS zerbitzariaren konfigurazioa. Aurrez zehaztutako konfiguraziorik ez badago, sakatu **Menú > Nuevo** MMSren Configuración pantailan eta sartu informazio hau (haririk gabeko hornitzaileak emango dizu):



- **Nombre.** Izen deskribatzaile bat, haririk gabeko zerbitzuen hornitzailea izendatzeko.
 - **URL de MMSC.** MMS zerbitzariaren URL helbidea.
 - **Puerta de enlace WAP.** MMS zerbitzariaren kokalekua; oro har, IP helbide baten itxura du.
 - **Puerto.** HTTP ataka-zenbakia; MMS zerbitzari batean konektatzeko eta fitxategiak transferitzeko erabiltzen da.
 - **Conectar vía.** Hautatu MMSrako telefonoak zer konexio erabiltzen duen.
 - **Máx. Tamaño de envío.** Hautatu haririk gabeko zerbitzuen hornitzaileak MMS mezuetarako onartzen duen tamainarik handiena.
 - **Versión de WAP.** Hautatu **WAP 1.2** edo **WAP 2.0**, haririk gabeko zerbitzuen hornitzaileak erabiltzen duenaren arabera.
5. Egin klik **Listo** aukeran.

MMSren Configuración pantailako sarrera gisa erantsiko da MMS zerbitzariaren konfigurazioa.

- Oharra** MMSren Configuración pantailari MMS zerbitzuen hornitzaile bat baino gehiago eranstean badizkiozu, MMS hornitzaile lehenetsi gisa hautatu ahal izango duzu horietako bat. Hautatu zerrendako MMSen hornitzaile-izena, eta gero sakatu **Menú > Establ. predeterminados**.

MMS mezuak sortzea eta bidaltzea

MMS mezu bat idatz dezakezu zenbait diapositibez osatutako konbinazio batean. Diapositiba bakoitzak argazki bat, audio edo bideo zatiren bat, edota testua izan dezake.

Oharra



- Gogoratu MMS zerbitzuak ordaindu egin behar direla. MMSak ongi erabiltzeko, telefono mugikorraren kontuan xehatuta azaldu behar du. Jarri harremanetan haririk gabeko zerbitzu hornitzailearekin, puntu hau zure dei-planean sartzeko.
- Egiatzatu MMSaren tamaina haririk gabeko zerbitzuen hornitzailearen mugetan sartzen dela, beste telefono mugikor batera edo helbide elektronikoa batera bidali behar baduzu.


MMS mezua idazten hastea

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Mensajería > MMS > Nuevo** aukeran.
2. **Para** atalean, idatzi zuzenean hartzailearen telefono-zenbakia edo helbide elektronikoa, edo sakatu **Entrar** Contactos atalean telefono-zenbaki edo helbide elektronikoa bat aukeratzeko. Bestalde, **Menú > Destinatarios > Agregar** sakatzen baduzu, kontaktu berri bat sartuko duzu.
3. **Asunto** aukeran, idatzi mezuaren gaia.
4. Sakatu **Insertar imagen/vídeo** Seleccionar medio pantailatik irudi edo bideo klip bat hautatzeko, eta sartu
5. Idatzi testua eta sartu audioklipak; horretarako, hautatu dagozkion eremuak.
6. Sakatu **Enviar** mezua bidaltzeko.

- Oharra** Mezu honen kopia bat beste batzuei bidaltzeko, sartu **CC** eta **CCO** eremuetan (horretarako, sakatu **Menú > Opciones de envío**).
Eremu horietan, sartu hartzailearen telefono-zenbakia edo helbide elektronikoa, edo sakatu **Menú > Destinatarios > Agregar** kontaktuetatik gehitzeko.

Ikur hauek MMS mezuen pantailako aukeren zuzeneko sarbideak dira:

- Sakatu  aurreko diapositiba ikusteko.
- Sakatu  hurrengo diapositiba ikusteko.



MMS mezua idaztea

Txantilo batetik MMS mezu bat sortzea

- Mensaje MMS pantaila zurian, sakatu **Menú > Plantilla > Nuevo desde la plantilla** aurrez zehaztutako txantilo bat erabiliz mezu bat berriz idazteko.

- Oharra** Mezu bat txantilo gisa gordetzeko, sortu mezu bat edo ireki lehendik dagoen bat, eta sakatu **Menú > Plantilla > Guardar como plantilla**.

MMS mezu batean argazki bat edo bideoklip bat sartzeko

Argazki finko bat edo bideoklip bat gehi diezaiokizu diapositiba bakoitzari, Mensaje MMS pantailan.

1. Sakatu **Insertar imagen/vídeo** argazki edo bideoklip bat sartzeko.
2. Hautatu argazki edo bideoklip bat Seleccionar medios pantailan. Mis imágenes karpeta irudien eta bideoklipen miniaturak bistaratzen dira. Argazkiak edo bideoak dituen beste karpeta batera nabigatzeko, sakatu **Menú > Cambiar carpeta**.

3. Hautatu argazki bat edo bideoklip bat NAVEGACIÓN erabiliz, eta sakatu **Seleccionar** edo **Menú > Seleccionar** sartzeko.

Seleccionar medios pantailan, aukera hauek dituzu: Vista de lista aukeran miniaturak ikusi, bistaratzeko elementu bat ireki, edo hautatu (**Menú** aukera sakatuta eta dagokion aukera hautatuta). Argazkia edo bideoklipa baztertu ere egin dezakezu, ATRÁS sakatuta. Argazki edo bideoklip berri bat ateratzeko eta mezuarekin berehala bidaltzeko, sakatu **Menú > Capturar > Imagen o Video**. Atera berri dituzun argazkia edo bideoklipa automatikoki sartzen dira mezuan.

MMS mezu bati aurrez zehaztutako testua eransteko

Berehala gehi diezaiokezu testua edozein diapositibari aurrez zehaztutako hitz edo esaldi zerrenda batetik abiatuta; zerrenda hori Mi texto deitzen da.

- MMS mezuaren pantailan, sakatu **Insertar texto > Menú > Mi texto** eta, gero, sakatu **Seleccionar** Mi texto zerrendatik testu-kate bat gehitzeko.

Oharra Mi texto zerrendan esaldi bat editatu edo handik ezabatzeko, hautatu testu-kate bat eta sakatu **Menú > Eliminar**. Zerrendan beste esaldi bat sortu eta gehitzeko, sakatu **Menú > Nuevo**.

MMS batean keinu-ikonoak edo gogoko URL helbideak sartzeko

Gehitu zure mezuetan keinu-ikonoak eta gogoko URL helbideak.

- MMS mezuaren pantailan, sakatu **Insertar texto > Menú > Insertar icono gestual** edo **Agregar a Favoritos**. Irekitzen den pantailan, hautatu keinu-ikonoa edo gehitu nahi duzun URL helbidea eta, gero, sakatu **Seleccionar**.

Oharra MMSren gogokoen zerrenda Internet Explorer Mobile-ren gogokoen zerrendan oinarrituta dago.

MMS mezu bati audioklip bat eransteko

Audioklipak erants diezazkiekezu MMS mezuei. Hala ere, diapositiba bakoitzeko audioklip bakarra gehi daiteke.

1. Sakatu **Insertar audio** audioklip bat sartzeko.

Hautatu audioklip bat Seleccionar audio pantailan.

Oharra Lehenespenez, Seleccionar audio pantailako zerrendan azaltzen diren audioklipak Mis sonidos karpeta-ko dira. Audioklipak dituen beste karpeta batera nabigatzeko, sakatu **Menú > Cambiar carpeta**.

- Hautatu audioklip bat NAVEGACIÓN erabiliz, eta sakatu **Seleccionar** edo **Menú > Seleccionar** sartzeko.

Oharra Mezuan sartu baino lehen audioklip bat erreproduzitu eta entzuteko, sakatu **Menú > Reproducir**.

Bestela, audioklip berri bat grabatzeko, sakatu **Menú > Capturar audio**. Gero, sakatu **Grabar** grabatzen hasteko eta **Detener** grabazioa gerarazteko. Sakatu **Reproducir** grabatutako audioklip berria entzuteko eta, gero, **Listo**.

Sakatu **Seleccionar** MMS mezuari audio-fitxategi bat gehitzeko.

MMS mezu baterako aukerak ezartzeko

MMS mezu bat idazten duzun bitartean, mezurako aukera hauek ezar ditzakezu **Menú** aukera sakatuta.

Aukera	Egitekoa
Destinatarios	Idatzi hartzaileen telefono-zenbakia edo helbide elektronikoa.
Insertar medios	Hautatu zer baliabide-mota sartu nahi duzun MMS mezuan.
Eliminar medios	Hautatu zer baliabide-mota kendu nahi duzun MMS mezutik.
Diapositivas	Gehitu edo kendu diapositibak, bistaratu hurrengo edo aurreko diapositiba, eta zehaztu diapositiben iraupena.
Plantilla	Idatzi mezu bat aurrez zehaztutako txantilo bat erabiliz, edo gorde idatzita duzun mezu bat edo lehendik dagoena txantilo gisa.
Capturar	Atera argazki bat, grabatu audioklip edo bideoklip bat, mezuan sartzeko.
Cancelar mensaje	Utzi mezua bertan behera eta itzuli Mensajería MMS karpeten pantailara.
Adjuntos	Hautatu vCard, vCalendar edo bestelako fitxategi bat eransteko.
Enviar vía SMS	Zure mezuko testu-zatia baino ez da bidaliko. Ez da kontuan izango bestelako baliabiderik.

Aukera	Egitekoa
Vista previa del mensaje	Erreproduzitu MMSaren mezuaren edukia bidali baino lehen.
Aukerak	
Fondo	Hautatu zerrendako hondoko kolore-mota.
Disposición del texto	Testuaren posizioa aldatzen du. Sakatu Menú testuaren kokapena hautatzeko.
Opciones de envío	Zehaztu mezuaren bidalketa-ordua, balioa, lehentasuna, klasea eta mezu baten gainerako konfigurazioak.

MMS mezuak ikustea, blokeatzea eta horiei erantzutea

MMS mezuak jasotzeko

- Mensaje MMS karpetako edozein pantailan, sakatu **Menú > Enviar/ recibir**. Lehenespen gisa, mezuak automatikoki deskargatzen dira telefonoan.

MMS mezu bat ikustea

MMS mezuak ikusteko hainbat modu daude.

- Sakatu ENTRAR mezua telefonoan ikusi eta erreproduzitzeko. Sakatu **Pausa** edo **Menú > Detener** etenaldian uzteko edo mezuaren erreprodukzioa gelditzeko.
- Sakatu **Menú > Vista de objeto** mezuan sartutako fitxategien zerrenda ikusteko. Fitxategi bat irekitzeko, hautatu eta sakatu **Abrir**. Fitxategi bat gordetzeko, hautatu eta sakatu **Guardar**, **Menú > Guardar Audio**, edo **Menú > Guardar foto**.
- Ikusi mezuko diapositibak banan-banan; horretarako, sakatu **Menú > Siguiente**.

MMS mezu bat erantzutea

- Sakatu **Menú > Responder > Responder** mezuaren bidaltzaileari erantzuteko, edo **Menú > Responder > Responder a todos** mezuaren Para eta Cc laukietan azaltzen diren pertsona guztiei erantzuteko. Sakatu **Menú > Responder > Reenviar** mezua besteren bati bidaltzeko.

Telefono-zenbaki batetik MMS mezuak ez jasotzeko telefono-zenbaki hori blokeatzea

Telefono-zenbaki bat blokea daiteke, zenbaki horretatik bidalitako MMS mezurik jaso nahi ez duzulako eta, beraz, ez jasotzeko.

1. Ikus MMS mezuak eta, gero, sakatu **Menú > Mostrar detalles del mensaje**.
2. Detalles del MMS pantailan, hautatu kontaktua **De** eremuan, eta, gero, sakatu **Menú > Abrir**.
3. Hautatu pantailako zenbakia eta, gero, sakatu ENTRAR. Irekitzen den menuan, sakatu **Guardar en lista de remitentes bloqueados**.

Oharra Zerrenda horretara zenbakia gehitzean, hortik aurrera ez duzu zenbaki horretatik bidalitako mezurik jasoko. Bidaltzaile blokeatuaren zerrenda editatzeko, MMS mezuen pantailan, sakatu **Menú > Opciones > Configuración de cuenta > Menú > Editar lista de remitentes bloqueados**. Une horretan, zenbakia zerrendatik kentzeko aukera izango duzu.

6.3 Pocket MSN Messenger erabiltzea

Pocket MSN Messenger programak zure gailuan MSN Messenger programaren ezaugarriak izateko aukera ematen dizu. Hauxe egin daiteke Pocket MSN Messenger-ekin:

- Berehalako mezuak bidaltzea eta jasotzea.
- Zein kontaktu dagoen konektatuta eta zein deskonektatuta ikustea.
- Aukeratutako kontaktuetarako egoera-eguneraketetan izena ematea, konektatuta noiz dauden jakiteko.
- Kontaktuak blokeatzea, zure egoera ikus ez dezaten eta mezurik bidal ez diezazuten.

MSN Messenger erabili ahal izateko, telefonoak Internetera konektatuta egon behar du. Interneterako konexio bat nola konfiguratu azaltzen duen informazioa eskuratzeko, ikus “Internetera konektatzea”, 5. kapituluan.

Ohar garrantzitsua

Microsoft .NET Passport edo Hotmail kontu bat eduki behar da MSN Messenger erabiltzeko. Hotmail.com edo MSN.com helbide elektronikoa izanez gero, baduzu Passport bat. Microsoft Passport kontua konfiguratzeko, joan <http://www.passport.com> orrira. Hotmail kontua konfiguratzeko, joan <http://www.hotmail.com> orrira.

MSN Messenger abiaraztea

Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Pocket MSN > MSN Messenger** aukeran.

Saioa hasi edo bukatzeko

- MSN Messenger-en pantaila nagusian, sakatu **Registrarse**. Idatzi helbide elektronikoa eta Passport edo Hotmail kontuaren pasahitza, eta sakatu **Registrarse**. Baliteke saioa hasteko zenbait minutu behar izatea, konexio-abiaduraren arabera.
- Saioa amaitzeko, sakatu **Menú > Cerrar sesión**.

Kontaktuak gehitu edo ezabatzeko

- Kontaktu bat gehitzeko, sakatu **Menú > Agregar un contacto** eta bete pantailan azaltzen diren aginduak.
- Kontaktu bat ezabatzeko, hautatu eta sakatu **Menú > Eliminar contacto**.

Mezu bat berehala bidaltzeko

1. Sakatu mezua nori bidali nahi diozun.
2. Idatzi mezua testua idazteko eremuan, pantailaren beheko aldean, eta sakatu **Enviar**.

Oharra Ohiko esaldiak azkar idazteko, sakatu **Menú > Mi texto** eta aukeratu zerrendako esaldi bat.

Kontaktuak blokeatzea edo desblokeatzea

- Kontaktu batek zure egoera ikusterik izan ez dezan eta zuri mezurik bidaltzerik izan ez dezan, hautatu eta sakatu **Menú > Bloquear**.
- Kontaktu bat ezabatzeko, hautatu eta sakatu **Menú > Desbloquear**.

Messenger-en duzun egoera aldatzea

1. Sakatu zure izena pantailaren beheko aldean. Bineta-puntu batek aurkeztutako zerrendan dago adierazita une honetako zure egoera.
2. Hautatu zerrendako egoera bat (*adibidez, Salí a comer*).

Bistaratzeko izena aldatzeko

1. Egin klik **Menú > Opciones** aukeran.
2. **Mi nombre para mostrar** aukeran, sartu MSN Messenger-eko solaskideei erakutsi nahi diezun izena eta, gero, sakatu **Listo**.

6.4 Egutegia erabiltzea

Erabili egutegia hitzorduak finkatzeko, bilerak eta bestelako ekitaldiak barne. Eguneko hitzorduak pantaila nagusian bistara daitezke. Ordenagailuan Outlook erabiliz gero, hitzorduak sinkroniza daitezke gailuaren eta ordenagailuaren artean. Egutegiak ere zure hitzorduak gogorarazteko aukera du (adibidez, soinu baten bidez).

Hitzordu bat programatzeko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Calendario** aukeran.
2. Sakatu **Menú > Nueva cita**.
3. Sartu hitzorduari buruzko informazioa.
4. Egun osoko zeregin bat programatzeko, **Hora de finalización** aukeran, hautatu **Todo el día**.
5. Egin klik **Listo** aukeran.

Oharra Egutegian ordu-blokeak bete beharrea, egun osoko zereginak egutegiko goiko aldean bistaratzen dira izenburu moduan.

Aldian behingo hitzordu bat egiteko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Calendario** aukeran.
2. Sakatu hitzordua eta Editar.
3. Joan **Tener lugar** aukerara, eta sakatu aldizkakotasunari dagokion aukeretako bat.
4. Egin klik **Listo** aukeran.

Programazioa ikusteko

Programazioa hiru modutan ikus dezakezu: hilekoa, astekoa eta agenda moduan.

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Calendario** aukeran.

2. Hauta ezazu aukera hauetako bat:

- Sakatu **Menú > Vista mes.**
- Sakatu **Menú > Vista semana.**
- Sakatu **Menú > Ir a hoy**, edo **Semana** edo **Mes** ikuspegitik, sakatu **Menú > Vista agenda.**

Egutegiko hitzordu bat bidaltzeko

Egutegiko hitzordu bat bidal dezakezu beste telefono batera MMS bidez.

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Calendario** aukeran.
2. Hautatu hitzordua eta, gero, sakatu **Menú > Enviar como vCalendar.**
3. Idatzi hartzailea MMS mezuko **Para** lerroan eta, gero, sakatu **Enviar.**

Iradokizuna Egutegiko hitzordu edo elementu bat ere transferi dezakezu.

6.5 Kontaktua erabiltzea

Kontaktuak telefono-agendan daude (*Contactos* karpetan) eta zurekin komunikatzen diren pertsonen eta negozioen gaineko informazioa gorde daiteke bertan. Gorde telefono-zenbakiak, helbide elektronikoak, etxeko helbideak, eta kontaktu bati buruzko bestelako edozein informazio, esaterako, urtebetetze edo urtemuga eguna. Horrez gain, kontaktuari irudi bat gehi edo tonu bat eslei diezaiokezu.

Kontaktuen zerrendaren bidez, oso azkar komunika zaitezke beste pertsona batzuekin. Sakatu zerrendako kontaktu bat kontaktuari buruzko informazioen laburpena jasotzeko. Deiak egin edo mezuak bidal daitezke zerrendaren bidez.

Ordenagailuan Outlook erabiliz gero, kontaktuak sinkroniza daitezke gailuaren eta ordenagailuaren artean.

Telefonoan kontaktu berri bat sortzeko:

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Contactos > Nuevo** aukeran.
2. Sartu kontaktu berrirako informazioa.
3. Egin klik **Listo** aukeran.

Iradokizunak

- Kontaktuen zerrendan ez dagoen norbaitek deitu edo mezua bidaltzen badizu, kontaktua berehala sor daiteke Llamadas ataletik edo mezutik, **Menú > Guardar en contactos** sakatuta.
- Kontaktuei buruzko informazioaren zerrendan ikusi daiteke kontaktu bati non gehi dakioken argazki bat edo non eslezi dakioken tonu bat.

SIM txartelean beste kontaktu bat sortzeko

1. Pantaila nagusian, sakatu **Inicio > Contactos > Menú > Nuevo contacto SIM**.
2. Sartu kontaktu berrirako informazioa eta sakatu **Listo**.


Iradokizuna

IM txartelean kontaktuak administratzeko, erabili SIM administratzailea. SIM administratzailean sartzeko, sakatu **Inicio > Experto > Administrador SIM**. **Administrador SIM** aukeran hauek egin daitezke: kontaktuak kopiatu SIM txarteletik Contactos karpetera, SIM txartelean edukiak **Contactos** karpeteran gehitu, SIM txartelean gordetako informazioa bistaratu, SIM txartelean kontaktuak editatu eta ezabatu, etab.

Kontaktu bati buruzko informazioa ikusi eta editatzeko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Contactos** aukeran.
2. Hautatu zein kontakturen informazioa ikusi nahi duzun, eta sakatu.
3. Informazioa editatzeko, sakatu **Menú > Editar**.
4. Aldaketak egindakoan, sakatu **Listo**.

Kontaktuen zerrendatik kontaktu bati deitzeko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Contactos** aukeran.
2. Hautatu zer kontakturi deitu nahi diozun eta sakatu.
3. Sakatu HABLAR (). Kontaktuan lehenetsitako telefonoa markatzen du.

Iradokizuna

Lehenetsi gisa zehaztutako telefonoa ez den beste telefono-zenbaki batera deitzeko, joan zenbakira eta sakatu HABLAR ().

Kontaktu bati mezu elektronikoa bidaltzeko

- 1.** Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Contactos** aukeran.
- 2.** Sakatu kontaktua.
- 3.** Sakatu helbide elektronikoa.
- 4.** Hautatu erabiliko duzun posta elektronikoko kontua.
- 5.** Sartu gai bat, idatzi mezua eta, gero, sakatu **Enviar**.

Kontaktu bati testu-mezu bat bidaltzeko

- 1.** Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Contactos** aukeran.
- 2.** Sakatu kontaktua eta **Menú > Enviar mensaje de texto**.
- 3.** Idatzi mezua eta sakatu **Enviar**.

Kontaktua aurkitzeko

- 1.** Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Contactos** aukeran.
- 2.** Izenen ikuspegian ez badago, sakatu **Menú > Ver por > Nombre**.
- 3.** Hauta ezazu aukera hauetako bat:
 - Hasi idazten kontaktuaren izena edo telefono-zenbakia, pantailan bistaratzen den arte. 5 tekla sakatzean, D-z hasten diren izenak eta 5 zenbakiaz hasten diren telefono-zenbakiak bistaratzen dira. Horren segidan sakatzen duzun teklak are gehiago mugatuko du bilaketa.
 - Iragazi zerrenda kategorien arabera. Kontaktuen zerrendan, sakatu **Menú > Filtro**. Horren ondoren, sakatu kontaktu bati esleitu zaion kategoria. Kontaktu guztiak berriro bistartzeko, hautatu **Todos los Contactos**.
 - Aurkitu kontaktua konpainiaren arabera. Kontaktuen zerrendan, sakatu **Menú > Vista por**, eta sakatu **Compañía**. Sakatu konpainia aukera, han lan egiten duten kontaktuak ikusteko.

Kontakturen baten informazioa beste pertsona bati testu-mezu bidez bidaltzea


1. Pantaila nagusian, sakatu **Inicio > Contactos** eta, gero, hautatu zer kontakturi buruzko informazioa bidali nahi duzun.
2. Sakatu **Menú > Enviar contacto > Mensaje de texto**. Hautatu bidali nahi duzun informazioa eta sakatu **Listo**.
3. Testu-mezu berrian, adierazi informazioa bidali nahi diozun pertsonaren helbidea, eta sakatu **Enviar**.



Kontaktu bat linean bilatzeko

Telefonoan dituzun kontaktuez gain, kontaktuei buruzko informazioa ere ikusteko aukera izango duzu GALen (Global Address List – Helbideen zerrenda orokorra). GAL liburuxkan erabiltzaile, talde eta banaketa-zerrenda gutzientzako helbide elektronikoak daude, eta Exchange Server-en gordetzen da. Lineako zuzeneko sarbidea baduzu zure telefonotik, oso erraza da bilera bat antolatzea zure konpainiako edozein pertsonarekin eta mezu elektronikoak bidaltzea.



GALeko sarbidea erabilgarri egoten da, zure erakundeak Microsoft Exchange Server 2003 SP2 erabiltzen badu, eta Exchange Server-ekin lehen sinkronizazioa burututa baduzu.

1. Sinkronizatu Exchange Server-ekin, orain arte egin ez baduzu.
2. Sakatu **Inicio > Contactos > Menú > Ver por > Nombre**.
3. Aukeratu:
 - Contactos atalean, sakatu **Menú > Buscar en línea**.
 - Mezu berri batean, **Para** laukian, sakatu **Menú > Agregar destinatario > Menú > Buscar en línea**.





4. Idatzi kontaktua izena eta sakatu **Buscar**. Hautatu kontaktu bat emaitzen zerrendan eta sakatu **Seleccionar**.



Oharrak

- Zure telefonoak datu-konexio batekin egon behar du konfiguratuta.
- Informazio honetan bila dezakezu, betiere zure erakundearen GAlean sartuta baldin badago: izena, abizena, helbide elektronikoaren izena, bistaratzeko izena, helbide elektronikoa edo bulegoaren kokapena.

Kontaktuen zerrenda iragazteko

Kategoriak esleituta dituzten kontaktuak zerrendan bistaratzen dira kategorien arabera iragaztean.

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Contactos** aukeran.
2. Sakatu **Menú > Filtro**.
3. Sakatu kategoria bat iragazteko.

Kontaktu bati txirrin bat esleitzeko

Nor deitzen ari den erraz identifikatzeko, txirrin pertsonalizatu bat eslei diezaiokezu kontaktu bakoitzari.

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Contactos** aukeran.
2. Sakatu txirrin-tonua esleitu nahi diozun kontaktua.
3. Egin klik **Menú > Editar** aukeran.
4. Sakatu **Tono person. timbre** eta hautatu zer txirrin-tonu nahi duzun.
5. Egin klik **Listo** aukeran.

Kontaktu bati irudi bat esleitzeko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Contactos** aukeran.
2. Sakatu kontaktua.
3. Egin klik **Menú > Editar** aukeran.
4. Sakatu **Imagen**.
5. Hautatu zer irudi gehitu nahi duzun.

Kontaktuaren xehetasunak bidaltzeko

Kontaktu baten txartela bat bidal dezakezu beste telefono batera MMS bidez.

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Contactos** aukeran.
2. Hautatu kontaktu bat eta sakatu **Menú > Enviar como vCard**.
3. Idatzi hartzailea MMS mezuko **Para** lerroan eta, gero, sakatu **Enviar**.

6.6 Lanak erabiltzea

Erabili **Tareas** egin nahi dituzunak kontrolatzeko. Zeregin bat behin gerta daiteke, edo behin eta berriro. Oharrak zehatz daitezke zereginetarako, eta kategoriaka antolatu. Zereginen zerrenda batean agertuko dira zereginak. Atzeratutako zereginak gorritz agertuko dira.

Zeregin bat sortzeko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Office > Tareas** aukeran.
2. **Escriba aquí una nueva tarea** laukian, sartu zereginaren izena eta sakatu ENTRAR.

Oharrak

- Telefonoko informazioa ordenagailuarekin sinkroniza dezakezu bietan zereginen zerrenda eguneratua izateko.
- PCan zeregin berri bat (ohar bat duena) sortzen baduzu eta, gero, telefonoarekin sinkronizatzen baduzu, PCan ezarritako unean erreproduzitzeko da oharra.

Zeregina kentzeko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Office > Tareas** aukeran.
2. Hautatu zeregina, eta sakatu **Menú > Eliminar tarea**.

Zeregin bat kokatzeko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Tareas** aukeran.
2. Zereginen zerrendan, egin hauetako edozein aukera:
 - Zerrenda ordenatzeko, sakatu **Menú > Ordenar por**, eta sakatu ordenatzeko aukera bat.
 - Zerrenda kategorien arabera iragazteko, sakatu **Menú > Filtro**, eta sakatu zer kategorია nahi duzun bistaratzea.

Oharra Kategoriak PCarekin sinkronizatutako zereginetan baino ez dira bistaratzen.

Iradokizuna Zereginak gehiago sailkatzeko, sakatu **Tareas activas** edo **Tareas completadas**.

Zeregin bat bete dela adierazteko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio** > **Office** > **Tareas** aukeran.
2. Hautatu zeregina eta sakatu **Completar**.

6.7 Ahots-oharrak erabiltzea

Erabili Notas de voz aukera ahots-grabazio laburrak sortzeko. Ahots-oharrak Todas las notas zerrendan daude eta ondoz ondoko zenbakiak dituzte izenean (Grabación, Grabación2, eta horrela, ondoz ondo).

Ahots-oharra sortzeko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio** > **Office** > **Notas de voz** aukeran.
2. Jarri telefonoaren mikrofonoa zure ahotik gertu.
3. Sakatu **Grabar** eta esan ahots-oharra.
4. Sakatu **Detener** tekla, ahots-oharraren grabazioa geldiarazteko.

Ahots-oharra ezabatzeko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio** > **Office** > **Notas de voz** aukeran.
2. Hautatu ezabatu nahi duzun ahots-oharra.
3. Sakatu **Menú** > **Eliminar**.
4. Sakatu **Sí**.

Iradokizuna Adibidez Grabación1 izena duen ahots-ohar bat ezabatzen baduzu, izena ahots-ohar berri baterako prest geratuko da.

Ahots-ohar bat entzuteko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio** > **Office** > **Notas de voz** aukeran.
2. Hautatu erreproduzitu nahi duzun ahots-oharra, eta sakatu **Entrar**.

Iradokizuna Ahots-oharra entzuteari uzteko, sakatu **Detener** ahotsa erreproduzitzen ari den bitartean.

Ahots-ohar bat txirrin-tonu gisa erabiltzeko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio** > **Office** > **Notas de voz** aukeran.
2. Hautatu ahots-oharra, eta sakatu **Menú** > **Establecer como tono del timbre**.

7. kapitulua

Multimedia erabiltzea

7.1 Kamera eta bideo-grabagailua erabiltzea

7.2 Irudiak eta bideoak erabiltzea

7.3 Windows Media Player erabiltzea

7.4 Midlet Manager erabiltzea





7.1 Kamera eta bideo-grabagailua erabiltzea

Erraza da argazkiak ateratzea eta audioa duten bideoklipak grabatzea telefonoak dituen kameraren bidez.

Kamera edo bideo-grabagailua irekitzeko

Egin kasu jarraibide hauetako bati:




- Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Cámara** aukeran.
- Pantaila nagusian, egin klik **Inicio >Grabador de vídeo** aukeran.
- Sakatueta gero .
- Sakatu FINALIZAR .

Kameratik edo bideo-grabagailutik irteteko

- Sakatu FINALIZAR ().

Argazkiak eta bideoklipak ateratzeko



Argazkiak eta bideoklipak kapturatzeko, aukera hauetako bat hautatu:

- Sakatu  argazkia ateratzeko. Halaber, sakatu  bideoa grabatzen hasteko, eta sakatu  berriro amaitzeko.
- Beste aukera bat da CONTROL DE NAVEGACION ataleko ENTRAR botoia sakatzea, irudi finko bat hartzean argazki bat ateratzeko. Sakatu botoi hori bideoa grabatzen hasteko; sakatu berriro grabazioa gelditzeko.







Argazkiak ateratzeko moduak

Cámara programaren bidez, argazkiak eta bideoklipak grabatu daitezke hainbat modu integratutan. Kamera azkeneko aldiz erabilitako moduan irekitzea dago lehenetsita. Izenburu-barrak erakusten du ateratze aktiboaren modua.

Ateratzeko modua aldatzeko

- Kameraren pantailan, erabili ezkerreko SOFTWARE-TEKLA  eta, gero, erabili NABIGAZIO-KONTROLA () > **Modua** hautatzeko, eta zerrendatik irudiak hartzeko modua hautatzeko.

Modu hauek daude:


Kaptura-modua	Funtzioa
Argazkia ()	Argazki finko normalak hartzen ditu.
Bideoa ()	Bideoklipak grabatzen ditu, hondoko audioarekin edo gabe.
MMS bideoa ()	Bideoklipak grabatzen ditu, MMS bidez bidaltzeko.
Kontaktu-argazkiak ()	Kontaktu baten identifikazio gisa erabil daitekeen argazki finko bat hartzen du.
Irudi-gaia ()	Argazki estatikoak hartzen ditu eta koadroetan kokatzen ditu.
Kirolak ()	Irudi estatikoen (3 edo 5 koadro) sekuentzia bat hartzen du automatikoki epe labur batean eta zehaztutako maiztasunarekin.

Aipatutako moduak erabiltzen badituzu, gailuaren kamera nagusiak honako formatu hauetan hartzen ditu fitxategiak:



Kaptura-modua	Formatua
Argazki finkoa	JPEG
Bideoa	Motion-JPEG AVI (.avi) MPEG-4 (.mp4) H.263 oinarri-lerroa (.3gp)
MMS bideoa	MPEG-4 (.mp4) H.263 oinarri-lerroa (.3gp)

Cámara moduaren ikonoak eta adierazleak

Cámara pantaila [Argazkia]



- 1 Modo de captura.** Uneko kaptura-modua adierazten du.
- 2 Relación de zoom.** Uneko zoomaren erlazioa adierazten du. Sakatu NABIGAZIOA gora edo behera, zooma handitzeko edo txikitzeko.
- 3 Cámara Con guración.** Egin klik SOFTWARE-TEKLAN, kameraren Configuración pantaila irekitzeko.
- 4 Valor de exposición (EV).** Esposizio-balioa doitzen du, -2 EV eta +2 EV bitartean (0,5eko iguera), NABIGAZIOA ezkerrera edo eskuinera mugituta.
- 5 Balance de blanco.** Uneko zuren balantzearen konfigurazioa adierazten du. :Automatikoa; : Eguna; : Gaua; : Goria; : Fluoreszentea.
- 6. Autodisparador.** Argazkiak ateratzean autokliskagailuaren uneko konfigurazioa adierazten du. Sakatu SOFTWARE-TEKLA > > **Autodisparador**, autokliskagailuaren konfigurazioa hautatzeko (**Off**, **2 segundo** edo **10 segundo**).
- 7. Visor de imagen.** Sakatu eskuineko SOFTWARE-TEKLAN irudia edo bideoa Imágenes y Videos aukeran ikusteko.

- 8. Gainerako informazioaren adierazlea.** Argazkia, Kontaktuen argazkia, Irudi-gaia eta Kirolak moduetan, zenbat argazki gehiago atera ditzakezun jakinarazten dizu, uneko konfigurazioaren arabera. Bideoa eta MMS bideoa moduetan, zenbat denboraz graba daitekeen adierazten du. Bideoa grabatzen ari dela, grabatutako denbora ikusten da.
- 9 Almacenamiento.** Hartutako argazkiak eta bideoklipak non gordeko diren adierazten du.  ikonoak telefonoaren memoria nagusia adierazten du;  ikonoak berriz, biltegitratze-txartela.
- 10. Resolución.** Uneko irudiaren edo bideoaren tamaina adierazten du, hautatutako bereizmenaren arabera. "Usar ampliación/reducción" atalean, ikusi zer bereizmen dauden eskura.

Cámara pantalla [Bideoa]



Grabazioaren egoera

Grabazioaren egoeraren adierazleak kolore gorri keinukaria izango du grabatzen ari dela.

Camara pantalla [Irudi-gaia]



Txantiloaren egoera

Txantiloaren egoerak ordura arte hartutako argazki-kopurua eta hautatutako txantiloiarekin har daitezkeenak erakusten ditu.

Revisar pantaila

Argazki bat edo bideoklip bat grabatu ondoren, Revisar pantaila agertzen da, eta fitxategiarekin zer egin erabaki daiteke hor.








Argazkia, Bideoa, MMS bideoa eta Irudi-gaia moduak



Kontaktu-argazkiak modua



Kirolak modua



Ikonoa	Funtzioa
	Atzera. Sakatu kameraren pantailara itzultzeko.
	Ezabatzea. Sakatu argazkia edo bideoklipa ezabatzeko.
	Bidali. Sakatu hartutako argazkia edo bideoklipa posta elektronikoz edo MMS bidez bidaltzeko.
	Ikustea . Sakatu, Imagenes y Vídeos programara aldatzeko, irudi finkoa ikusteko edo Windows Media Player-era aldatu eta bideoklipa erreproduzitzeko.
	Kontaktuari esleitzea. Sakatu argazkia hautatutako kontaktuari lotzeko.

Oharra Argazkiak **Kirolak** moduan egin ondoren, segidan egindako argazki kopuru osoa Revisar pantailaren beheko aldean ezkerrean agertzen da. Sakatu NABIGAZIOA gora edo behera, argazki-sekuentzian zehar nabigatzeko.

Argazki finkoak hartzeko moduak erabiltzea

Argazki finkoak hartzeko moduak erabiltzean (Argazkia, Kontaktu-argazkia eta Irudi-gaia), irudi finkoa hartu dezakezu NABIGAZIO-KONTROLEAN ENTRAR botoia sakatuta. Kirolak moduan, sakatu ENTRAR botoia behin, eta, gero, mugitu telefonoa argazkiak egiteko. Egindako argazki-kopurua hautatutako aukeraren arabera da. Argazki finkoak JPEG formatuan gordeko dira.



Argazki bat Irudi-gaia kaptura-moduan hartzen ari zarela, aurrez definitutako txantiloia bat hauta dezakezu. Txantiloien artean bilatu eta bat hautatzeko,



Cámara pantailan sakatu ezkerreko SOFTWARE-TEKLA  eta, gero, erabili NABIGAZIO-KONTROLA  hautatzeko. Hautatutako txantiloia araberak, baliteke argazki bat baino gehiago hartu behar izatea.



Captura de vídeo modua erabiltzea

Bideoak grabatzeko modua erabiltzen ari zarela, sakatu ENTRAR bideoklip bat grabatzen hasteko (audioarekin, hala nahi bada). Grabaketa gelditzeko, sakatu berriro ENTRAR botoia. Telefonoak kapturatutako bideokliparen lehenengo koadroa bistaratzen du, lehenespen moduan, Revisar pantailan.

Bideoklip bat grabatzen hasi aurretik, sakatu ezkerreko SOFTWARE-TEKLA

 eta, gero, hautatu  > **Formato de Captura** fitxategiaren formatua zehazteko. Kodetze-formatu hauen artean hauta dezakezu: Motion-JPEG AVI, MPEG-4 eta H.263. Denboraren eta fitxategiaren tamainaren arabera ere zehaztu dezakezu grabazioaren muga. Horretarako, sakatu ezkerreko



SOFTWARE-TEKLA , eta, gero, hautatu  > **Límite de grabación.**


Bideoaren bereizmena aldatzeko, sakatu ezkerreko SOFTWARE-TEKLA  eta, gero, hautatu .


Captura de vídeo MMS modua erabiltzea

MMS bideoak grabatzeko modua erabiltzen ari zarela, sakatu ENTRAR bideoklip bat grabatzen hasteko (audioarekin, hala nahi bada). Grabazioa gelditzeko, sakatu berriro ENTRAR botoia.

MMS bideo baten grabazio-iraupena finkoa da. Automatikoki geldituko da aurretik zehaztutako iraupena lortzen duenean. Hala ere, bideoaren grabazioa eskuz geldiarazi dezakezu edozein unetan. Camara pantailan goiko eskuineko txokoan dagoen denbora-adierazleak adierazten du denbora-muga.

Kodetze-formatua hauta dezakegu (H.263 o MPEG-4) ezkerreko SOFTWARE-TEKLA  sakatuta eta, gero,  > **Formato de Captura** hautatuta. Hala ere, MMS bideoentzat formaturik egokiena H.263 (3GP) da.

Bideo-fitxategia kapturatu eta gero, sakatu Bidali ikonoa () fitxategia MMS bidez bidaltzeko.



Handitzea/murritztea erabiltzea

Argazki finko bat edo bideoklip bat grabatzen hasi aurretik, irudia handitu daiteke enfokatutako objektua hurbiltzeko, edo txikitu, objektua urruntzeko. Kaptura- modu guztietan, sakatu NABIGAZIOA gora hurbiltzeko eta NABIGAZIOA behera urruntzeko.



Kaptura-moduaren eta -tamainaren arabera aldatzen da kamera nagusiak irudi edo bideo bat hartzeko duen zoomaren norainkkoa. Taula honetan duzu laburpen bat.






Kaptura-formatu jakinentzako eskuragarri dauden tamainak aldatu egingo dira kaptura-modu batetik bestera. Zoomaren norainokoa honen arabera kalkulatu da:

- 1,0x = tamaina normala (handitu/txikitu gabe)
- 2,0x = tamaina bi aldiz handitu da
- 4,0x = tamaina lau aldiz handitu da
- 8,0x = tamaina zortzi aldiz handitu da

Kaptura-modua	Bereizmena	Zoomaren irismena
Vídeo eta Vídeo	Txikia (128 x 96) (4:3)	1.0x - 2.0x
MMS	Ertaina (176 x 144) (11:9) (aurrez zehaztutakoa)	1.0x - 2.0x
Argazkia	Txikia (160 x 120)	1.0x - 8.0x
	Ertaina (320 x 240)	1.0x - 4.0x
	Handia (640 x 480)	1.0x - 2.0x
	1M (1280 x 1024) (aurrez zehaztutakoa)	1.0x - 2.0x
Kontaktu-argazkiak	Txikia (160 x 120)	1.0x - 4.0x *
	Ertaina (240 x 320) (aurrez zehaztutakoa)	1.0x - 4.0x
	Handia (480 x 640)	1.0x - 2.0x
Irudi-gaia	Uneko txantiloiak zehaztua	Unean kargatutako txantiloia-aren tamainaren arabera.
Kiolak	Txikia (160 x 120)	1.0x - 8.0x
	Ertaina (320 x 240)	1.0x - 4.0x
	Handia (640 x 480) (aurrez zehaztutakoa)	1.0x - 2.0x

Cámara menua erabiltzea

Camara pantailan ezkerreko SOFTWARE-TEKLA  sakatuta, kaptura-moduen artean hauta dezakegu eta modu bakoitzerako zenbait doikuntza pertsonalizatu. Erabili NABIGAZIO-KONTROLA edo ezkerreko SOFTWARE-TEKLA  eskura dituzun doikuntzak ikusteko. Taula honetan ikus daiteke menuan eskuragarri dauden aukera orokorrak.

Aukera	Egitekoa
	Hautatu Autodisparador aukera irudiak kapturatzeko: Apagado, 2 segundos edo 10 segundos . 2 edo 10 segundo aukeratzan baduzu, zehaztutako denboraz atzeratzen da kaptura ENTRAR sakatu eta gero.
	Hautatu, fitxategia gailuaren memorian edo memoria-txartelean gorde nahi baduzu.
	Irudi-gaia moduan bakarrik dago eskuragarri. Irudi-gaia modurako txantilo bat hauta dezakezu.
	Kirolak moduan bakarrik dago eskuragarri. Velocidad de captura aukerak, hartutako argazkien arteko tartea zehazten du. Instantaneas aukerak zehazten du ENTRAR behin sakatuta zenbat argazki aterako diren.
	Zurien balantzearen doikuntza zehazteko, inguruneke argira moldatzeko. Aukera hauek daude: Automático, Día, Noche, Incandescente eta Fluorescente . Halaber, efektu berezi bat erabil dezakezu: Escala de grises, Sepia eta Frío , argazkiei edo bideoklippei aplikatzeko.
	Hautatu erabili nahi duzun bereizmena, eta zehaztu non gorde behar diren fitxategiak (biltegitratze-txartela edo telefonoa). Argazkiak hartzean, gainera, Kalitatea ezarri dezakezu eta Data inprimatzea gaitu.
	Txandakatu irudiak hartzeko moduak: Argazkia, Bideoa, Kontaktu-argazkiak eta abar. Xehetasun gehiagorako, kontsultatu aurretik aipatutako "Kaptura-moduak".
	Cámara edo Grabados de Vídeo funtzioak pertsonalizatzen lagunduko dizuten konfigurazio gehiago daude. Xehetasun gehiagorako, kontsultatu atal hau "Telefonoaren konfigurazio aurreratua".

Cámara menuaren konfigurazio aurreratua

- **Formato de Captura.** Argazkien eta bideoen fitxategi-formatua zehazteko.
- **Sonido del disparador.** Erabaki, argazkiak ateratzean edo bideoklipak grabatzean, kameraren kliskagailuak ENTRAR botoia sakatzean soinua emititzea nahi duzun edo ez.
- **Mantener retroiluminación.** Kamera erabiltzean, hautatu atzeko argiaren aukera aktibatu edo desaktibatu nahi duzun. Horrek zure gailuaren atzeko argiaren konfigurazioa aldatzen du, kamera erabiltzen ari zaren bitartean.

- **Revisar duración.** Hartutako argazkia edo bideoa automatikoki gorde eta Camara pantailara itzuli aurretik, argazkia edo bideoa Revisar pantailan ikusteko moduan egongo den denbora-tartea finkatzeko. Hautatu **Sin limite** denbora-mugarik ezarri nahi ez baduzu.
- **Mostrar Controles.** Hautatu **Encendido** edo **Apagado** Camara pantailako adierazleak erakusteko edo gordetzeko.
- **Ajuste de parpadeo.** Barne-argazkiak egitean, kameraren pantailaren keinada ager daiteke, kamararen pantailaren esplorazio bertikalaren abiaduraren eta argiztapen fluoreszentearen keinada-maiztasunaren artean dauden ezberdintasunengatik. Keinuak murrizteko, keinuen konfigurazioa **Automatico**ra alda dezakezu edo maiztasun egokira (**50 Hz** edo **60 Hz**), zure gailua erabiltzen ari zaren herrialdearen arabera.
- **Grabar con audio** (Bideoa edo MMS bideoa bakarrik). Hautatu **Activado** bideoklipak audioarekin grabatzeko. Hautaketa lehenetsitakoaren arabera egiten da. **Desactivado** hautatu eta bideoklip bat grabatuz gero, ez du audiorik izango.
- **Prefijo.** Zehaztu ezazu argazkiek eta bideoklipei izena nola jarri. **Predeterminado** hautatuz gero, "Foto" edo "Video" eta zenbaki sekuentzial bat izango da kapturatutako fitxategi berrien izena, adibidez: IMAGEN_001.jpg. Fitxategiak izenda ditzakezu aurrizki gisa **Data** edo **Data eta ordua** erabilia.
- **Contador.** Lehenetsitakoaren arabera, hartu berri diren argazki- edo bideo-fitxategiek aurrizki bat eta zenbakiak segidan (001, 002 eta abar) izaten dituzte. Kapturatutako fitxategiei "001" zenbakia jartzeko, hautatu **Restablecer**.
- **Límite de grabación** (Bideoa eta MMS bideoa bakarrik). Grabaketa-fitxategiaren gehienezko denbora eta tamaina zehazteko.
- **Carpeta de plantillas** (Irudi-gaia bakarrik). Lehenetsitakoaren arabera, txantiloiak telefonoaren **Memoria principal** ataleko **|Mis Documentos| Plantillas** karpetan gordetzen dira. Txantiloietako batzuk biltegiatze-txartel batera mugitu badituzu (Fitxategien arakatzailaren bidez), ezarri aukera hori **Principal + Tarjeta** atalari, txantiloiak memoria nagusian eta biltegiatze-txartelean daudela zehazteko.

- **Ajustar.** Aukera horren bidez, kameraren bistaratze-ezaugarriak doitu ditzakezu, esaterako, **Contraste**, **Saturación**, **Matiz** eta **Nitidez**. Sakatu NABIGAZIOA gora edo behera propietatea hautatzeko, eta sakatu NABIGAZIOA ezkerrera edo eskuinera, balioa aldatzeko.
- **Acerca de.** Cámara programari buruzko informazioa ematen du.

7.2 Irudiak eta bideoak erabiltzea

Imágenes y vídeos programaren bidez, telefonoan irudiak ikus ditzakezu, eta GIF animazio-fitxategiak eta bideoak erreproduzitu. Halaber, irudiak ikus daitezke diapositiba-aurkezpen gisa, infragorrien bidez transmititu, mezularitza-programa baten bidez bidali, editatu edo pantaila nagusiaren hondo gisa ezarri.

Telefonoan irudi bat edo bideoak kopiatzeko

Irudiak PCtik kopiatu eta telefonoan ikus ditzakezu.

- Kopiatu irudi- edo bideo-fitxategiak PCtik edo biltegitratze-txartel batetik, telefonoko Mis imágenes karpetera. Ordenagailutik gailura fitxategiak kopiatzeko informazio gehiago nahi baduzu, begiratu ActiveSync-en Laguntza PCan.

Oharra PCtik telefonora ere irudiak eta bideoak kopiatu ditzakezu, memoria-txartel bat erabilita. Sartu memoria-txartela telefonoaren zirrikitan eta kopiatu PCko fitxategiak memoria-txartelean sortutako karpetera.



Irudiak eta bideoak


Irudiak ikusteko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio** > **Imágenes y vídeos** aukeran. Mis imágenes karpeta irudiak koadro txiki gisa agertzeko lehenetsita daude.
2. Hautatu argazki bat eta sakatu **Ver**.
3. Mis imágenes karpetan irudirik ez baduzu aurkitze, sakatu **Menú** > **Carpetas** > **Mi dispositivo** beste karpeta batzuetara sartzeko.

GIF animazio-fitxategiak erreproduzitzea

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio** > **Imágenes y vídeos** aukeran.
2. Hautatu GIF animazio-fitxategi bat eta sakatu **Ver**.

Bideoak erreproduzitzeko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio** > **Imágenes y vídeos** aukeran. Bideo-fitxategiak koadro txiki gisa agertzen dira,  ikono batekin.
2. Hautatu bideo bat eta sakatu **Reproducir** Windows Media Player integratuarekin erreproduzitzeko.

Diapositiba-aurkezpenak ikusteko

Zure irudiak diapositiba-aurkezpen gisa ikus ditzakezu telefonoan. Irudiak pantaila osoko ikuspegian eta bost segundoko tartearekin agertzen dira.

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio** > **Imágenes y vídeos** aukeran.
2. Egin klik **Menú** > **Opciones** aukeran.

Oharra Irudiei zein neurri ezarri zehatz dezakezu Irudien aurkezpena optimizatzeke. Sakatu **Menú** > **Opciones**, hautatu **Presentación**, eta hautatu **Imágenes verticales** edo **Imágenes horizontales**. Halaber, telefonoa PCra konektatu eta 2 minutuko tartean inaktibo badago, pantaila-babesle bat erreproduzitzen hasteko aukera ezar dezakezu.

Kamera Imágenes y vídeos ataletik abiaraztea

- Mis imágenes karpetan, sakatu **Cámara**.

Argazki edo bideoklip bat ezabatzeke

- Hautatu argazki edo bideoklip bat Argazkiak eta bideoak pantailan eta sakatu **Menú > Eliminar**. Sakatu **Si** ezabatzea baieztatzeko.

Argazki bat editatzeko

Irudiak biratu, ebaki, eta irudien distira eta kolorearen kontrastea doitu ditzakezu.

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Imágenes y vídeos** aukeran.
2. Hautatu editatu nahi duzun irudia eta sakatu **Ver**.
3. Sakatu **Menú > Editar**, eta hau egin:
 - Argazki bat 90 gradu biratzeko, sakatu **Menú > Girar**.
 - Argazki bat ebakitzeko, sakatu **Menú > Recortar**. Gero, lerratu kurtsorea ebaketa-eremuaren ertz batean ezartzeko eta sakatu **Siguiente**. Hautatu ebaki beharreko bigarren ertza, eta sakatu **Finalizar** edo klik egin **Anterior**-en, aurreko pantailara itzultzeko eta berriz hautatzeko.
 - Irudi baten distira- eta kontraste-maila automatikoki doitzeko, sakatu **Menu > Autocorrección**.
4. Sakatu **Menú > Guardar como**, editatutako argazkia izen berriarekin edo kokaleku berrian gordetzeko.

Oharra Edizio bat desagiteko, sakatu **Menú > Deshacer**. Irudian gorde gabe egindako edizio guztiak bertan behera uzteko, sakatu **Menú > Cancelar**.

Irudi bat pantaila nagusiko hondo gisa konfiguratzeko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Imágenes y vídeos** aukeran.
2. Hautatu bigarren planoko gisa definitu nahi duzun irudia.
3. Sakatu **Ver**.
4. Egin klik **Menú > Usar como pantalla Princ.** aukeran.
5. Hautatu aurkezpen-eremua eta sakatu **Siguiente**.
6. Doitu gardentasuna. Hautatu portzentaje altu bat irudi gardena izateko, edo portzentaje baxu bat irudi opakoa izateko.
7. Sakatu **Finalizar**.

Argazkiak eta bideoklipak posta elektronikoz bidaltzeko

Argazkiak eta bideoklipak beste telefono batzuetara bidal ditzakezu posta elektronikoa bidez.

1. Lehenik, konfiguratu Mezularitza mezuak bidaltzeko eta jasotzeko.
2. Imágenes y vídeos pantailan, hautatu bidali nahi duzun elementua.
3. Egin klik **Menú** > **Enviar** aukeran.
4. Mensajería pantailan, hautatu **Correo de Outlook** eta sakatu **Seleccionar**. Mezu berria sortuko da erantsitako dokumentuarekin.
5. Idatzi hartzailearen izena eta gaia eta sakatu **Enviar**. Mezua bidaliko da telefonoa sinkronizatzen den hurrengoan.

Oharra Argazkiak eta bideoklipak automatikoki gordetzen dira bidali aurretik.

Irudiak transferitzeko

Irudi bat zure lagun edo senitartekoei transferi diezaiekezu infragorrien teknologia erabiliz.

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio** > **Imágenes y vídeos** aukeran.
2. Hautatu eraman nahi duzun irudia.
3. Egin klik **Menú** > **Transferir** aukeran.
4. Hautatu zer gailuri bidali nahi diozun argazkia.
5. Sakatu **Transferir**.

Kontaktuei irudiak esleitzeko

Kontaktu bakoitzari irudi bat esleitu ahal diozu edozein unetan erraz identifikatu ahal izateko.

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio** > **Imágenes y vídeos** aukeran.
2. Hautatu kontaktu bati esleitu nahi diozun argazkia.
3. Sakatu **Menú** > **Guardar en Contacto**.
4. Hautatu kontaktua, eta sakatu **Seleccionar**.

Irudiaren aukerak pertsonalizatzeko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio** > **Imágenes y vídeos** aukeran.
2. Hautatu zer argazkiri konfiguratu nahi dizkiozun aukera aurreratua.
3. Egin klik **Menú** > **Opciones** aukeran.
4. Hautatu **General** edo **Presentación** aukeren pantailan, eta, gero, sakatu ENTRAR. Aukeren pantailan, **General** hautatzean, hau egin dezakezu:
 - Argazkiaren tamaina txikitu, posta elektronikoz azkarrago bidaltzeko.
 - Argazki bat biratzeko norabidea definitu. Aukeren pantailan, **Presentación** hautatzean, hau egin dezakezu:
 - Diapositiba-aurkezpenean, ikuspegien konfigurazioa ezarri.
 - Pantaila-babesa aktibatu



Imágenes y vídeos menua

7.3 Windows Media Player erabiltzea

Smartphone-entzako Windows Media Player® Mobile erabil dezakezu, telefonoan edo sarean, hala nola Web gune batean, gordetako audio digitala edo bideo-fitxategiak erreproduzitzeko.

Dokumentazio horretan, PCrako Windows Media Player-en bertsioa “Desktop Player” da (Mahaigainerako erreproduzitzailea) eta Smartphone-rako bertsioa berriz “Device Player” (Gailuentzako erreproduzitzailea).

Windows Media Player irekitzeko, sakatu

Inicio > Windows Media.

Hauek dira Windows Media Player Mobileren bertsio honekin bateragarriak diren fitxategi-formatuak:



Formatu bateragarriak	Fitxategi-luzapenak
Bideoa	
• Windows Media Video	.wmv, .asf
• MPEG4 Profil Sinplea	.mp4
• H.263	.3gp
• Motion JPEG	.avi
Audioa	
• Windows Media Audio	.wma
• MP3	.mp3
• MIDI	.mid, .midi, .rmi
• AMR banda estua	.awb
• AMR banda zabala	.awb
• AAC	.m4a

Kontrolak

Lehenespenez, botoi hauek daude esleituta Windows Media Player Mobile-ren funtzioei.

Honetarako	Sakatu ...
Erreproduzitu edo geldiarazi	ENTRAR
Aurreko fitxategi batera saltatu	Ezkerreko NABIGAZIOA
Hurrengo fitxategi batera saltatu	Eskuineko NABIGAZIOA
Bolumena igotzea	NABIGAZIOA gora
Bolumena jaistea	NABIGAZIOA behera
Soinua azkar aktibatzea edo desaktibatzea (isilean)	#
Pantaila osora aldatu bideoa erreproduzitzen ari dela	0
Abiadura aldatu	*
Fitxategi bat azkar aurreratu	Eskuineko NABIGAZIOA (atxiki)
Fitxategi bat atzera bildu	Ezkerreko NABIGAZIOA (atxiki)

Pantailak eta menuak

Windows Media Player-ek hiru pantaila nagusi ditu:

Pantalla de reproducción. Erreprodukzio-kontrolak (adibidez, Reproducir, Pausar, Siguiente, Anterior y Volúmen), eta bideo-leihoak erakusten dituen pantaila lehenetsia. Pantaila horren itxura alda dezakezu beste maskara bat hautatuz.

Reproducción en curso pantaila. Uneko erreprodukzioaren zerrenda erakusten du. Erreprodukzio-zerrenda berezi horrek unean exekutatzen ari den fitxategia eta jarraian erreproduzitzeko "ilaran" dauden fitxategiak erakusten ditu.

Biblioteca pantaila. Audio-artxiboak, bideoak eta erreprodukzio-zerrendak arin aurkitzea ahalbidetzen ditu. Kategoria hauek ditu: Mi música, Mi vídeo, Mi TV eta Mis listas de reproducción.

Pantaila bakoitzaren behealdean **Menú** dago. Menu horretako komandoak aldatu egiten dira ikusten ari zaren pantailaren arabera.

Erreprodukzioa pantailako Menua.

Reproducción pantaila ikustean, **Menú** aukeran komando hauek agertzen dira:

Aukera	Egitekoa
Biblioteca	Liburutegiaren pantaila erakusten du, erreproduzitzeko fitxategia aukeratu ahal dezazun.
Reproducir/ Pausar	Erreprodukzioa hasi edo eteten du.
Gelditzea	Erreprodukzioa geldiarazteko.
Orden aleatorio/Repetir > Orden aleatorio	Ausaz erreproduzitzen ditu Reproducción en curso zerrendako fitxategiak.
Orden aleatorio/Repetir > Repetir	Behin eta berrir erreproduzitzen ditu Reproducción en curso zerrendako fitxategiak.
Pantaila osoa	Bideo bat erreproduzitzen ari zarela, erakutsi pantaila osoa erabiliz.
Aukerak	Doitu Windows Media Player Mobile-ren aukerak, sareko aukera, maskara eta botoi-aukerak barne.
Propiedades	Unean exekutatzen ari den fitxategiaren gaineko informazioa erakusten du.
Acerca de	Windows Media Player-i buruzko informazioa, adibidez, bertsio-zenbakia, erakusten du.

Reproducción en curso pantailako Menua.

Reproducción en curso pantaila ikustean, menuan komando hauek agertzen dira:

Aukera	Egitekoa
Biblioteca	Liburutegiaren pantaila erakusten du, erreproduzitzeko fitxategia aukeratu ahal dezazun.
Igo	Igo hautatutako elementua erreprodukzio-zerrendako ordenan.
Jaitsi	Jaitsi hautatutako elementua erreprodukzio-zerrendako ordenan.
Kendu erreprodukzio-zerrendatik	Hautatutako elementua erreprodukzio-zerrendatik kentzen du.

Aukera	Egitokia
Orden aleatorio/Repetir > Orden aleatorio	Ausaz erreproduzitzen ditu Reproducción en curso zerrendako fitxategiak.
Orden aleatorio / Repetir>Repetir	Behin eta berrir erreproduzitzen ditu Reproducción en curso zerrendako fitxategiak.
Guardar lista de reproducción	Gorde Reproducción en curso zerrenda zerrenda pertsonal gisa, zerrenda horretan sartu nahi dituzun multimedia-fitxategiak ilaran jarri ondoren.
Hasitako erreprodukzioa ezabatzen du	Hautatutako elementuaren gaineko errore-informazioa erakusten du (elementuaren izenaren aurretik harridura-marka agertzen da errore-xehetasunik eskura baldin badago).
Propiedades	Hautatutako fitxategiaren gaineko informazioa erakusten du.

Biblioteca pantailako Menua.

Biblioteca pantailako **Menú**-n komando hauek agertzen dira:

Aukera	Egitokia
Poner en cola	Hautatutako elementua uneko erreprodukzio-zerrendaren (Uneko erreprodukzioa) amaierara gehitzen du.
Eliminar de la biblioteca	Hautatutako elementua uneko erreprodukzio-zerrendaren (Uneko erreprodukzioa) amaierara ezabatzen du.
Reproducción en curso	Uneko erreprodukzioaren zerrenda erakusten du.
Biblioteca / Nombre de la biblioteca	Liburutegien artean txandaka ibili, Mi dispositivo eta Tarjeta de almacenamiento artean, adibidez.
Actualizar biblioteca	Liburutegiari elementu berriak gehitzen dizkio telefonoan edo biltegitratze-txartelean bilatuz.
Abrir archivo	Telefonoan edo biltegitratze-txartelean gordeta dauden baina liburutegian ez dauden fitxategiak aurkitzea eta erreproduzitzea ahalbidetzen ditu.
Abrir dirección URL	Interneteko eta antzeko sareetako fitxategiak erreproduzitzea ahalbidetzen ditu.
Propiedades	Hautatutako fitxategiaren gaineko informazioa erakusten du.

Lizentziak eta fitxategi babestuak

Eduki jakin batzuk (adibidez, Internetetik behera kargatutako multimedia-artxiiboak, CD pistak eta bideoak) lizentziekin etortzen dira, legez kanpoko banaketaren aurka babesteko. Lizentziak Eskubide Digitalen Administrazioa erabiliz sortzen eta administratzen dira; teknologia horrek edukiak babesten ditu eta sartzeko eskubideak administratzen ditu. Lizentzia batzuek zure telefonora kopiatutako fitxategiak erreproduzitzea saihets dezakete. Lizentziak dituzten fitxategiei fitxategi babestuak deitzen zaie.

Babestutako fitxategi bat PCtik telefonora kopiatu nahi baduzu, erabil ezazu mahaigaineko Player-a fitxategia gailuarekin sinkronizatzeko (PCko karpeta batetik telefonoko karpeta batera arrastatu ordez, adibidez). Babestutako fitxategiarekin batera lizentzia ere kopiatzea ziurtatuko du horrek. Zure telefonora eta beste gailu mugikor batzuetara fitxategiak sinkronizatzeko informazio gehiago eskuratzeko, ikusi mahaigaineko Player-en laguntza.

Oharra Fitxategi baten babes-egoera ikus dezakezu bere propietateak egiaztatuz (sakatu **Menú > Propiedades**).

Fitxategiak telefonora kopiatzea

Windows Media Player-en mahaigaineko bertsioko **Sinc** ezaugarria erabili, PCtik telefonora multimedia fitxategi digitalak sinkronizatzeko (kopiatzeko) **Sinc** erabiltzeak ziurtatzen du fitxategi babestuak eta albuma (maskarentzat) zure telefonoan ongi kopiatuko direla.

Zure telefonoko edukia automatikoki sinkronizatzeko


1. Ireki PCko Windows Media Player.
2. Sartu telefonoan 32 Mb edo gehiagoko biltegitratze-txartela eta konektatu telefonoa PCra.
3. Telefonoaren eta ordenagailuaren arteko sinkronizazioa ez baduzu konfiguratu, gailua konfiguratze laguntzailea irekiko da PCan.
4. Laguntzailean, sakatu **Automático**, hautatu **Personalizar las listas de reproducción que se van a sincronizar** egiaztatze-laukia eta hautatu sinkronizatu nahi dituzun erreprodukzio-zerrendak.
5. Sakatu **Finalizar**.

6. Fitxategiak zure gailuan sinkronizatzen hasiko dira. Telefonoa PCra konektatzen duzun hurrengoan, Windows Media Player-en mahaigaineko bertsioa abian dela, automatikoki hasiko da sinkronizatzen.

Edukia telefonora eskuz sinkronizatzeko eta kopiatzeko

1. Telefonoaren eta PCaren arteko sinkronizazioa ez baduzu konfiguratu, jarraitu “Zure telefonoko edukia automatikoki sinkronizatzeko” ataleko 1-5 urratsak, baina sinkronizazioan **Manual** gisa konfiguratu behar duzu.
2. Telefonora sinkronizatu beharreko fitxategiak hautatzeko, hau egin:
 - Egin klik **Biblioteca** Fitxan.
 - Eskuin muturrean dagoen panelean, egin klik goitibeherako zerrendan eta hautatu **Lista de sincronización**.
 - Panelean ezkerrerago dagoen Lista de reproducción atalean, hautatu nahi duzun erreprodukzio-zerrenda.

Erreprodukzio-
zerrenda



Fitxategi-zerrenda

Sinkronizazio-zerrenda

- Erdiko paneleko fitxategi-zerrendatik hautatu eta lerratu sinkronizazio-zerrendara gehitu nahi dituzun fitxategiak.
- Egin klik Lista de sincronización-en beheko aldean dagoen **Iniciar sincronización** botoia.

Oharrak

- Mahaigaineko Windows Media Player-en mahaigaineko bertsioa erabili beti telefonora fitxategiak sinkronizatzeko (kopiatzeko). Esaterako, ez erabili Windows Explorer fitxategiak PCtik telefonora lerratu eta han ezartzeko.
- Sinkronizatu beti fitxategiak gailuan instalatutako biltegitarte-txartel batekin. Ez sinkronizatu txartel-irakurgailuan sartuta dagoen biltegitarte-txartelen irakurgailuan.
- Audio-fitxategiak azkarrago kopiatzen dira mahaigaineko Player-a telefonora kopiatzeko fitxategien kalitatea automatikoki definitzeko konfiguraturata bada. Informazio gehiagorako, kontsultatu mahaigaineko Player-aren laguntza.
- Windows Media Player 10en mahaigaineko bertsioa Windows XP erabiltzen duten ordenagailuentzat bakarrik dago eskuragarri. Zure PCak ez badu Windows XP erabiltzen, erabili Windows Media Player 9ren **Copiar al CD o dispositivo** ezaugarria, audio-fitxategiak eta bideoak telefonora kopiatzeko.
- Windows Media Player 9 Series-en mahaigaineko bertsioa ez da 10. bertsioa bezain osoa. Esaterako, mahaigainerako 9. bertsioak ez du sinkronizazio automatikoa, erreprodukzio-zerrenden sinkronizazioa edo Windows XP Media Center Edition duten ordenagailuetan grabatutako TB programen sinkronizazioa onartzen.
- **Copiar al CD** o dispositivo ezaugarriari buruz informazio gehiago izateko, abiarazi Windows Media Player 9 Series-en mahaigaineko bertsioa eta sakatu F1.

Ikus-entzunezkoak erreproduzitzea

Telefonoan ikus-entzunezkoak erreproduzitzeko

Erabili liburutegia zure telefonoan edo biltegitarte-txartel aldagarrian gordetako musika, bideoak eta erreprodukzio-zerrendak aurkitzeko eta erreproduzitzeko.

1. Biblioteka pantailan ez bazaude, sakatu **Menú > Biblioteka**.
2. Beharrezkoa bada, Biblioteka pantailan sakatu **Menú > Biblioteka** eta hautatu erabili nahi duzun liburutegai (esaterako, **Tarjeta de almacenamiento**).

3. Kasu gehienetan, Windows Media Player Mobile-k automatikoki eguneratzen du liburutegia. Hala ere, eskuz eguneratzeko aukera duzu, gailuan edo biltegiatze-txartelean duela gutxi kopiatutako artxibo berriak dituzula ziurtatzeko. Sakatu **Menú > Actualizar biblioteca** liburutegiaren zerrenda eskuz eguneratzeko.
4. Sakatu kategoria bat (adibidez, **Mi música** edo **Mis listas de reproducción**), sakatuta izan erreproduzitu nahi duzun elementua (musika, albuma edo artistaren izena) eta gero sakatu **Reproducir**.

Oharra Zure gailuan gordeta dagoen baina liburutegietan ez dagoen fitxategi bat erreproduzitzeko, Liburutegia pantailan sakatu **Menú > Abrir archivo**. Hautatu erreproduzitu nahi duzun elementua (fitxategi bat edo karpeta bat), eta sakatu **Reproducir**.

Ikus-entzunezkoak sarean erreproduzitzeko

Erabili **Abrir dirección URL** komandoa Interneten edo sare-zerbitzari batean gordeta dagoen musika edo bideoa erreproduzitzeko.

1. Biblioteca pantailan ez bazaude, sakatu **Menú > Biblioteca**.
2. Sakatu **Menú > Abrir dirección URL**.
3. Hauta ezazu aukera hauetako bat:
 - **URL** atalean, sartu sareko helbide bat.
 - **Historial** atalean, hautatu lehenagotik erabili duzun URL helbide bat.

Oharra Ikus-entzunezkoak sarean erreproduzitzeko, telefonoa sareari konektatuta egon behar da.

Erreproduzitailearen itxura aldatzea

Erreprodukzio-pantailaren itxura alda dezakezu beste maskara bat hautatuz.

1. Erreprodukzio-pantailan ez bazaude, sakatu **Atras**, bistartzeko.
2. Egin klik **Menú > Opciones > Máscaras** aukeran.
3. Maskara bat hautatzeko, sakatu ezkerreko edo eskuineko NABIGAZIOA erabili nahi duzun maskara aurkitu arte.
4. Egin klik **Listo** aukeran.

Oharra

- Maskara berriak deskargatzeko, sartu WMplugins.com (<http://www.wmplugins.com>) gunera.
- Ordenagailura maskara bat deskargatu eta deskonprimatzean (hala egin behar bada), ActiveSync erabili .skn eta .bmp fitxategiak telefonora kopiatzeko (telefonoko **Smartphone\Archivos de programas\Windows Media Player** tokian adibidez). Maskarak Mascaras fitxategian agertzen direla ziurtatzeko, ez gorde maskara-fitxategiak telefonoaren Windows karpetan.

Arazoen konponketak

Windows Media Player Mobile erabiltzean zailtasunen batekin topo egiten baduzu, sarean baliabide ugari daude arazoa ebazten laguntzeko, galdera ohikoenen zerrenda (FAQ) barne.

Informazio gehiagorako, kontsultatu Microsoften Web gunean Windows Media Player-en Arazoak konpontzeko orrialdea: (<http://www.microsoft.com/windows/windowsmedia/player/windowsmobile/troubleshooting.aspx>).

7.4 Midlet Manager erabiltzea

MIDlet-ak gailu mugikorretan exekuta daitezkeen Java aplikazioak dira. Zure telefonoa Java 2 Edition-ekin (J2ME) bateragarria da. Javak Java aplikazioetan oinarritutako fitxategiak deskargatzeko aukera ematen dizu, gailu mugikorrentzat berariaz diseinatutako jokoak eta tresnak kasu. Javak Internetetik beste J2ME aplikazio batzuk instalatzeko eta administratzeko malgutasuna eskaintzen du.

MIDlet-ak Internetetik instalatzeko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Midlet Manager** aukeran. Java Apps. pantaila agertuko da.
2. Sakatu **Menú > Instalar > Explorar**, Internet Explorer Mobile irekitzeko.
3. Lokaliza ezazu MIDlet/MIDlet multzoa Interneten konektatuta zaudela.
4. Hautatu MIDlet/MIDlet multzoa behera kargatzeko.
5. MIDlet/MIDlet multzoaren instalazioa abiarazteko, sakatu **Si**.
6. Sakatu **Listo** instalazioa baieztatzeko.

Oharrak

- Instalazioa edozein unetan utzi dezakezu.
- Deskargatutako MIDlet-ak Mis documentos karpetan gordeko dira automatikoki.

MIDlet-ak PC batetik instalatzeko

MIDlets/MIDlet multzoak PC batetik instalatu ditzakezu telefonoan, USB sinkronizazio-kablea edo Bluetooth erabilita. Bluetooth bidez edo mezu elektronikoa batean atxikita telefonora kopia egindako MIDlet-ak My Documents karpetan gordetzen dira automatikoki. Hala ere, MIDlet artxiboa(k) PCtik telefonora aldi baterako karpeta hauetako edozeinetara kopia ditzakezu eta Java-k horietatik instalatu ditzake:

- Gailuaren memoria: ../Smartphone/Mis documentos/Mis MIDlets
- Biltegitarte-txartela: ../Smartphone/Tarjeta de almacenamiento

Oharra Mis Documentos-en Mis MIDlets karpetarik ez bada, zerorrek sor dezakezu bat izen horrekin. Hala ere, Biltegitarte-txartela izeneko karpeta bat automatikoki agertzen da telefonoan biltegitarte-txartel bat instalatu ondoren.

MIDlet-ak karpeta lokal batetik instalatzeko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Midlet Manager** aukeran. Java Apps. pantaila agertuko da.
2. Sakatu **Menú > Instalar > Local** Mis MIDlets karpetan gordetako MIDlet-ak instalatzeko. Sakatu **Reciente** telefonoan duela gutxi erabilitako MIDlet-ak edo Midlet-multzoa ikusteko.
3. Hautatu MIDlet/MIDlet multzoa zerrendatik, NABIGAZIO-KONTROLA erabilita.
4. Egin klik **Menú > Instalar** aukeran.
5. Instalatzeko, sakatu **Si**.
6. Sakatu **Listo** instalazioa baieztatzeko.

Oharra Aurrez zehaztutako karpetatik MIDlet fitxategiak kentzeko, sakatu **Menú > Eliminar**.



Midlet Manager

Telefonoan MIDlet-ak exekutatzeko

2. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Midlet Manager** aukeran.

Java Apps. pantaila agertuko da.

2. Hautatu MIDlet bat zerrendatik, NABIGAZIO-KONTROLA erabilia.
3. Sakatu ENTRAR botoia MIDlet-a exekutatzeko.

Unean exekutatzen ari diren MIDlet-ak ikusteko

- Java Apps pantailan, sakatu **Menú > En ejecución**.

Oharra Erabilitako azken MIDlet-ak ikusteko, sakatu **Mostrar > Reciente**.

MIDlet baten exekuzioa geldiarazteko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Midlet Manager** aukeran.
Java Apps. pantaila agertuko da.
2. Egin klik **Menú > En ejecución** aukeran.
3. Hautatu MIDlet bat exekutatzen ari diren MIDlet-en pantailan, eta sakatu **Menú > Detener**.

Oharra Une honetan exekutatzen ari diren MIDlet guztiak geldiarazteko, sakatu **Menú > Detener todo**.

MIDlet-ak administratzea

MIDlet-ak multzotan antolatu eta multzo pertsonalatuak definitu ditzakezu. Halaber, MIDlet baten pantaila-konfigurazio lehenetsia alda dezakezu.

Pantailaren konfigurazioa pertsonalizatzeko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Midlet Manager** aukeran.
Java Apps. pantaila agertuko da.

2. Sakatu **Menú > Configuración**.
3. Configuración pantailan, hautatu Opciones de pantalla, NABIGAZIO-KONTROLA erabilita.
4. Sakatu ENTRAR botoia.
5. **Ver opciones** atalean, hautatu nola erakutsi MIDlet-ak, taldeka edo guztiak batera.
6. **Opciones de ordenar** atalean, hautatu ordenaren edo tamainaren arabera ordenatzea.
7. Egin klik **Listo** aukeran.

MIDlet baten aurkezpen-izena aldatzeko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Midlet Manager** aukeran.
Java Apps. pantaila agertuko da.
2. Hautatu MIDlet bat NABIGAZIO-KONTROLA erabilita.
3. Egin klik **Menú > Cambiar nombre** aukeran.
4. Jarri izen berria MIDlet-ari.
5. Egin klik **Listo** aukeran.

Oharra MIDlet multzo osoari ezin zaio izena aldatu.

MIDlet bat desinstalatzeko

MIDlet/MIDlet multzo bat desinstalatu aurretik, ziurta ezazu ez dela exekututzen ari.

1. Java Apps pantailan, hautatu MIDlet/MIDlet multzoa NABIGAZIO-KONTROLA erabilita.
2. Egin klik **Menú > Administrar > Desinstalar** aukeran.
3. Sakatu **Aceptar** berresteko.

Oharra Ezin da MIDlet multzo bateko MIDlet bakar bat desinstalatu, MIDlet multzo osoa desinstalatu behar duzu.

Biltegiatze-tokia egiaztatzeko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Midlet Manager** aukeran.
2. Hautatu MIDlet bat NABIGAZIO-KONTROLA erabilita.
3. Java Apps pantailan, sakatu **Menú > Configuración**.
4. Configuración pantailan, hautatu **Información del sistema**, NABIGAZIO-KONTROLA erabilita.

5. Sakatu ENTRAR botoia, MIDlet-ak telefonoaren zer biltegiratze-toki erabili duen jakiteko.
6. Sakatu **Aceptar**.

Sare mota bat aukeratzeko

1. **Java Apps** pantailan, sakatu **Menú > Configuración**.
2. Hautatu **Elegir tipo de red** NABIGAZIO-KONTROLA erabilita.
3. Hautatu sare-mota zerrendatik.
4. Sakatu **Seleccionar**.

MIDlet-aren segurtasuna konfiguratzeko

MIDlet/MIDlet multzo bakoitzaren segurtasun-konfigurazioa egokitu dezakezu.

1. Java Apps pantailan, hautatu MIDlet/MIDlet multzoa NABIGAZIO-KONTROLA erabilita.
2. Egin klik **Menú > Administrar > Seguridad** aukeran.
3. Konfiguratu segurtasun-aukerak, esaterako: **Conectividad local, Aplicar funcionamiento automático, Mensajería** eta abar.

Kontuan izan litekeena dela zenbait funtzio erabilgarri ez izatea MIDlet/MIDlet multzo guztietan. Hauek dira exekutatzen ari den MIDlet/MIDlet multzo batentzat ezar ditzakezun segurtasun-aukerak.

Segurtasun-aukera	Deskribapena
Acceso a la red	MIDlet/MIDlet multzo bat bat Internetera sar daitekeen zehazten du.
Conectividad local	MIDlet/MIDlet multzo bat Bluetooth moduko zerbitzuetara sar daitekeen zehazten du.
Aplicar funcionamiento automático	MIDlet/MIDlet multzo bat une jakinetan edo edozein unetan exekutatu nahi den erabakitzeko
Mensajería	MIDlet/MIDlet multzo batek testu-mezuak (SMSak, mezu laburren zerbitzua) bidali eta/jedo jaso ditzakeen zehazten du.
Grabación multimedia	MIDlet/MIDlet multzo batek hotsak eta irudiak grabatzea ahalbidetzen du.

Errore-mezuak

Honako errore-mezu hauek jaso ditzakezu MIDlet/MIDlet multzoak telefonoan kudeatzen eta erabiltzen dituzun bitartean.

Errore-mezuak	Deskribapena
RAM insuficiente, o espacio insuficiente en el sistema de archivos	Ez dago nahikoa memoria telefonoan.
Red desconectada.	Ez da sareko konexiorik erabilgarri.
El tamaño de jar no corresponde al indicado en el jad	MIDlet-aren fabrikatzaileak emandako instalazio-informazioa ez da egokia.
El manifiesto jar no corresponde al jad	MIDlet-aren fabrikatzaileak emandako instalazio-informazioa ez da egokia.
Descriptor de aplicación Java (jd) no válido	MIDlet-aren fabrikatzaileak emandako instalazio-fitxategiarekin arazo bat dago.
Archivo Java (jar) no válido	MIDlet-aren fabrikatzaileak emandako instalazio-fitxategiarekin arazo bat dago.
Esta aplicación Java no es compatible con este dispositivo	MIDlet horrek eskatutako aukera bat edo gehiago ez daude erabilgarri telefonoan.


8. kapitulua

Beste aplikazio batzuk erabiltzea

8.1 ClearVue Suite erabiltzea

8.2 Markaketa bizkorra erabiltzea

8.3 Voice Speed Dial erabiltzea



8.1 ClearVue Suite erabiltzea

Lau aplikaziok osatzen dute ClearVue Suite, eta askotariko dokumentu-motak ikusteko aukera ematen du: Word, PowerPoint-eko aurkezpenak, Excel-eko kalkulu-orriak eta Acrobat-eko PDF fitxategiak. ClearVue Suite-ren osagaiak:

- ClearVue Presentation (PowerPoint-eko fitxategiak bistaratzen ditu)
- ClearVue Worksheet (Excel-eko fitxategiak bistaratzen ditu)
- ClearVue Document (Word-eko fitxategiak bistaratzen ditu)
- ClearVue PDF (Acrobat PDF-ko fitxategiak bistaratzen ditu)

ClearVue Suite-n sartzeko, sakatu **Inicio > Office**; ondoren, hautatu ireki nahi duzun programa.

Oharra PowerPoint, Word, Excel eta Acrobat-en edizio guztien bertsio, ezaugarri, letra-mota eta kolore guztiak ez dira bateragarriak, baina ahalik eta antzekoena bistaratzen du ClearVue-k.

ClearVue Presentation

Power Point-en bistaratze-irtenbide osoa da ClearVue Presentation, eta Power Point-eko aurkezpen originalak ikusteko aukera ematen du. ClearVue Presentation-en bidez, animazio eta trantsizio eta guzti ikusiko duzu aurkezpen original osoa.

Oharra Office 97n edo bertsio berriago batean sortutako PowerPoint fitxategiak baino ez ditu onartzen ClearVue Presentation sistemak.

Aurkezpen-fitxategi bat irekitzeko

1. Sakatu **Archivo > Abrir**, eta, gero, bilatu **.ppt** edo **.pps** fitxategia.
2. Egin klik **Abrir** aukeran.

Ikuspegia aldatzeko

Aurkezpen-fitxategia 3 modutan ikusteko aukera ematen du ClearVue Presentation-ek. Sakatu **Ver** eta hautatu **Normal, Clasificador de diapositivas** edo **Notas**.

- **Normal.** Uneko diapositibaren irudi handitua eta sinplea bistaratzen ditu, eta, haren azpian, aurkezpenari dagozkion beste diapositiba batzuen miniaturazko irudiak agertzen dira.

- **Clasificador de diapositivas.** Diapositibak miniaturan agertzen dira.
- **Oharrak.** Gordetako edozein diapositibaren aurkezpen originala ikus dezakezu.

Ikusteko moduaren zooma aldatzeko

- Sakatu **Ver** > **Escala**.

Oharra Normal eta Notas ikuspegiei soilik aplikatzen zaie hori.

Zure diapositiba-aurkezpena konfiguratzeko

1. Sakatu **Ver** > **Configurar presentación**.
2. **Avance de diapositivas** aukeran, aukeratu nola egin nahi duzun aurrera hurrengo diapositiba ikusteko.
 - **Eskuz.** Sakatu eskuineko nabigazio-tekla, diapositiba batetik bestera aurrera egiteko.
 - **Usar intervalos.** Power Point fitxategia duen informazioa erabiltzen du diapositiba batetik bestera pasatzeko.
 - **Automáticamente.** Automatikoki joaten da hurrengo diapositibara, **tras __ s** aukeran zehaztutako denbora-tartearen arabera.

Iradokizuna Sakatu **Bucle continuo**, aurkezpena errepikatzeko. Aurkezpena eskuz geratu behar da. Aurkezpena nola geratzen den zehatzago jakiteko, ikus "Aurkezpena ikusteko".

3. Hautatu **Orientación**, aurkezpena ikusten duzunean.
4. Sakatu **Diapositiva negra al final**, aurkezpeneko azken diapositibaren ondoren diapositiba zuri bat sartzeko.

Aurkezpen pertsonalizatu bat konfiguratzeko

1. Sakatu **Ver** > **Presentación personalizada**.
2. **Lista de presentaciones** aukeran, hautatu editatu nahi duzun diapositiba, eta, gero, sakatu **Menú**. Menuko aukeren arabera, hau egin dezakezu diapositibekin: agregar, eliminar, ocultar, subir edo bajar.

Iradokizuna Sakatu **Restablecer**, aurkezpenaren ordena jatorrizko egoerara aldatzeko.

Aurkezpena ikusteko

- Sakatu **Ver** > **Ver Presentación**.

Iradokizuna Aurkezpena ikusten duzun bitartean, sakatu # tekla menu bat irekitzeko; aurkezpeneko hurrengo edo aurreko diapositibara joan, diapositiba jakin batera joan edo aurkezpena amaitu ahal izango duzu.

ClearVue Worksheet

Excel-eko kalkulu-orri originalak ikus ditzakezu ClearVue Worksheet-ekin. Grafikoen orriez gain, hango grafikoak ere ikus ditzakezu.

Oharrak

- Office 97n edo bertsio berriago batean sortutako Excel fitxategiak baino ez ditu onartzen ClearVue Worksheet sistemak.
- Jatorrizko fitxategian egon daitezkeen Excel-eko markoak ez dira exekutatuko kargatzean.
- Hiru dimentsioko grafikoak bi dimentsioko bihurtuko dira.
- Kalkulu-orriak ez ditu bistaratzen hautatutako irudiak hondo gisa autoforma batean.
- Kalkulu-orriek ezin dituzte ireki pasahitz bidez babestutako fitxategiak; Microsoft Excel-en “Opciones para guardar” atalean dago pasahitza konfiguratzeko aukera.

Kalkulu-orri baten fitxategia irekitzeko

- 1. Archivo** > **Abrir**, eta gero, bilatu **.xls** fitxategia.
- 2.** Egin klik **Abrir** aukeran.

Zoom-erlazioa aldatzeko

- Sakatu **Ver**, eta, gero, hautatu handipen bat.

Kalkulu-orriaren fitxategian beste orri bat ikusteko

- Sakatu **Ver** > **Hoja**, eta, gero, hautatu ikusi nahi duzun orria.

ClearVue Document

ClearVue Document programari esker, Word-eko dokumentuak, osoak eta tauladunak, irudiak, zutabeak, binetadun zerrendak eta abar ikus ditzakezu.

Oharra Office 97n edo bertsio berriago batean sortutako Word fitxategiak baino ez ditu onartzen ClearVue Document sistemak.

Dokumentu-fitxategi bat irekitzeko

1. Sakatu **Archivo** > **Abrir**, eta, gero, bilatu **.doc** edo **.rtf** fitxategia.
2. Egin klik **Abrir** aukeran.

ClearVue Document-en fitxategi bat ireki eta gero, **Ancho de página** konfigurazio lehenetsia erabiliz agertzen da hori. Horrek esan nahi du orria dimentsionatuta dagoela zure telefonoko pantailara egokitzeko.

Sakatu **Zoom**, handipena aldatzeko, eta zoaz dokumentura eta ikusi telefonoko nabigazio-teklak erabiliz.

ClearVue PDF

PDF fitxategiak zure telefonoan ikusteko aukera ematen dizu ClearVue PDF programak.

PDF fitxategiak irekitzeko

1. Sakatu **Archivo** > **Abrir**, eta, gero, bilatu **.pdf** fitxategia.
2. Egin klik **Abrir** aukeran.

ClearVue PDF-n fitxategi bat ireki eta gero, **Ancho de página** konfigurazio lehenetsia erabiliz agertzen da hori. Horrek esan nahi du orria dimentsionatuta dagoela zure telefonoko pantailara egokitzeko.

Sakatu **Zoom**, handipena aldatzeko, eta zoaz PDF dokumentura eta ikusi telefonoko nabigazio-teklak erabiliz.

8.2 Markaketa bizkorra erabiltzea

Markaketa bizkorreko sarrerak sor ditzakezu maizen markatzen dituzun zenbakientzat edo gehien erabiltzen dituzun elementuentzat; hala, tekla bat sakatzea aski izango duzu horietara sartzeko.

Kontaktatu batentzako markaketa bizkorreko sarrera sortzeko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Contactos** aukeran.
2. Hautatu kontaktua.
3. Sakatu ENTRAR, kontaktuaren xehetasunak ikusteko.
4. Hautatu telefono-zenbakia, eta sakatu **Menú > Agregar a mercado rápido**.
5. Sartu xehetasun egokiak Nombre, Valor eta asignación de teclado ataletan.
6. Egin klik **Listo** aukeran. Prozesuan zehar edozein unetan ateratzeko, sakatu **Menú > Cancelar**.

Oharra Kontaktuen zerrendan gordetako zenbakientzat bakarrik sor daitezke markaketa bizkorreko sarrerak.

Elementu batentzako markaketa bizkorreko sarrera sortzeko

1. Pantaila nagusian, sakatu **Inicio**; garo, hautatu elementua (nabarmendu soilik).
2. Egin klik **Menú > Agregar mercado rápido** aukeran.
3. Sartu xehetasunak Nombre, Valor eta asignación de teclado ataletan.
4. Egin klik **Listo** aukeran. Prozesuan zehar edozein unetan ateratzeko, sakatu **Menú > Cancelar**.

Oharra Markaketa bizkorreko lehen kokapena ahots-postontziarentzat gordetzen da normalean. Lehenespenez, libre dagoen hurrengo kokapena hautatzen du markaketa bizkorrak. Lehendik erabilia dagoen kokapen batean beste zenbaki bat ezarri nahi baduzu, aurrekoa ordeztuko du horrek.

Ahots-mezuak entzuteko

- Pantaila nagusian, luze sakatu 1 tekla, ahots-postontzira sartzeko, eta jarraitu mezuak entzuteko jarraibideei.

Dei bat egiteko edo programa bat markaketa bizkorra erabiliz irekitzeko

- Kontaktatu bati edo programa bati markaketa bizkorra esleitu badiezu (adibidez, bigarren kokapena), 2 tekla luze sakatu besterik ez duzu egin behar kontaktuaren zenbakia markatzeko edo programa irekitzeko.

Markaketa bizkorreko sarrera bat ezabatzeko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Experto > Mercado rápido** aukeran.
2. Hautatu sarrera, eta sakatu **Menú > Eliminar**.

8.3 Voice Speed Dial erabiltzea

Ahots-komandoak graba ditzakezu kontaktuetan gordetako telefono-zenbakientzat, helbide elektronikoentzat edo web orriaren helbideentzat. Orduan, markaketa bizkorra erabiliz ahots-komandoa esatean telefonoak, automatikoki, horri dagokion telefono-zenbakia markatuko du, egokitutako helbidea erabiliz mezu elektronikoa irekiko du edo dagokion web orrira joango da.

Kontaktuetako telefono-zenbakientzako, helbide elektronikoentzako edo URLentzako ahots-komandoak sortzeko

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio > Contactos** aukeran.
2. Hautatu kontaktua eta sakatu ENTRAR kontaktuaren txartela irekitzeko.

Oharra Kontaktuak Contactos karpetan egon behar du, eta ez SIM txartelean.

3. Hautatu zer elementuri esleitu nahi diozun ahots komandoa.
4. Sakatu **Menú > AgregarComando de voz**.
5. Soinuaren ondoren, hasi ahots-komandoa grabatzen (ahal izanez gero, erraz ezagutzeko moduko hitz bat).
6. Ahots-komandoa behar bezala entrenatuta badago, telefonoak erreproduzitu egingo du. Sakatu **Aceptar**.
7. Sartu xehetasun egokiak Nombre, Valor eta asignación de teclado ataletan.

8. Sakatu **Listo**, ahots-komando berria gordetzeko. Prozesuan zehar edozein unetan ateratzeko, sakatu **Menú** > **Cancelar**.

Programa batentzat ahots-komando bat sortzeko

Programa batentzat (Calendario-rentzat, adibidez) ahots-komando bat sortzeko, egin hau:

1. Pantaila nagusian, egin klik **Inicio** > **Calendario** aukeran. (Ez sakatu ENTRAR, Calendario hautatuta dagoenean).
2. Sakatu **Menú** > **Agregar comando de voz**.
3. Mezuaren/soinuaren ondoren, esan "Calendario".
4. Ahots-komandoa behar bezala entrenatuta badago, telefonoak erreproduzitu egingo du. Sakatu **Aceptar**.
5. Sartu xehetasun egokiak Nombre, Valor eta asignación de teclado ataletan. Sakatu **Listo**, ahots-komando berria gordetzeko. Prozesuan zehar edozein unetan ateratzeko, sakatu **Menú** > **Cancelar**.

Ahots-komandoa erabiliz dei bat egiteko edo programa bat irekitzeko

1. Egin klik **Inicio** > **Agregar mercado rápido** aukeran.
2. Soinu bereizgarriaren ondoren, esan deitu nahi duzun telefonoari edo abiarazi nahi duzun programari esleitutako ahots-komandoa. Telefonoak ahots-komandoa erreproduzituko du, eta, gero, dagokion zenbakia markatu edo dagokion programa irekiko du.

Iradokizuna Sistemak ahots-komandoa ezagutzen ez bdau, saiatu berriz argi hitz eginez eta inguruko soinua ahalik eta gehiena murriztuz.

Ahots-komandoak editatzeko, ezabatzeko eta erreproduzitzeko

- Pantaila nagusian, egin klik **Inicio** > **Experto** > **Mercado rápido** aukeran.
- Hautatu ahots-komandoa zerrendan.
- Egin kasu jarraibide hauetako bati:
 - Ahots-komandoa aldatzeko, sakatu **Menú** > **Editar**, egin aldaketak eta sakatu **Listo**.
 - Ahots-komandoa ezabatzeko, sakatu **Menú** > **Eliminar**.

Lehendik dagoen ahots-komando bat aldi berean erreproduzitzeko, sakatu **Menú** > **Reproducir comando de voz**.

Eranskina

A.1 Arauei buruzko oharra

A.2 PCaren baldintzak ActiveSync 4.x exekutatzeko

A.3 Zehaztapenak

A.1 Arauei buruzko oharra

Araudi-agentzien identifikazioa

Araudietan identifikatzeko, zure produktuak EXCA200 modelo-zenbakia du.

Zure EXCA200 gailuak etengabe eta era fidagarri eta seguruan funtziona dezan bermatzeko, osagarri hauek bakarrik erabili.

Bateriari EXCA160 modelo-zenbakia esleitu zaio.

Produktu hau 2. motako energia-hornikuntza mugatuko unitatearekin erabili behar da, CCKo 5 V-ko tentsioarekin eta 1 amperioko gehienezko korrontearekin.

Europako Batasunaren oharra

CE bereizgarria duten produktuek Europako Erkidegoko Batzordeak idatzitako R&TTE (99/5/EE) Direktiba, EMC (89/336/EEE) Direktiba eta behe-tentsioari buruzko Direktiba (73/23/CEE) betetzen dituzte.

Direktiba horiek betetzeak Europako arau hauek betetzen direla esan nahi du:

- EN 60950-1 (IEC 60950-1) – Safety of Information Technology Equipment – Informazio-teknologiako ekipoen segurtasuna.
- ETSI EN 300 328 ERM (Electromagnetic compatibility and Radio spectrum Matters - Bateragarritasun elektromagnetikoa eta irradi-espektoaren materiak (ERM); Banda zabaleko transmisio-sistemak; 2,4 GHz-ko ISM bandan aritzen diren eta espekto hedatuko modulazio-teknikak erabiltzen dituzten datu-transmisioko ekipamenduak.
- ETSI EN 301 511 – GSM (Global System for Mobile communications - Komunikazio mugikorrenzako sistema globala (GSM); EN, GSM 900 eta DCS 1800 bandetako estazio mugikorrenzat bateratua. Arau horrek R&TTE (1999/5/CE) Direktibaren 3.2 artikuluko funtsezko eskakizunak betetzen ditu.
- ETSI EN 301 489-1 (Electromagnetic compatibility and Radio spectrum Matters – Bateragarritasun elektromagnetikoarek eta espekto irradi-elektrikoei buruzko alderdiak; EMC (Electromagnetic compatibility – Bateragarritasun elektromagnetikoa) irradi-ekipoetarako eta –zerbitzuetarako bateragarritasun elektronikoko estandarrari buruzko araua. 1 zatia: baldintza tekniko komunak.

- ETSI EN 301 489-7 – ERM (Electromagnetic compatibility and Radio spectrum Matters – Bateragarritasun elektromagnetikoei eta espektror irratielektrikoei buruzko aldedirak; EMC (Electromagnetic Compatibility for radio equipment and services – Irratiekipoetarako eta –zerbitzuetarako bateragarritasuna); 7. zatia: irratie mugikor eta eramangarrien eta irratie digital eta zelulareen ekipo osagarrien komunikazio-sistemetarako baldintza espezifikoak (GSM eta DCS).
- ETSI EN 301 489-17 (Electromagnetic compatibility and Radio spectrum Matters – Bateragarritasun elektromagnetikoareie eta espektror irratielektrikoei buruzko alderdiak; EMC (Electromagnetic compatibility – Bateragarritasun elektromagnetikoea) irratie-ekipoetarako eta –zerbitzuetarako bateragarritasun elektronikoe estandarrarie buruzko araua. 17 zatia: 2,4 GHz-eko banda zabaleko transmisio sistemenezko baldintza bereziak.
- EN 50360 -2001 – Produktuaren arauak frogatu behar du betetzen dituela eremu elektromagnetikoe esposizioarie dagokionez telefono mugikorrek dituzten oinarrizko mugak (300 MHz eta 3 GHz bitartean).



Herrialde hauetan erabil daiteke ekipo hau:

AT	BE	BG	CH	CY	CZ	DE	DK
EE	ES	FI	FR	GB	GR	HU	IE
IT	IS	LI	LT	LU	LV	MT	NL
NO	PL	PT	RO	SE	SI	SK	TR

Segurtasun-neurriak irrati-maiztasunarekiko esposiziorako

Fabrikatzaileak onartutako jatorrizko osagarriak edo metalik ez dutenak bakarrik erabili.

Jatorrizko fabrikatzaileak onartu ez dituen osagarriak erabiltzeak irrati-maiztasunarekiko esposizioari buruzko arau lokalak hautsi ditzake.

Mantentze-lanen oharren markak

Ez egin produktuetan funtzionamenduko edo mantentze-lanetako dokumentazioan adierazten ez den mantentze-lanik. Zati horien barruko osagaiak hornitzaile edo mantentze-lanetako teknikari baimenduek konpondu behar dituzte.

Mantentze-lana behar duten kalteak

Deskonektatu produktua korrante-hartunetik eta jakinarazi hornitzaile edo mantentze-lanetako teknikari baimenduari kasu hauetakoren batean:

- Produktuaren barrura likidoa isuri edo objekturen bat erori da.
- Produktua euritan edo uretan egon da.
- Produktua erori edo hondatu egin da.
- Gehiegi berotu izanaren aztarnak daude.
- Funtzionamendu-argibideak jarraitu arren, produktuak ez du ongi funtzionatzen.

Haririk gabeko telefono mugikorren esposizioari buruzko arauak SAR **(Specific Absorption Rate – Absortzio-tasa espezifikoa)** izenez ezagutzen da.

Arauk segurtasun-tarte handia du publikoari babes gehigarria eskaintzeko, baita erabileraren edozein aldaketa kontuan hartzeko ere. Irrati-errendimendua eta interferentzia-segurtasuna baino ez dituzte bermatzen ohiko kondizioek. Gainerako ekipamendu bezala, produktu hau modu seguruan erabiltzeko eta segurtasun pertsonalerako, erabiltzaileei gomendatzen zaie antena gorputzetik gertuegi ez edukitzea operazioak egiten direnean.

SARi buruzko informazioa

- 0,918mW/g @ 10g

TIA-ren (Telecommunications & Internet Association – Telekomunikazioen eta Internetaren Elkarte) segurtasun-informazioa

Taupada-markagailua

Health Industry Manufacturers Association-ek (Osasun-industriako fabrikatzaileen elkarteak) gomendatzen du, 6 hazbeteko tarteak egon behar dela haririk gabeko mugikor baten eta taupada-markagailu baten artean, azken horiekin interferentziarik egon ez dadin. Gomendio horiek bat egiten dute ikerketa independenteen emaitzekin, baita Wireless Technology Research-ek (Haririk gabeko teknologiaren ikerketa) egindako gomendioekin ere. Taupada-markagailua duten pertsonak:

- telefonoa piztuta dagoen GUZTIETAN, taupada-markagailutik sei hazbeteko tartearekin eduki behar du.
- Ez eraman telefonoa bularraldeko sakeletan.
- Taupada-markagailuaren kontrako aldeko belarria erabili beharko dute interferentziak izateko aukera murrizteko. Interferentziak egon daitezkeela susmatzen badugu, itzali telefono mugikorra berehala.

Entzumen-aparatuak

Zenbait telefono mugikorrek interferentziak sor ditzakete entzuteko zenbait aparaturekin. Interferentzia-mota hori badago, kontsultatu zerbitzuaren hornitzaileari edo deitu bezeroaren arretarako zerbitzuari, bestelako aukerak aztertzeko.

Beste gailu mediko batzuk

Bestelako ekipamendu mediko pertsonalen bat erabiltzen baduzu, kontsultatu gailuaren fabrikatzailea, kanpoko irrati-maiztasunaren energiaren aurka behar bezala babestuta zauden jakiteko. Zure medikuak lagun diezazuke informazio hori eskuratzen.

Itzali telefonoa eremu horietan hala egitea adierazten duten argibideak badaude. Baliteke ospitaleak eta klinika medikoak kanpoko irrati-maiztasunaren energiarekiko sentikorrek diren ekipoa erabiltzea.

Bestelako iradokizunak eta neurri bereziak

- Ez erabili gailua metalezko egituretatik gertu (esaterako, eraikin baten altzairuzko egitura).
- Ez erabili zure telefonoa iturri elektromagnetiko bizietatik gertu, besteak beste, mikrouhin-labeak, mikrofonoak, bozgorailuak, TB eta irratiak.
- Ez erabili telefonoa tenperatura-aldaketa bortitza gertatu ondoren.

WEEEren oharra

WEEE direktiba (Waste of Electric and Electronic Equipment – Ekipo elektrikoek eta elektronikoek hondakinak) 2003ko otsailaren 13an jarri zen indarrean lege gisa, eta ekipo elektrikoek hondakinak tratatzeko modua nabarmen aldatu zuen.

Direktiba honen helburu nagusia hondakin elektrikoak eta elektronikoak prebenitzea da, eta, gainera, hondakinen berrerabilpena, birziklatzea eta berreskuratzeko beste modu batzuk erabiltzea aintzat hartzen ditu ahalik eta gutxiena ezabatu behar izateko.

Produktuan edo bilgarrian WEEEren logotipoa (__) agertzeak adierazten du produktua ez dela bota edo deskargatu behar etxeko gainerako hondakinekin. Zuk duzu zure ekipo elektronikoek edo elektrikoek hondakina ezabatzeko ardura. Horretarako, hondakin arriskutsuak birziklatzeko bilketagunea erabili behar da. Zure ekipo elektronikoek eta elektrikoek hondakinak bereizita jasotzen eta behar bezala berreskuratzen badira, baliabide naturalak zaintzen laguntzen dugu. Gainera, ekipo elektroniko eta elektrikoek hondakinak birziklatuz gero, gizakien osasuna eta ingurumenaren segurtasuna bermatzen dira. Hondakin elektrikoak eta elektronikoak botatzeari eta berreskuratzeari buruz eta bilketaguneei buruz informazio gehiago behar izanez gero, jarri harremanetan udaleko arduradunekin, etxeko hondakinak botatzeko zerbitzuarekin, ekipoa erosi zenuen dendarekin edo ekipoaren fabrikatzailearekin.



RoHS-rekin bateragarritasuna

Produktu honek betetzen du 2002/95/EE direktiba, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2003ko urtarrilaren 27an onartua, eta haren zuzenketak; zenbait substantzia arriskutsu ekipo elektriko eta elektronikoetan (RoHS) erabiltzeko murrizketei buruzkoa da direktiba hori.

A.2 PCaren baldintzak ActiveSync 4.x exekutatzeko

Gailua PC batera konektatzeko, Microsoft® ActiveSync® programa instalatuta eduki behar du. ActiveSync 4.x-k CD bat instalatuta du eta sistema operatibo eta aplikazio hauekin bateragarria da.

- Microsoft® Windows® 2000 Service Pack 4
- Microsoft® Windows® Server 2003 Service Pack 1
- Microsoft® Windows® Server 2003 IA64 Edition Service Pack 1
- Microsoft® Windows® Server 2003 x64 Edition Service Pack 1
- Microsoft® Windows® XP Professional Service Packs 1 eta 2
- Microsoft® Windows® XP Home Service Pack 1 eta 2
- Microsoft® Windows® XP Tablet PC Edition 2005
- Microsoft® Windows® XP Media Center Edition 2005
- Microsoft® Windows® XP Professional x64 Edition
- Microsoft® Outlook® 98, Microsoft® Outlook® 2000 eta Microsoft® Outlook® XP, Mezularitza-bezeroak eta Mlicrosoft® Outlook® 2003-en laguntza
- Microsoft® Office 97, Outlook izan ezik
- Microsoft® Office 2000
- Microsoft® Office XP
- Microsoft® Office 2003
- Microsoft® Internet Explorer 4.01 edo berriagoa(ezinbestekoa)
- Microsoft® Systems Management Server 2.0

A.3 Zehaztapenak

Sistemari buruzko informazioa	
Prozesadorea/txip-multzoa	• Ti's OMAPTM 850
Memoria	<ul style="list-style-type: none"> • ROM-Nand Flash: 128 MB (estandarra) • RAM: 64 MB DDR <p>Erabiltzeko eta biltegitzeko guztira zenbat ROM eta RAM memoria dagoen adierazten dute zifrek. Memoria sistema eragileak, aplikazioek eta datuek partekatzen dutenez, memoriaren eguneko gaitasuna adierazitakoa baino txikiagoa da.</p>
Sistema eragilea	Smartphone-rako Microsoft® Windows Mobile® 5.0 bertsioa

Pantaila	
Mota	2,4 hazbeteko kristal likido transmitigarria duen bisorea, LED zuria duen atzeko argiarekin.
Bereizmena	320 x 240 puntuko bereizmena eta 65 K kolore (ikuspegi horizontala)

Lau bandako modulua GSM/GPRS/EDGE	
GSM 850	824 – 849, 894 MHz-ra
GSM 900	880 – 915, 925, 960 MHz-ra
GSM 1800	1710 – 1785, 1805, 1880 MHz-ra
GSM 1900	1850 – 1910, 1930, 1990 MHz-ra

Kameraren modulua	
Mota	1,3 megapixeiko CMOS
Bereizmena	<ul style="list-style-type: none"> • SXGA: 1280 x 1024 • VGA: 640 x 480 • QVGA: 320 x 240 • QQVGA: 160 x 120

Konexioa

E/S ataka	HTC ExtUSB® : audio-konektore bat eta 11 pin dituen mini USB bat, guztia batera. (ExtUSB konexio-interfaze patentatua da, HTCK erregistratua)
Bluetooth-a	2.0 V EDR gabe, 2 klaseko transmisio-potentzia
Wi-Fi	IEEE 802,11 b/g-rekin bateragarria, barne WLAN antena

Audioa

Mikrofonoa/bozgorailua	Mikrofonoa eta bozgorailua, hirurak batean, integratuta
Entzungailua	AAC/AMR/WMA/WAV/MP3 kodeka

Neurriak

Fisikoak	111,5 mm (altuera) x 62,5 mm (zabalera) x 12,8 mm (lodierra)
Pisua	130 g (bateria eta guzti)

Kontrolak eta argiak

Nabigazioa	5 noranzkoko nabigazio-kontrola/Entrar botoia
Botoiak	<ul style="list-style-type: none"> • Piztea/itzaltzea • JOGGR • Funtzio anitzeko ezkerreko / eskuineko tekla • Pantaila nagusia • Aurreko pantailara itzuli • Hablar botoia (deia hasi/erantzun) • Deia amaitu/teklatura blokeatu • QWERTY teklatura, 10 zutabe • Internet Explorer Mobile botoia • Funtzio-botoia
Argiak	<ul style="list-style-type: none"> • Gertakizunak jakinaraztea • Bateriaren karga-egoera. • GSM/GPRS seinaleak • Bluetooth konexioa

Zabaltzeko arteka**Micro-SD txartelaren zirrikuitua** Micro SD memoria-txartela**Energia-hornikuntza****Bateria** Litio-ioizko/litio-polimerozko bateria,
960 mAh-koa eta berriz karga
daitekeena**Hitz egiteko denbora** Gehienez 5 ordu**Zain** Gehienez 220 ordu**CA egokigailua** -CA sarrera/maiztasuna: 100-240 CA,
50/60 Hz
-CC irteera: 5V eta 1A

Aurkibidea

A

- A2DP (Advanced Audio Distribution Profile – Audio-banaketa aurreratuko profila) 84
- ActiveSync
 - ikuspegi orokorra 24, 42
 - instalatu eta konfiguratu 42
 - sinkronizatu 45
- Ahots-komandoak 161
 - ahots-komandoa editatu, ezabatu eta erreproduzitu 162
 - ahots-komandoa programa batentzat sortu 162
 - Kontaktuetako telefono-zenbakientzako, helbide elektronikozentzako edo URLentzako ahots-komandoak sortu 161
- Ahots-oharrak 26, 121
- Alarma 59
- Alarma konfiguratu 57
- Aldi baterako fitxategiak (Internet Explorer) 77
- Alertak 57
- Argazki finkoak ateratzeko moduak 129
- Argazkia (argazkiak ateratzeko modua) 125, 129
- Argazkia editatu 136
- Argazkiak ateratzeko moduak 125
- Argazkiak ateratzeko moduak 125
- Argazkien aukerak pertsonalizatu 138
- Argiaren denbora 61
- Atalak eta osagarriak 14
- Aurrez zehaztutako ikuspegia (web orriak 76

B

- Baimendutako eta babestutako medioak 143
- Bateria
 - bateria administratu 60
 - bateria baxu 30
 - bateriako energia egiaztatu 30
 - bateriari buruzko informazioa 29
- Bidali
 - argazkiak/bideoak posta elektronikoz bidez 137
 - berehalako mezuak (MSN) 112
 - kontaktuaren xehetasunak (vCard) 119
 - mezu elektronikoz/SMSak 97
 - MMS mezua 106
- Bideoa (argazkiak ateratzeko modua) 125, 129
- Bideo-grabagailua 26, 124
- Blokeatu
 - teklatua 68
 - telefonoa 68
- Bluetooth-a
 - Bluetooth modema 88
 - entzungailu estereofonikoa 84
 - esku libreko entzungailua 84
 - ikuspegi orokorra 80
 - lotzea 82
 - modu ikusgarrian 81
 - moduak 80
 - sinkronizatu 51
 - transferitu 86

C

- ClearVue Document 24, 159
- ClearVue PDF 24, 159
- ClearVue Presentation 156
- ClearVue Suite 156
- ClearVue Worksheet 24, 158

Comm Manager 24, 79
 Cookieak (Internet Explorer) 77

D

Data konfiguratu 56
 Deiak 24
 Deitu

- deietatik 35
- kontaktuetatik 34
- Marcado rápido aukeraren bidez 35

 Denei erantzutean zure helbide elektronikoa kanpoan utzi 98
 Deskarga-agentea 25
 Direct Push 49
 DRM (Digital Rights Management – Eskubide digitalen administrazioa) 143

E

Egoeraren adierazleak 23
 Egutegia 24, 113
 Energia-kontsumoa 60
 Energiaren errendimendua optimizatzea 30
 Erantsiak 99
 Erantzun

- mezu elektronikoak/SMSak 98
- MMS mezua 110

 Errore-txostena 61
 Eskualdeko konfigurazioa 56
 Exchange Server

- sinkronizatu 48
- sinkronizazioa programatu 49

F

Fitxategien arak. 25, 65
 Fitxategien segurtasun-kopiak egin 64

G

Gailua blokeatu 68
 Gertakizunak jakinarazteko 57
 GIF animazioa 135
 Global Address List (GAL) 117
 Gogokoak (Internet Explorer) 77
 Gogokoak (Internet Explorer) 77
 GPRS 72

H

Hasierako menua 26
 Hizkuntza/eskualdea konfiguratu 56

I

Idatzi

- mezu elektronikoak/SMSak 97
- MMS mezua 106
- MMS mezua, txantiloiarekin 107

 Ikus-entzunezkoak erreproduzitu 146
 Ikusgai (Bluetooth) 81
 Ikusi

- argazkien aurkezpena 135
- Irudiak 135

 IMAP4 95
 Informazio pertsonala 59
 Internet 72
 Internet Explorer Mobile 25, 76
 Irigarritasunaren konfigurazioa

- berrespenaren zain egon 60
- sarrerako deien alerta 60
- sistemaren letra-tipoa 60
- testua jasotzean itxaron 60

 Irudiak eta bideoak 25, 134
 Irudiak eta bideoak ezabatu 136
 Irudiak

- kontaktuari esleitu 119
- kontaktuei esleitu 137
- orri nagusiaren hondo gisa aukeratu 136

- web gunean ezkutatu edo bistaratu 76

Irudi-gaia (argazkiak ateratzeko modua) 125, 129

J

Jabearen informazioa 59

Jaso

- mezu elektronikoak/SMSak 97
- MMS mezua 110

JOGGR 17

Jokoak 25

K

Kalkulagailua 24

Kamera Imágenes y vídeos ataletik abiaraztea 135

Kamera

- ikonoak eta adierazleak 126
- ikuspegi orokorra 24
- kameraren botoia 124
- menu nagusia 131
- zooma 130

Kirola (argazkiak ateratzeko modua) 125, 129

Konexio partekatua 25, 78

Konfigurazioa 25

Kontaktuak 24, 114

Kontaktuak linean bilatu 117

Kontaktu-argazkiak (argazkiak ateratzeko modua) 125, 129

Kopiatu

- irudiak eta bideoak 134
- PCtik telefonora multimedia-fitxategiak 144
- telefonoaren eta PCaren artean fitxategiak 64
- telefonora soinu-fitxategiak 59

L

LED adierazleak 18

Letraren tamaina (pantaila) 60

M

Mahaigainaren ikuspegia (web orriak) 76

Markaketa bizkorra 25, 35, 160

Martxan dauden programak itxi 63

Medioen sinkronizazioaren konfigurazioa 52

Memoria 63

Memoria ezabatu 24

Mensajes de texto (SMS) 94, 97

Mezuak deskargatu 99

Mezuak digitalki sinatu 53, 100

Mezuak zifratu 53, 100

Mezuen karpetak 102

Mezularitza 25, 94

Midlet Manager 25, 148

MIDlets exekutatu 150

MIDlets instalatu

- Internetetik 148
- lokalean 149
- PCtik 149

MMS bideoa (argazkiak ateratzeko modua) 125, 130

MMS

- argazkia/bideoa erantsi 107
- audioa erantsi 108
- grabatutako testua erantsi 108
- ikusi eta erantzun 110
- menuko aukerak 109
- MMS konfigurazioa 104
- MMSra sartu 103
- sortu eta bidali 106

Modema

- Bluetooth modema 88
- USB modema 78

Moneta konfiguratu 56

MSN Messenger 111

O

Outlook-en posta elektronikoa 94

P

Pantaila itzaltzeko denbora 61

Pantaila nagusia

- hondoa aldatu 56, 136

- ikuspegi orokorra 21, 56

- pertsonalizatu 56

Pantaila nagusia konfiguratu 56

Pantaila nagusia pertsonalizatu 56

Pantaila osoko modua (Internet

Explorer) 77

PINa 32, 67

Pocket MSN 25, 111

POP3 95

- Profila 57

Programak

- ActiveSync 24, 42

- Ahots-oharrak 26, 121

- Bideo-grabagailua 26, 124

- Biltegitratzea ezabatu 24

- ClearVue Document 24, 159

- ClearVue PDF 24, 159

- ClearVue Presentation 156

- ClearVue Worksheet 24, 158

- Comm Manager 24

- Deiak 24

- Egutegia 24, 113

- Fitxategi-esploratzailea 65

- Internet Explorer 25, 76

- Irudiak eta bideoak 25, 134

- Java 25

- Jokoak 25

- Kalkulagailua 24

- Kamera 24, 124

- Konexio partekatua 25, 78

- Kontaktuak 24, 114

- Markaketa bizkorra 25, 160

- Mensajería 25, 94

- Pocket MSN 25, 111

- SIM administratzailea 25

- Telefonoa 31

- Windows Media Mobile-ren

- erreproduzitzailea 26, 139

- Zereginak 26, 120

- Zereginen kudeatzailea 25, 63

Programak gehitu eta kendu 62

Programak geldiarazi 63

Q

QWERTY teklatua 27

R

Revisar pantaila 128

S

Sarrerako deien alerta 60

Sartu SIM txartelav20

Secure/Multipurpose Internet Mail

Extension (S/MIME) 53

Segurtasuna

- Internet 77

- posta elektronikoa 53, 100

SIM administratzailea 115

Sinadura digitala egiaztatu 101

Sinadura digitala

- egiaztatu 101

Sinkronizatu

- biltegitratze-txartela 52

- Bluetooth bidez 51

- Exchange Server-ekiko

- sinkronizazioa programatu 49

- informazio-mota 46

- musika, bideoa eta irudiak

- sinkronizatu 51

- Outlook-eko informazioa

- Exchange Server-ekin sinkronizatu

48

- Outlook-eko informazioa ordenagailuarekin 46
- sinkronizazioa

abiarazi/geldiarazi 45

Sinkronizatzeko konfigurazioaren laguntzailea 42

Sistema eragilearen bertsioa 61

Sistemaren letra-tipoa 60

SMS 94, 97

Soinuak 57

T

Teklatua

- blokeatu 68
- soinua 58

Telefonoa berrabiarazi 69

Telefonoa berrezarri 69

Telefonoa Internetera konektatu

- GPRS 72
- ISParakin telefono-konexioa 73

Telefonoa sare pribatura konektatu 74

Telefonoaren programa 31

Telefonoaren zehaztapenak 61

Telefono-konexioa 73

Testua eta zenbakiak idatzi 27

Testuaren tamaina (web orriak) 76

Transferitu

- Bluetooth bidez 86

Txirrin-tonua 32, 119, 121

V

vCard 119

Voice Speed Dial 26

W

Web gunean irudiak ezkutatzea 76

Web nabigatzailea 76

Web orriak aurkezteko aukerak 76

WiFi 90

WiFi konexioaren segurtasuna 91

Wi-Fi sarera konektatua 90

Windows Media Player

- arazoak konpondu 148
- fitxategien formatuak 139
- ikuspegi orokorra 26
- menuak 140

Windows Media-ren erreproduzitzailea

- sinkronizatu 51

Windows Mobile softwarearen bertsioa 61

Z

Zenbaki-formatua 56

Zereginak 26, 120

Zereginen kudeatzailea 25, 63

Zerrenda bizkorra 27

Zooma 130

Zutabearen ikuspegia (web orriak) 76